

**MIKEL PERUARENA**

# **Ez obeditu inori**

**SS** narratiba  
**Susa**

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2009 Mikel Peruarena

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2009ko apirila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Ea, mutillak, koraje egin,  
ez obeditu iñori.*

Anonimoa, 1895

Heldu dira soka mutur guztiak korapilo baka-  
rrean lotzera, bukatzear dago kontakizuna, eta  
hala ere Estudianteak hisiatuta jarraitzen du ira-  
kurtzen eta idazten ikas dezadan. Zenbat aldiz  
saiatu ote da bi urte hauetan? Baina alferrik da,  
lepo gainean dudan arroka tzar honekin alferrik  
izango da, noski. Eta hala ere gaur berriro saiatu  
da, zakurraren ipurtzuloan eserita geundela -ho-  
rrela esaten diogu Ramiroren tabernako eskaile-  
rapeko zuloari, pipiak erasandako mahai-aulkien  
txokoari-, zakurraren ipurtzuloan Frantsesaren  
zain eserita geundela, beste ahalegin bat egin  
nahi izan du. Gutunazal bat atera du lebitaren  
barruko sakelatik, eta zirriborro batzuk egin diz-  
kio lapitzarekin. Bukatu duela iruditu zaionean  
nire aldera itzuli du gutunazala. Ezetz egin diot  
buruarekin, lepo gainean dudan arroka tzar ho-  
nekin, ez dudala konprenitzen, nekaturik nagoe-  
la, ez dudala inoiz konprenituko, uzteko lasai, ez  
dudala gogorik, nekaturik nagoela, alferrik dela,

heldu direla soka mutur guztiak korapilo baka-  
rrean lotzera.

- Zer nahi duk, astoari egunkariak leitzen  
hastea? Edo astoa egunkariak leitzen hastea?  
-galdetu diot.

- Sotero, ez dizut ezer idazteko eskatu -eran-  
tzun dit, badakielako zenbat nekatzen nauen.

Etsita, beragana itzuli du, bueltan, gutunaza-  
la. Labana atera dut gerruntzetik eta pipiak hasi-  
tako zuloari ekin diot mahaia lardaskatzen.

- Zuk badakizu irakurtzen.

Egia izango da igual, baina ahalegin handia  
egin behar dut zerbait ulertzeko. Nekatuta nago,  
eztarria lehor daukat. Goizean Altzaraino igo  
behar izan dut, eta gero Asteasura bidali naute,  
eta orain nekaturik nago burua estutzen haste-  
ko.

Madriilen onartu al duten galdetu diot, alda-  
tzeagatik, eta baso erdia hustu dut. Baietz egin  
dit buruarekin, ia ez konturatzeko moduan, eta  
zirrimarratu duen gutunazalaren barruan ekarri  
duen agiria erakusten hasi zait. Unibertsitatea-  
ren zigilua ikusi dut agiriaren goiko aldean, baina  
nire egoskorkeriaz oroitu da orduan, eta begien

bistatik kendu dit papera, atzera tolestu eta sakelan gordetzeko.

- Pixka bat gehiago ahaleginduko bazina, Sotero... -hasi zait erretolikan, agiria ez erakutsiz zigortu nahiko banindu bezala, agiria ez erakutsiz ikastera motibatu nahiko banindu bezala, baina ez diot hortik jarraitzen utzi.

- Ezkerrarekin harmonika jo eta eskuinarekin bertsoak idatziko nitizkek. Izorrai! -moztu dut, zakar, eta eskuin besondoa mugitu dut airean, badaezpada, zalantzarik ez izateko.

Seguru nago «Maingu mandoa!» pentsatu duela bere baitarako, askotan esan didan gisan. Begietan ikusten dizkiot pentsamenduak, hain ditu argiak. Baina, zer uste du letradun bizargabe honek? Astogabetu egingo nauela numeroak eta letrak irakatsiz? Beratu egingo duela lepo gainean dudan arroka tzar hau?

- Maingu mandoa! -esan dit azkenean, min-duta.

Barre egin diot. Hain ditu agerian pentsamenduak.

Zirimarratutako gutunazala puska txikitan zatitu eta zati txikitan puskatu du. Laster burura-

tuko da dena, ulertu du lepo gainean dudan arroka ez duela beratuko. Ulertu dut nire maisu gazteak horregatik sentitzen duen tristura. Ordu honetan ulertzen errazagoa da dena zakurraren ipurtzuloan, ordu honetan igaroak daude pasabide estu guztiak, eta argia ikusten da atzean.

Orduan makurtu da nigana.

- Astelehenean, goizeko zortzietan -xuxurlatu dit, Arrietak eta tabernako gainerakoek ez entzuteko.

Astelehenean beraz, Frantsesak esan bezala.

- Astelehenean ondo zagok -erantzun diot, plantak eginez, dena bere lekuan balego, ezer mugitu ez balitz moduan-. Ondo zaudek astelehenak, gustatzen zaizkidak astelehenak.

Baina tximeletak hegan ari zaizkit urdailean, edo inurriak, ez dakit, puzker itoren bat izango da igual. Badarabilt zerbait urdailean, ez ardo hutsa. Kontuak egin eta bost egun baino ez direlako geratzen astelehenerako.

Astelehena, Frantsesak iragarri bezala. Baze-kien zerbait.

Bost egun, ondo, primeran. Gerruntzean gorde dut labana, pipiek egindako zuloekin jostatzen asperturik.

Bost egun eta izorrai, bost egun eta akabo, ondo. Akabo mainguak, minak, ezinak, gorrotak, azkurak, akabo dena. Akabo onena ere, akabo puruak, akabo emakumeak, akabo baso erdiak, akabo harmonikak, bertsoak eta eskean ibiltzeak, akabo gu eta akabo haiek. Akabo dena, den-dena, akabo gerrak, hiletak, monarkiak; akabo. Kaput. Bost egun bakarrik, bost egun besterik ez.

Bost egun eta «C'est fini» esango du norbait.

Bost egun... Ez da gai txarra bertsoak egiteko.

Igande gauean zer egin behar duen galdetu diot Estudianteari.

- Gogoan duzu goizean gelditu ginela? Bezperan esan genuen, goizeko hamarretan, Atoxako frontoian. Gogoan duzu? Hamarretan. Ezin du ezerk huts egin.



Lasai egoteko erantzun diot, akordatzen naitzela bezperakoaz, baina gauean zer egingo ote zuen jakin nahi nuela, besterik ez; lasaitzeko.

Beste baso erdi bat eskatu dut. Estudianteak ez du nahi, hustu gabea mahai gainean dauka oraindik.

Bost egun... Egin zitekeen bertsozik gai horrekin. Baracoatik ihesi, azukre kanaberen artean gordeta, manbisei entzundako kantarekin akordatu naiz orduan, eta txistuka hasi naiz Baracoatik eta sega zorrotzetik ihesi moro beltzei ikasitako kanta. Txistuka hasi naiz aurrena, eta patrikatik kutxatxoa atera, Hohnerra mahukan igurtzi, eta jotzeari ekin diot nahi gabe, harmonikak erregutu balit bezala.

Ramiroren tabernako apopiloak galdezka hasi zaizkit, zein doinu den hori, ea doinu berriak asmatzen hasi ote naizen.

- Kantatuko nizueke, zuek harmonika jotzen gero -trufatu natzaie.

Inork ez dio erronkari eutsi eta, hala ere, kantatzen hasi naiz, Hohnerrarekin mahai gainean kolpeka.

«Maria Cristina me quiere gobernar,  
y yo le sigo, le sigo la corriente,  
porque no quiero que diga la gente  
que Maria Cristina me quiere gobernar...»

Begiratu itsusia bota dit Estudianteak. Ulertu dut. Ados. Frantsesa ez da azaltzen, berandutzen ari da, ez gara dantzan hasiko. Eta gainera ez da komeni, egia da, arrazoi du, ez zaigu komeni kanta hau orain, hemen. Ados. Ramiroren tabernan biltzen den jende hau ni bezalakoa da, oharkabean esaten ditu esan behar ez direnak, konturatu gabe salatzen du adiskidea, edo ogi kozkor batengatik ematen dio ostikoa ipurdian. Estudiantea ez da fidatzen jende honekin, eta jende hau hobea da ez fidatzeko, arrazoi du begiratuan.

Kantatzeari utzi eta harmonikarekin amaitu dut insurrektoen airea. Ramiroren apopiloek barre egin dute; ez dakite ondo. Beste Maria Kristina bat ulertu didate, lau hankako maitalea asmatu didate. Oraindik ez dakite nire asto berriaren izenik. Arrietak bai, badaki, eta zirikatu egin nahi nau, harrotu egin da, keinuak egin diz-

kit atzaparrak zabaldua, gerturatu eta lepotik heldu nau. Barrez jarri du taberna osoa. Sarjentu gradua irabazi duenetik horrela dabil, lehen zena baino harroago oraindik.

Ez diet ezer erantzun, pentsa dezatela nahi dutena.

Baina Frantsesa ez da azaltzen, berandutzen ari da, eta Estudianteak presa duela konturatu naiz, urduri jartzen ari dela Ramiroren tabernako gizonen kirtenkeriekin.

- Badaukak bukatzeko beste lan klase bat, hik -esan diot zirtolari, Arrietaren beso alimalekoa lepotik askatzea lortu dudanean.

Martuteneko neskatilei lakioa bota eta ferrak jartzera jolastu nahi al duen galdetu diot, baina ez dit jolasa onartu, mostradoreko ordulariari begiratu dio, patrikakoari gero. Frantsesarekin berak hitz egin nahi duela, berak esan nahi diola, erantzun dit. Seguru egon nahi duela, ezin duela ezerk huts egin.

Nahi badu Frantsesari nik itxarongo diodala esan diot, eta joateko, joateko bere maiteñoa-rengana lasai, pasako diodala nik informea Frantsesari. Ezetzean tematu da hasieran, dena ondo

lotu nahi duela, ziur egon behar duela, ez dela atzera egiteko garaia. Pixka bat lasaitu dut, zaplada batzuk eman dizkiot bizkarrean, Frantse-sarena baino beranteste okerragoa izango dela berea esan diot eta, konturatu naizenerako, gin-baila jantzi eta tabernako atarian zegoen.

Ez zuen askorik behar.

Bakarrik gelditu naiz zakurraren ipurtzuloan, eta Frantsesa ez da azaldu, berandutzen ari da. Denbora joan da. Ordu mordoa. Gehiegi, nolana-hi.

Maria Kristinak bakarrik utzi al nauen, Arrietak berriro.

Osteguneko bazkarirako sosak bota ditut mostradore gainera. Pasodoble bat jotzeko eskatu didate. Esaneko portatu naiz. Ostiraleko bazkariaren parte bat ere erori zait mostradore gainera. Ramirok itxi egin behar duela esan du. Berandu da nonbait.

- Ixteko ordua da, Sotero.

Ezin zuen ezerk hutsik egin, baina Frantsesa ez da azaldu.

Ramirori esan diot ostegunean non ibiliko naizen, ostiralean zein lekutan egongo naizen

esan diot, larunbatean zer egingo dudan ere esan diot gero. Igandean, goizeko hamarretan, Atotxako frontoian egongo naizela esan diot azkenean. Ondo edo gaizki, esan egin diot, atetik irten aurretik.

- Frantsesa ikusten baduk, esaiok non ibiliko naizen.

- Villabonako besamotzarekin jokatu behar al duk igandean? -zirikatu nau.

- Hik esaiok, sin falta.

Apropos aldatua genuen biltzeko eguna. Ahaztu egingo zitzaion akaso, gure zahagi handiari.

Osteguna pasa da Frantsesik gabe. Moldizte-gira joan nahi nuen, baina itxia egongo zen ukui-luko lanak bukatu ditudanerako, eta ontzia urez betetzen hasi da. Lau egun besterik ez dira falta.

Ostirala da eta Ramirori galdetu diot. Ez dela handik Frantsesik agertu erantzun dit eta botilak zapi herdoilduarekin garbitzen jarraitu du. Kasurik eman gabe, moldiztegirako bidea hartu dut, baina han ere ez dute Frantsesaren berririk. Gaixo egon liteke, ez da egun osoan lantokian agertu, eta ez du abisurik utzi.

Zerbait egin behar dudala erabakita irten naiz moldiztegitik, baina ez dakit non lo egiten duen Estudianteak. Ez dakit non bazkaltzen duen. Non ikasten duen. Galdezka ibili naiz. Han eta hemen. Hiru egun eta ontziak gainezka egingo duela ematen du.

Larunbata delako, berriro pasa naiz moldiztegitik, zain egon naiz kanpoan, barrura sartu eta alfer-alferrik galdezka ez hasteagatik. Alameda-tik ibili naiz, gora eta behera, harresiak ziren bi-deetatik joan naiz, behera eta gora Urumeara, soldadu eta neskame artean Urumeatik, behin eta berriro. Kaian begiratu dut, Txubillo mendirako bidean, badiako bide bazter guztietan, Madril-go bisitari atzenduen artean.

Non sartzen dira larunbatetan estudianteak? Zer egiten dute larunbatetan tipografoek?

Azkenean euria hasi du, ikusia zegoen. Bi egun baino ez dira, bost zirenak; isuriko da ontzia. Kaian gatz usaina, simaur, odol, zabor usaina. Euriak garbituko du akaso.

Igandea. Atotxako frontoiaren kanpo aldean nengoen ordubete lehenagotik, goizeko bederatzia eman aurretik. Ezin izan nuen loa errenditu

gau osoan. Lurrerainokoak neuzkan begi zuloak. Bost egun eta akabo, horrela behar zuen, akabo dena. Frantsesak esan bezala.

Hamarrak jo eta esandako orduan ikusi nuen Estudiantea oinez hurbiltzen. Harengana jo nuen zuzenean, dena kontatu nion, zer pasa zen asteazkenean, nola berandutu zitzaidan ostegunean, non ibili nintzen ostiralean, zein lekutan bilatu nituen larunbatean, zer ezinegon pasa nuen bezperako gauean.

- Ez da etorriko -esan zidan Estudianteak, tabakoaren kea sudurretik isurtzen zitzaiola-. Ez nau harritzen batere. Acta est fabula.

- In dubio, pro reo -erantzun nion azkar arraio.

Harriturik begiratu zidan.

- On Kaxildoren kontuak -argitu nion, petrilean eseriz-. Asteasuko apaiza, buruhandi bat.

Petrilean eseri zen Estudiantea ere. Zigarroak piztu genituen.

Ordubete luzez itxaron genuen, iganderik gabeko astea baino luzeago egin zitzaigun ordubete luze batez itxaron genuen. Pilotariak, nork gehiago, frontisaren kontra astintzen zuten pilo-

taren hots lehor zehatza heldu zitzaigun, ohola zultzeko mailuarekin astintzen den iltzearen pare, frontoitik. Mailu eta iltze hots haiek baino ez genituen entzuten, isilik zegoen gainontzeko mundua.

- Itxoingo diagu, badaezpada ere? -galdetu nuen.

Ez zuen biotako inork erantzun. Zigarro gehiago piztu, eta iganderik gabeko hilabetea baino luzeago egin zitzaigun beste ordubete luze batez itxaron genuen. Eta handik aurrera itxaroten jarraitu genuen, zigarroak erretzen, eta ja ezer itxaron gabe.

Partida amaitu zen, ez genuen jakin egun hartako galtzailea nor izan zen. Estudianteari galdetu nion, ea ez ote zegoen konpontzeko modurik.

- Saldu egin gaitu, Sotero, saldu... Bihar polizia eta guardiaz betea egongo da Gaztelurako bide guztia, puzkerrik ere ezingo da bota ehun metrora inor ohartu gabe.

Ez zuen haserrerik, ezta apenas tristurarik edo etsipenik ere. Zen bezala esan zuen, lasai-



tua hartu balu bezala. Bai. Lasaitua hartu zuen. Estudianteak.

Pilotak horma higatu zuen gisa berean, iltzeak ere gero eta barrurago egin zuen zuraren barrurako bidea, gero eta sakonagoa zen petrill hartako ezinegona. Petrilerak iltzatuak eta petrilean zulatuak, han geunden, umezurtz. Partida amaitua zen, Frantsesa ez zen ageri, ez genuen petrilean eserita jarraitzeko aitzakiarik. Jaiki behar genuen, lekutu, ospa egin, ezkutatu, Argentinara joan, larreratu, eskapo joan, Frantziara hanka egin, sasiratu; azkar gainera; baina biotako inor ez zen altxatzera ausartzen. Derrota onartzea zatekeen, une hartan, petriletik altxatzea. Ez genuen altxa nahi. Ez genuen ohartu nahi bosgarren eguna iritsi aurretik amaitu zela dena. Dena amaitu aurretik amaitu zela dena.

Bi urte kare bizitan erreak, alferrik.

Han geunden, petrilerak iltzatuak eta petrilean zulatuak, umezurtz. Gerruntzean labana laztandu nuen, baina berriro kontu harekin erretolikan hastea debalde zela etsita, gordeta neuzkan hiru puruak atereaz, bat eskaini nion Estudianteari.

- Kubatik nolabait ekarri nitian, hezetu gabe eta... Gordeta nitian gaurkoa bezalako egunen baterako, baina...

- Bai, gaurkoa bezalako egunen baterako, ezta? -moztu zidan Estudianteak, puruetako bat onartuz-. C'est fini. Frantsesak esango zuen moduan.

- Esan nian -ekin nion orduan, imurtxi egin zidalako azken «C'est fini» hark-. Esan nian hobe zela dinamita nik gordetzea.

Haserrerik gabe esan nion, apenas tristurarik edo etsipenik ere gabe. Zen bezala esan nion, nik aspaldi nekien bezala. Bai. Nik banekien. Aspalditik.

Itzaletik eguzki aldera mugitzen ari zen jendea. Altxatzeko garaia zela erabaki genuen. Zer-bait erabaki behar genuen. Ezin genuen ezer erabaki. Mozkortu egin ginen, erabaki gabe, nahi gabe, ezinbestean, kontua galtzeraino, hitzik egin gabe. Bistatik galdu nuen Estudiantea. Ni bultzaka atera ninduten Ramirorenetik. Arrastaka heldu nintzen etxera.

Bezperako ekaitzari eusten zion zeruak. Orduak besterik ez ziren falta, orduak, eta ontzia hutsik zegoen; urak handi.

Astelehenean ajearekin eta dena hezetzen zuen, hezurretaraino sartzen zen euri zirin batekin esnatu nintzen goizean goizetik. Astigarragara abiatu nintzen astoarekin. Donostiarako bidetan nintzela atertu zuen, eguerdian.

Etsi nuen Federazioak ez zuela ezer egingo, nik ere ez nuela ezer egin, eta ezin zidatela esan ezer egin nuenik, ez nuelako ezer egin. Asteartean ontziaren beira kraskatu zen eta ez genuen ezer egin. Garbi geneuzkan eskuak. Baina zikin sentitzen nintzen.

Asteazkenean *La Voz de Guipúzcoa* ekarri zuen Maria Cristina erregina anderea eta Alfonso XIII. errege umea Gaztelu mendira igo zirela astelehenean, Sicilia erregimentuaren garnizioari bisita egitera. Bost egunetik, zazpira igaroak ginen.

Ostegunean ontziaren beira kraskatua txirtxilatatu egin zen, ezabatu, deuseztatu; joan ziren egunak, inor ez zen gure bila etorri. Ez ziren,

akaso, etorriko. Frantsesak ez gintuen saldu, akaso.

Arin sentitzen nintzen, larrua salbatzeko aukera ikusten nuelako. Astun sentitzen nintzen, betiko itzaltzen utzi nuelako Angiolilloren sua.

Ostiralean Estudianteak aurkitu ninduen ni, San Martinetik Loiolarako bidean. Madrilerako tren hartu behar zuen gauean. Buruan erabili nituenak kontatu nizkion. Akaso zigorretik libratuko ginela esan nion.

Gehiago ez pentsatzeko horri buruz, esan zidan. Izan zenak eta izan behar zuenak ez zutela axolarik gehiago. Aurrera begiratu behar zela.

Txapela erantzi nuen Estudiantearen aurrean. Inoiz ez nuen haren mundua ulertzeko abildaderik izango. Ginbaila erantzi zuen Estudianteak. Hark ere ez ninduen ni erabat ulertzen. Besarkada batez despeditu ginen. Lehen aldian zen elkar besarkatzen genuela. Azkena ere izango zen, akaso.

- Esan nian hobe zela dinamita nik gordetzea.

Aurrera begiratuko zuen gerorako zerbait zuenak. Besteok atzera begiratu behar.

Frantsesari Emilio deitzen zioten lanean, Barojatarren moldiztegian, baina *Émile* zuen ponteko izena. Hasieran bai, saiatu zen lankideek bere izena ondo ahoska zezaten, pazientziarekin hartu zuen, behin eta askotan errepikatu zien, baina hasierako eta bukaerako e haiek berdin ahoskatzen zizkioten. Azkenerako nekatu egin zen, gaizki ahoskaturiko eta berea ez zen izen hura entzuten aspertu, eta Emilek Emilio esan nahi zuela aitortu zien.

Gero izen berriak asmatuko nizkion, baina nik, Frantsesa deitu nion hasieratik.

Asteartea zen, jai nuen arratsaldean, aspaldi beharrez, eta asto artetik jende artera joateko baimena neukan, nagusiari abereak ondo gobernatuta utzirik. Xefek paperean eskuz jarri zizkidan azken bertsoekin joan nintzen moldiztegiara, hamalauko sorta bat.

Josefa ez zegoen eta hainbestean itxi nuen tratua enkargatuarekin. Moduz. Nire egoera lastimosoak hunkitu zuen. Besondoari begiratu eta,

«Nola ba? Deskontua egingo dizugu. Hainbeste merezi du aberria defenditzeko besoa eman duenak!», esan zidan.

Baroja andrearekin hitz egin beharko zuela, baina ez zuela uste arazorik izango zenik deskontu txiki bat egiteko. Jaiki eta, izerdiak lehortuz, bulegoko atera zihoan bitartean, «Emilio, etor zaitez hona, badugu zuretzako lan bat hemen!», egin zion oihu Frantsesari.

- Frantsesa da. Oraindik ez du bertsorik inprimatu, baina ikasi beharko du halakoren batean. Erdi poeta da gainera. Gizaseme txukuna. Lan ona egingo dizu.

Gizon mozkote, mutur gorri, bibote handi, azal argiko batek erantzun zion enkargatuaren deiari. Eskuak galtzetan igurtziz eta kopeta zabalaz zimurtuz gerturatu zen biongan.

- Sotero Mujika. Bertsolaria da -aurkeztu ninduen enkargatuak.

Ezker eskuak estutu genizkion elkarri, pixka bat harroturik nik, jakin-min puska batez hark. Enkargatuak esan zion poeta nintzela ni ere, hura bezala, trobadore antzeko bat, poema moduko batzuk idatzi eta gero plazetan kantatu eta

saltzen nituena, eta estimu handia ziela jendeak nire bertso haiei, eta ez dakit zenbat gauza gehiago.

- Erdi trobadore, erdi poeta bat, ezta?

Ez nekien Frantsesa gaztelania jario hura ulertzeko gai zen, moldiztegiko enkargatuak modu bakarrean zienta bat silaba irentsiz hitz egiten baitzuen. Ez nekien ulertzen ez zuelako, edo enkargatuari hizketan egitearen plazera uzteagatik begiratzen zigun horrela, arrotz, urrundik, bekainik ere mugitu gabe, isilik. Aldez horretan pentsatzen ari nintzelako, moldez trobadoreak zer ziren ziur ez nekielako, baietz esan nion, erdi trobadore, erdi poeta, baietz, erdi eta erdi nintzela. Besoa ere erdia nuela.

- Baina badut neure musika ere.

Eta galtzetako patrikatik erditik plegatutako nire Hohner harmonikaren kutxatxo atera eta erakutsi egin nien.

Barre izpi batez agurtu ninduen enkargatuak eta Frantsesarekin bidali ninduen, behar nuena hari esplikatzeke esanda.

Atzetik jarraitu nion Frantsesari bere laneko mahairaino. Ez baitzuen oraindik hitzik egin, gaztelaniaz ba al zekien galdetu nion.

- Gaztelaniaz, frantsesez eta italieraz -erantzun zidan argiro-. Eta baita alemana eta ingeles pixka bat ere.

- Eta euskaraz ba al dakik, euskaraz? -egin nion erronka, umilduko nuelakoan.

Sudurra igurtzi eta ezetz aitortu zidan, ez zekiela, hiru hitz besterik ez zituela ikasi iritsi zenetik, doinu bitxiz ahoskatu zizkidan «Barkatu, eskerrik asko eta Jainkoak egunon» haiek besterik ez.

Barre egingo nion, amorrarazi ez banindu.

- Gustatuko litzaidake ikastea, hala ere -aitortu zidan-. Baina ez da erraza. Hemen ez du inork irakasteko pazientziarik. Hitz erdi bat egin orduko, gaztelaniaz hasten zaizkit denak.

Zeharka begiratu zidan, mahaitik paper mutur bat eta lapitza hartzen zituela.

- Zuk uste duzuna baino hobeto ulertzen zaitut, hala ere. Okzitaniarra naiz.

Hori non zegoen galdetu nion, Paristik hurbil ote zegoen. Ezetz, sortzez Tolosakoa zela bera,



eta ea Tolosa non zegoen ba al nekien. Eta nik, tonto arraioa, baietz, noski, Villabonatik aurrera joanda.

Baietz, baietz aitortu zidan barre betean, baze kiela non zegoen gurea, baina beste Tolosa batekoa zela bera, Pirinioetatik harantzagoko Tolosa batekoa, eta hiri hura non zegoen, eta hori Okzitania zela, denak azaldu zizkidan. Umetan okzitanieraz hitz egiten zuela, baina gero Parisera joan zela lanera, eta han ahaztu zitzaiola esan zidan, eta ahapaldi ulergaitz bat ahoskatu zuen, dena jarraian, berak okzitanieraz idatzia zuen poema baten hasiera zela zehaztuz. Gero lotsatu egin zen, koloreak bizitu zitzaizkion mashailean eta barkatzeko eskatu zidan, arren. Zer lan egin behar zuen galdetu zidan, eskuetan zituena lapitza eta paper muturrarekin akordatuta.

Gizon zintzo eta umilaren traza hartu nion orduan mozkote azal argiko bibote handi hari, eta beste arrazoirik gabe esan nion bere poemak euskaraz jarriko nituela, nahi bazuen.

Badakit gustatu egin zitzaiola eskaintza. Ez dakit zergatik eskaini nintzaion, baina badakit gustatu egin zitzaiola.

Eskuak garondora eraman eta totelka hasi zen, ezbaian, eskerrak eman zizkidan, zer esan ez zekiela gelditu zen; barre egin zuen. Ez zela hori, noski, esku artean geneukan lana, baina akaso hori ere publikatuko genuela egunen batean esan zidan.

Ados gelditu ginen fantasia horretan eta, bertsoak zer ziren eta paperean nola antolatu behar zituen ikusteko, nirekin neramatzan Otañoren bertsopaper batzuk erakutsi nizkion, patrikatik aterata. Lapitzarekin ohar batzuk hartu zituen paper muturrean. Gero esan zidan, bertsopaperak eskura itzultzen zizkidala, nik bereak euskarara itzuliz gero, berak itzuliko zituela nireak okzitanierara.

Bertsopaperei heldu nien neuk ere. Biok heletzen genien Otañoren bertsopaperei, han tailleraren bazter hartan. Zein bertso ziren, ez dut gogoan.

«Kubako kastak, orain dirala  
lareun urte zer ziñaten?  
Pixtien gisa jazkairik gabe  
biluzgorri zebiltzaten;

ta erakutsi ondorenean  
jazten, hizketan ta jaten,  
ari zerate zeren amari  
garratztasunak ematen!  
Ikusiko da beiñ betirako  
aspertzen ote zeraten.»

Ez dakit. Akaso.

Kontrako leihotik arrastiriaren argi apal atse-  
gina sartzen zen. Erremintak -kutxak, berunezko  
moldeak, tinta poteak, tamaina askotako paper  
zatiak- jasotzen hasi ziren langileak. Hurrengo  
goizerako aginduak eman zituen enkargatuak.  
Han, tailerraren bazter hartan, martxoko arrasti-  
ri luzatzen hasien argi atseginak epeldurik, Ota-  
ñoren bertsopaperak zeuden bion hatz mamie-  
tan.

Nik ez dakit zein hizkuntzak, zein bertsok el-  
kartu gintuen une hartan. Beste haiek, akaso.

«Aitortutzen det lotsa aundi bat  
barrenen sartzen zaidala,  
iduriturik iñoiz gizona  
piztiak beziñ zitala.»

Paperen bila itzuli nintzen egunean falta zen. Ezagutzen ez nuen gazte sudur motz batek entregatu zidan fardela. Emilio non zen galdetu nion. Besagainak altxa zituen.

Probako orriak begiratu nituen eta hitz egin bezala ordaindu nion enkargatuari. Emilio ez al zen etorri galdetu nion bulegotik irten aurretik.

- A! Ez -egin zuen diruak kutxan jaso eta oraindik han nengoela jabetu zenean-. Goizago irten behar izan du. Mandatu batera bidali dut.

Etxera itzuli nintzen, fardela eta nahigabea galtzarbean hartuta. Logelako mahaiaren gainean utzi eta larunbata arte han egon zen, ireki gabe, tabako toxaren aldamenean. Noiz erreko zain egongo balira bezala zeuden, elkarren aldamenean, tabakoa eta fardela. Aste hartan, lanak bukatu eta etxeratzen nintzelarik, fardelari eta tabako toxari begira egoten nintzen, ohean eserita, biak ere sugai zirela pentsatzen.

Larunbatean Usurbilen zen merkatu eguna. Paper batzuk salduko ote nituen joan nintzen haraino, Hohnerrari hautsak astintzeko prest, jen-

deak bertsoei egingo zien harrera ezagutzeko irrikaz.

Zeruan hodei garaiak, baina bidean euri jasarik ez eta, hala ere, bustita iritsi nintzen, haizeak astintzen zituen adaxketatik erortzen ziren tanta lodiekin. Iritsi, oinetako lehorrak jantzi, ardo pizar batekin barruak epeldu eta, plazaren ertz batean jarrita, fardela hartu. Eta zabaldu.

Gerruntzetik ateratako labanarekin amultsuki korapilatutako soka moztu, zatar papera kendu, eta orri inprimatu berrien usaina hartu dute nire eskuek. Elizako ordulariak hamarrak eta laurden eman ditu. Usaina hartu diet paperei, eskuak usain ditut, igurtzi. Ez nituzke orriak zikindu nahi.

Lehen orria hartu dut eskuetan. Xefek eskuz jarriak, hemen daude.

Bigarrena hartu dut, baina paper hau ere ez da moldiztegiakoa, ez da nire enkargukoa, atzeko denak bai, baina hau ez. Eskuz idatzia dator, letra zaindu, etzan, dotore bat, ez moldeekin inprimatua. Harriturik begiratu dut, aurretik eta atzetik. Iruditu zait badakidala Okzitaniako zein

zokotatik etorri den, letra zaindu etzan dotore hau, nire eskuraino:

«Quand l'ère du sang sera close,  
nous changerons notre drapeau,  
et l'étendard de couleur rose  
guidera le monde nouveau!»

Eta pixka bat beherago, letra etzan baldarra-goarekin:

«Cuando acabe la era de la sangre,  
cambiaremos nuestra bandera,  
y el color rojo del estandarte  
guiará el rumbo de la nueva tierra»

Lastima. Damutu zitzaidan tinta arrasto haiek ulertzeko abilidadarik ez izatea.

Fermini esaten ari nintzaion ferrak begiratzera eramane behar genuela Maria Kristina, herren harekin ez zela azkarrago ibiliko, ferrak mugitu bazitzaizkion, ez zitzaizkiola onean itzuliko lehen-

gora baina, bai zera! Zer ikusiko zuen Ferminek patrikako zuloaz harago?

- Asto herrena, nagusi txarrarena, bera handiena! -esan nion, konturatuko ote zen edo, arrantzaren bat egin ziezadan bederen.

Iraztorra hedatzeari utzi eta niri builaka hasi zen. Sardea airean altxea zuela, Jaulisen muturra agertu zen ukuiluko atetik. Gizon heldu bat nigatik galdezka omen zegoen atarian.

- Zer lapurtu duk oraingoan? -galdetu zidan Ferminek, duda handirik gabe, sardea armiarma sareen kontra astinduz.

- Herren hori lapurtuko nioan, gustura gainera, Maria Kristinari! Zer lapurtuko nian ba, nik?

- Hi bai astoa! Horrek erantsiko zian egoskor-keria.

- Itxura ederra ematen diagu ba kalean: soldadu maingua eta zamari herrena, alajaina! Zer ez ote zigutek asmatuko?

- Segi ezak gora, ea zein den -erantzun zidan, sardea iraztorretara jaitsiz.

Jaulisen irri nerabeen atzetik abiatu nintzen ukuiluan gorako harmailetan.

- Eramaiok asto zahar hori Esoraini, nahi baduk -onartu zidan, azkenean, Ferminen bozak ukuilutik-. Baina heure patrikatik ordaindu beharko diok. Auskalo zein bidetatik barrena ibiltzen haizen asto gajoarekin, horrela, hondatuta ekartzeko.

Marmarrean utzi nuen. Aspertuko zen.

Ukabilarekin keinu egin zidan Jaulisek, maila pare bat goragotik, Ferminen plantak eginez. Beso ezkerra luzatu nion, galtza motzetatik eutsi nahian. Barreka ihes egin zidan harmailatan gora, lasterka.

- Mukizu hori! Harrapatzen bahaut, Saka-mantekasen atzaparretan bukatuko duk!

Begietan daukat nola izan zen. Begietan daukat zer gertatu zen sanjoan bezperako igande gau hartan.

Ostiral ilunabarra zen eta Plaza Berrian geunden Frantsesa, Estudiantea eta hirurok, sanjoanetako sura joanak. Frantsesak su gaintetik salto egin nahi zuen. Nik ez nituen nire galtzarik txukunenak kiskali nahi. Ez ziren Parisko modernoe-



nak izango, baina neuzkan txukunenak behintzat, batere adabakirik gabeak. Estudianteak ere ez zuen gogorik saltoka hasteko; itzali samar zegoen azken aldian.

Ahalegindu ginen Frantsesak erokeriarik egin ez zezan. Ukitua zegoen ordurako. Ez genion utzi nahi, baina han joan zen, bera bakarrik, purrustaka.

Salto egin eta txinpartak atera ziren airera. Ia piztu zitzaizkion galtzen hegalak.

Itzuli zenean, zahatoa kendu zidan eskutik, zintzurak, paparrak eta bazterrak busti eta builaka hasi zen:

- Surtara! Surtara soineko zaharrak!  
Errautsekin jantziko gara goizean!  
Surtara! Surtara hortz zaharrak!  
Ogi bigunari kosk egingo diogu gauean!  
Itzali su zaharrak, piztu gar berriak!

Inprobisatzen ari zen, baldarregi, zatarregi, nabarmen. Estudianteari heldu zion gerritik, eta haren belarri ondora jarraitu zuen, apalago, baina ozenegi.

- Surtara trapu zaharrak! Surtara!  
Errautsetatik jaioko gara goizean!  
Beti jaio garen moduan!  
Errautsetan hilko gara gaur!  
Beti hil garen moduan!

Ni ere gerritik heldu, eta haiengana inguratu ninduen indarka. Egin genizkion destaina eta keinuekin ahotsa apalduz bazihoakion ere, jarraitzen zuen errezitaldiarekin.

- Surtara! Surtara soineko zaharrak!  
Itzaliko dela dirudien arren,  
Piztuko da berriz!  
Itzaliko dela dakigun arren,  
Itzaliko da, berriz!

Apal-apal bukatu zuen, zer esaten zuen ere ulertzen ez zitzaiola. Nahasten hasia zegoen ordurako. Eskerrak, hala ere; isildu zen. San Telmo kalea berriz erretzera heldu ginen portugesak ote ginen pentsatuko zuten bizilagunek, entzun baligute.

Kolkotik helduta, arrastaka ginderamatzan kalean behera, zambuluka. Trenpu txarrean ipintzen ari zen, mutur, bibote eta paparrak gorri, begiratua busti, gaizto eta ezkel. Indarra zuen hala ere.

Kolkotik helduta, bagindoazen nolabait Esnategi kalean barrena, bazterrak jotzen, zealdoka, hirurak Frantsesaren aginduetara dantzan, Estudianteari lebitatik tira, atzeraka egin, eta hirurak batera brastakoan erori ginen arte.

Simaur pila dotoreago zegokeen, une hartan, gure aldean.

Ume koadrila pasa zen aldamenetik, txilibitu eta koskabiloekin adarra jotzen. Gizon batzuk etorri zitzaizkigun laguntzera, zutitu gintuzten nolabait, eta etxera itzultzeko ordua zela erabaki genuen Estudianteak eta biok. Non bizi zen seguru jakin ez. Kai aldera eraman eta atariren batean uztea erabaki genuen. Esnatutakoan mol-datuko zen, nahi bazuen.

Gogo gutxirekin onartu zigun Frantsesak, baina erraz eraman genuen hasieran, borondaterik gabeko zaku txurikinez betea balitz baino errazago. Gero tematu zitzaigun. Eusten zuten

hiru besoetatik askatu, altxatzen zuten habeetatik libratu, kalearen erdian plantatu eta esan zuen, hatza burutik gora jasoz:

- Erabaki egin behar dugu. Ja! Hemen bertan.

Hic et nunc!

Lurrean aztarrika hasi zen, baldar, basurdea baino trauskilago. Saiatu ginen zentzua berreskura zezan, esan genion uzteko, ez zegoela ezer lurrean; arrazoiria itzul zedin saiatu ginen, esan genion hurrengo goizean hitz egingo genuela argiago. Plantak egiten ariko balitz ere, ez zuen mozkor piura handiagoa izango. Ez zuen ezer entzuten. Mozkor piura handiagorik, nahita ere ez. Ez zigula ezer entzungo erabaki zuen.

Nolabait batu zituen hiru zotz lurretik eta ukabilean sartu zituen.

- Luzeena ateratzen duenak. Ados? Hark izango du ohorea. Luzeena ateratzen duenak berpiztuko gaitu errautsetatik!

Muturraren aurrean jarri zidan bere atzapar berunez zikindua, mozkorrez izerditua, hiru zotzen muturrak bistan.

Estudianteari begiratu nion. Ez nekien atzaparretik zotza hartu behar nuen, eta kito, edo besazpitik heldu behar nuen, eta akabo.

Aurrean neukan ukabila, galdea, eskakizuna, aukera. Ez nekien zein zotz hautatuko nukeen, ez nekien zotz bat hautatu behar nuen, edo itxarrotea komeni zitzaidan. Ez nekien enbido jo edo pasoa joan behar nuen.

Estudianteak luzatu zuen besoa, fartsa mozkor harekin izorratuta. Estudianteak luzatu zuen eskua. Mozkor fartsantearekin izorratuta.

Frantsesak dardaraka zuen tipografo esku zaildua. Zotz bat hautatu zuen gutako gazteenak. Hiru zeuzkan aukeran. Bat hautatu zuen. Gazteenak. Enbidoari heldu zion.

Besoa luzatu nuen nik ere, bi neuzkan aukeran, eskua luzatu nuen zotz bat hartzeko, bitik bat hartzeko.

Frantsesaren atzapar barruan zotz bakarra gelditu zen. Frantsesaren atzapar barruan krak! entzun zen, kraskatako txiki bat, krak! entzun zela iruditu zitzaidan.

- Kaben zotz! -esan zuen Frantsesaren ahots bustiak.

Begiratu genion. Eta motzena, motzena zeukan eskuan. Hiru zotzetan motzena.

Gustura aterako nuen labana gerruntzetik une hartan. Asko pentsatu gabe.

- Kaben zotz! -errepikatu zuen, eta erditik moztu zuen zotz motzena, bigarren aldiz krak! entzun nuen Frantsesaren eskuan.

Labana sentitzen nuen gerruntzean.

Estudianteak neure esku zarpailari begiratu zion. Bereei begiratu zien, bere esku leunei begiratu zien. Berriro begiratu zidan eskura, begietera.

Eskuan zuen zotz luzeena. Eskuan zuen zotz luzeena estutu zuen, ukabildu zuen. Zotz luzeenak krak! egin zuen, kraskatako txiki bat; krak! egin zuela iruditu zitzaidan, Estudiantearen esku bilduan.

Lurrera bota zituen zotz puskek.

- Neurea da luzeena -esan zuen lehor Estudianteak.

Danbor eta tronpeta joleekin heldu zen koardila batek inguratu gintuen. Bistatik galdu nituen adiskideak. Tronpeta joleak Esnategitik aurrera urrundu zirenean, bakarrik nengoen.

- Mukizu hori! Harrapatzen bahaut, Sakaman-tekasen atzaparretan bukatuko duk!

Baina ja ez nuen harrapatuko Jaulis deabru hura. Atarian egongo zen ordurako, nigatik galdezka etorri zen gizonarekin solasean, segituan helduko nintzela, sartzeko barrura, ea ezer hartu nahi ote zuen, salda katiluren bat akaso, baso erdiren bat bestela.

- Ez, eskerrik asko -esaten ari zitzaion bisitaria Jaulisi, atarira iritsi nintzenean.

Ez nintzen gutxi harritu ahots hura atarian entzun nuenean. Nola aurkitu ninduen baina?

Haizea hartzera bidali nuen Jaulis eta etxaurrera irten nintzen bisitariarekin. Harriturik sumatuko ninduen edo, bera hasi zen behintzat hizketan.

- Txikia da Donostia, agian zuri bestela irudituko bazaizu ere.

Inguruko bazterrei begiratu zien, arin.

- Litekeena da zuri ez iruditzea, Sotero, baina Parisen aldean... Zuen Donostia hau pospolo kaxa besterik ez da Parisen aldean.

Ezkerreko ezpaina altxa zuen irri egiteko.

- Fosforo pixka bat falta bazaio ere -erantsi zuen.

Nondik hasi ez dakienarentzat edozerk ematen duela handia, erantzun nion. Inguruko bazterrei begiratzeari utzi zion. Aitortu nion zein harrituta nengoen hain azkar aurkitu ninduelako. Nola egin ote zuen, horren azkar aurkitzeko, galdetu nion.

- Hainbesteko jakin-mina baldin baduzu, esplikatuko dizut.

Burlaizea nabaritu nion.

- Bizitza honetan garrantzitsuena kontaktuak dira, Sotero, kontaktuak. Badakizu zer egin dudan?

Serio jarri zen, bibotea txirikordatu zuen, kopeta izugarri hura zimurtu.

- Polizia buruarengana joan naiz.

Lipar batez itxaron zuen Frantsesak, zer esango ote nuen.

- Polizia buruarengana joan naiz, eta galdetu diot: «Aizu, non bizi da Kubako gerrari buruzko astakeriak esaten ibiltzen den trobadore hori?». Eta galdetu dit: «Zein? Bertsolari besamotz kan-



kailu umore txarreko bat?», eta esan diot: «Hara, horixe bera!». Orduan zera esan dit: «Eizmendi izeneko batentzat aritzen da lanean, han Loiolan». Nik esan diot: «Zein Eizmendi?». Eta erantzun dit «Fermin Eizmendi; han dauka baserria, Loiolan; mandazain ibiltzen da». Hara, nola jakin dudan.

Eskuak zabaldu eta irribarre egin zuen.

- Mandoekin ez, astoekin lan egiten diat nik.

Uste dut ez zidala ulertu, edo ez zuen aditu nahi izan, bestela.

- Eta esan al dik multa jarri zidala, baimenik gabe bertsopaperak saltzen ibiltzeagatik?

- Ez da izango?

- Bai. Atzetik etorri eta besotik heldu nahi izan nindian, baina ez zuan konturatu brusaren mahuka azpian ez zegoela besorik.

Barre zabalagoak egin zituen.

- Duda egin nian, alkandora eskuetan utzi eta ospa egin, edo multa ordaintzera gelditu, muturrera barre egiteko plazeragatik.

Aho zabalik egin zuen barre Frantsesak, lotsa denak galduta, eta goiko ebakortzak, laurak, falta zituela konturatu nintzen.

Barre zulatuari begira gelditu nintzaion. Txukun eta osorik baitzituen gainerako hortz eta haginak, ahoaren goiko aldeko lau ebakortzak nola galdu zituen galdetu nion.

Kontrako eztarrian ito zitzaion barrea, falta zituen lau hortzak kolpez irentsi balitu bezala.

- Hori beste egun baterako utziko dugu, zuk aurpegiko orban horiena azaltzen didazunerako -esan zidan.

Haztatu egin nuen aurpegia, orban luzea, su-durraren ondoan, begitik gertu, oso gertu, eta zulotxoak, eritasunak utzitako arrastoak. Ahaztu ere egiten zitzaidan arrastoek hor jarraitzen zutenik.

Marranta garbitzeko eztul egin zuen, lurrera tu egin, eta moldiztegian egin nion eskaintza gogoan zeukala esan zidan, pentsatzen egona zela, eta berak idatzitako poema pare bat nik euskaraz jartzea gustatuko litzaiokeela.

- Gustatuko litzaidake poema pare bat euskaraz jarriko bazenizkit -esan zidan.

Pozten nintzela, eta lagunduko niola, baina arazo txiki bat izango genuela esan nion, alegia eta ez nekiela ez idazten, ez irakurtzen. Baina la-

gunduko niola, gustura gainera, ez zela erraza ere izango, baina lagunduko niola.

- Orduan... Aurrekoan idatzi nizkizun bertsoak...

Sinetsi ezinik zegoen; ziriarekin ari nintzaiola usteko zuen.

- Nire bertso-paperen artean zeudean haiek? Ez nitian irakurri. Ezin.

Patrikatik atera nituen, han bainezkan, ondo plegatuta, beste inoren eskuetatik urrun, seguru.

Kokotsa igurtzi zuen. Bertsoak nola idazten nituen galdetu zidan.

Xefek, maizter nengoen etxeko seme bigarrenak, paratzen zizkidala paperean azaldu nion. Nik esan, hark paperera itzuli. Ez nekiela nire izenik ere marrazten.

- Eta buruz kantatzen dituzu gero? Ez dituzu irakurtzen, beraz?

- Bai, eta ahaztuz gero, berriro asmatzen ditiat.

- Eta fio zara Xefe horrekin? Ez zara bertsoak aldatuko dizkizun beldur?

- Beldur ez, alajaina! -neuk egin nuen barre orduan, bitxia egiten zitzaidan haren asaldura-. Aldatuta ere, hoberako egingo dik behintzat eta!

Patrikatik atera nuen papera ipini nion eskuan. Hartu zituen bere bertsoak, neure zatar paperean agertu zirenak, baina ez zidan sines-ten, ezin zuen ulertu. Ezinezkoa zela sorta horiek denak buruz ikastea, esaten zidan. Bat edo bi, tira, akaso, baina hiru, lau bertso sorta. Eginda-ko guztiak nola gogora nitzakeen galdetu zidan.

- Gutxi gorabehera -erantzun nion, eta ho-rrrek gehiago larritu zuen.

Harentzat behin idatzi eta hilda geratzen zen bertsoa, ezin zen gehiago ukitu, ez aldatu; mendi tontorra, harkaitz mugiezina, marmolezko eskultura zen harentzat bertsoa, eskuekin oratu eta begiratuarekin gozatu behar zena.

Azaldu nion guretzat zer bizia zela bertsoa, kantaldi bakoitzean berpizten zen abere basatia, hezi gabeko zaldia, idi adarkaria; ukitu, aldatu, hobetu eta gogoratu ezean berrasmatu zitekeen zer bat zela bertsoa guretzat, ahoarekin oratu eta entzutearekin gozatu behar zena.

Bekainak begien kontratik altxa gabe, isilik geratu zen pixka batez.

- Irakatsi behar didazu zuen bertsokera horri buruz gehiago.

- Nahi duanean, baina aurrena hik irakatsi behar didak zer esan nahi zuten hire bertso haiek -erantzun nion, eskuetan zuen papera seinalatuz.

Atzetik jarrai niezaion, keinu egin zidan tipografoaren eskuak, papera astinduz, dardaraka.

Etxaurretik pittin bat aldendu ginelarik, harri zapal batean eseri zen bide ertzean. Haren ondoran jaitsi nuen belauna lurraren kontra, ipini nuen bizkarra hormaren kontra, atera nuen toxa eta bildu nuen zigarroa. Papera hedatu eta halaxe irakurri zizkidan aurreko larunbatean Usurbilgo plazan ulertu ezinik erabili nituen bertsoak. Azaldu zidan frantsesezko jatorrizko bertsoia zela lehenengoa, gaztelaniazko itzulpena bigarrena, eta hala irakurri zizkidan, bata bestearen segidan.

Bukatu zuenean berriro begiratu zidan, ordu-ra artean ez baitzen ausartu. Papera erditik tolestu zuen eta, itzultzen zidan bitartean, «*Dra-*

*peau rouge*, Bandera gorria, Justin Baillyrena»  
esan zidan.

- Errepikaren zatia da hori. Garai batean asko kantatu genuen.

Papera hartu eta plegatu egin nuen atzera. Gorri hura nongo bandera zen galdetu nion, ez nuela bandera gorriarik ezagutzen.

Hasperen egin zuen. Bidearen goiko aldera begiratu zuen, platanoak hasten diren aldera. Isilik geratu zen. Ematen zuen udaberriaren etorrera itxaroten zeuden bi ume zahar ginela han, bide bazterrean, harri zapalean eserita, bizkarra hormaren kontra.

- Okzitaniako bandera al duk?

- Hura ere gorria da, bai; baina gurutzea du erdian.

Burua itzuli zuen, goiko bideko platanoen artetik agertu behar zuen udaberria atzeratzen ari zela ikusiz.

- Baina kantakoa justiziaren bandera da, Sotero. Ulertzen duzu?

Ulertuko ez nuen ba.

- Udaberria ekartzeko borrokatzen hil diren senide guztien odola da trapu hori.

Udaberria atzeratzen ari zen, baina marrubiak bazetozen. Aurreko petrilean behintzat marrubiak zeuden, masustak baino txikiago, baina han zeuden.

- Ulertzen duzu, Sotero? Munduko langile guztien eskubideen bandera da trapu gorri hori.

Alkandora azpian lepora bilduta zeraman zapi gorria estutu zuen atzaparrekin, amorruez.

Zutitu egin nintzen, Frantsesak begiekin jarraitzen zidala. Marrubi ale batzuk hartu nituen, eskaini egin nizkion. Ez zizkidan hartu.

Atzaparrak askatu zituen alkandoraren azpian, lepo bueltan, lotuta zeraman zapi gorritik. Bidearen goiko aldera begiratu zuen, platanoetara.

- Deabru Frantsesa! -esan nion-. Ziri ederra sartu didak!

Burua jaso zuen nigana. Sudurra baino gorriago, lepoko zapia baino gorriago, bere bandera hura baino gorriago zeuzkan begiak.

- Uste nian hireak zirela bertsoak, hireak!

Aurpegia zurbil eta zorrotz, belarriak zabal eta erori zituen gazte bizargabe batekin sartu zen Frantsesa Ramiroren tabernan. Mostradoreraino etorri ziren, nire ondoraino. Frantsesak «Alberto» esan zuen. Albertok lebita erantzi zuen eta bere esku leun, luze, hezurtsua eskaini zidan.

Laster konturatu zen ezin niola eskuineko eskua estutu, nik ezkerra bihurritzen ez banuen behintzat. Barkamena eskatu eta ezkerra eskaini zidan. Urduri zegoen. Lasai egoteko esan nion, horregatik behintzat lasai egoteko, ohituta nengoela.

Mezetatik irtenda, igande eguerdia, badiara bidean zihoan bikote zenbait, guardasola txikiak besoetatik zintzilik; emazte txikien besoetatik zintzilik, Gaztelu mendira bidean zihoazen beste batzuk. Tabernako ate aurretik igarotzen ikusten nituen, Albertori esku ezkerra estutu nion egunean. Frantsesa eta bion arteko itzulpen lanetarako behar genuen bitartekariak, Estudianteak, indarrrik gabe eman zidan eskua.

Koldar itxura hartu nion lehen aldi hartan. Eskas, nagi eman zidan eskua. Zenbat horrelako esku leun ikusi nuen maniguan, lasterka hasi eta



garniziora tiroa baino azkarrago iristen, adiskidea saldu eta gero ofizialei koipe ematen. Baina Frantsesak ez zuen Xefe ezagutzen, eta nik ez nuen Alberto ezagutzen. Eta Frantsesa ez zen Xeferekin fio, baina nik fidatu egin behar nuen Albertorekin.

Zakurraren ipurtzulora eraman nituen -tabernako argi motelak ez zirelako eskailerape hartara iristen esaten geniola horrela, esplikatzen nien-, eseri ginen zakurraren ipurtzuloan, Frantsesa, Estudiantea eta neu: poeta erbesteratua, itzul-tzaile bizargabea eta trobadore maingua. «Zerrenda ederra» pentsatuko zuten Ramiroren apopiloek.

Baso erdi batzuk eraman nituen mahaira. Patrikatik zapia atera, korapiloak askatu eta goizean propio bildutako marrubiak ere utzi nituen, esku zabal, mahaiaren gainean.

Doministiku egin zuen Estudianteak, eser-tzen ari nintzenean.

- Jesus! -esan nuen nik, Albertori begiratzen niola.

- Salute, compagno! -esan zuen Frantsesak, zeharka niri so eginez.

- Salute -errepikatu zuen, marrubi bat hartuz eta, zeharka, niri begirik kendu gabe.

Ostegun goiza Bretxako plazaren aurrean. Hazitarako patatekin zamatu ditut Maria Kristinaren bizkar gaineko astarkak, bermatu dut aztal uhala, korapilatu ditut espartzuzko sokak, eutsi diet uhalei eta abiatu gara Txubillorako bidean. Laster nekatu zait adiskidea, ordea. Arrantzaka hasi da plazaren erdian. Txitxarro saltzen ari diren emakumeen oihuak isildu egin dira, dendariak irten dira atarietara, merkatura heldu diren baserritarrak gelditu egin dira, umeeek jostatzeari utzi diote, Maria Kristinaren arrantzek erakarri-ta.

- Asto deabrua! Beste besoa etxean utzi dudalako, enteratuko hintzateke bestela! -egin diot oihu.

Tira egin diet uhalei, lepa zpiko txarrantxari eragin diot. Min egin dio horrek, arrantza biziagoak egiten hasi da, egin die hozka uhalei. Askatu dut ziria gerritik eta eman dizkiot muturrean zarta batzuk. Utzi ditut uhalak. Ondo. Tira dut in-

dartsuago, jo dut ipurtaldean. Gaizki. Bultza dut saihetsetik. Alferrik. Urrats bat emanarazi diodanerako, ezker besoa nekatu zait eta atzera egiteko baliatzen du nazkanteak.

- Horrela eskertzen al dizkidan, higatik hartutako nekeak? Tira, arre! Etxean alpapa goxoa emango dinat, arre!

Arrazoiei kasurik ez die egiten, indarrari gutxiago. Nekarazi dut, jo dut ziriarekin, zeharka ibilarazi diot. Bildu ditut bi besoen indarrak bakar batean, eta tira diet uhalei gorputz osoarekin.

Horretan ari naizela, arrain saltzaile, dendari, ume eta baserritar guztiak barrez jarriak dauzkadanean, zaplada bat eman didate, atzetik etorrita, bizkarrean.

- Jainkoak egunon!

Sustoarekin lasaitu egin zaizkit uhalak eskuan. Hasi da trebeska Maria Kristina, egin du atzera zambuluka, trabatu da lurreko harri kozkor solteekin, egin du estropezu atzeko hankekin, erori da kasik, baina eutsi dio orekari, zealdoka. Irabiaka dabilta aztal uhalak eta astarkak, lasaitu zaizkio espartzuzko sokak, erori da zaku pata-

tetako bat lurrera, askatu da kolpean, eta hor doaz hazitarako patatak, Bretxako plazan barrena, izkina guztietara, terren-ten-ten, pirritan.

Nolako barreak Bretxako bazterretako denda atarietatik, nolako barreak arrain saltzaile, ume eta baserritarrek. Ez da, badaezpada ere, inor laguntzera etorriko. Eta algararik handienak, neure bizkarretik.

Hara. Itzuli naiz bizkarra zaplatu didan bilau doilorra txikitzeko pronto, ziria mehatxatuz.

- Lasai, Sotero, lasai!

Deabru Frantsesa. Garbituko nuke.

Baina konturatu da kalteaz eta makurtu egin da patata aleak biltzen hasteko. Lagundu egin dit patatak biltzen, zakuak ondo korapilatzen, astarkak zamatzen. Lotu ditut lau zakuak, estu-estu, espartzuzko sokarekin, begiratu diot Frantsesari, eta esan diot:

-Hik ba al dakik zer esan didaan lehen?

Ulertu ezinik begiratu dit, bekainak kopeta galant horretan gora jasota.

Esplikatu diot «egunon» hitzak zer esan nahi duen euskaraz, eta «Jainkoa» hitzak zer esan nahi duen euskaraz. Hor hasi da jartzen gorri-

gorri, haserre, baporezko trena baino sutuago, pindarturik.

- Mekaben euskaldunak! Fraile eta moja koadrila madarikatua!

Hasi zait maldizioka, besoak astintzen, lepoko zainak lehertu beharrean. Eskutik ziria kentzen saiatu da.

- Ni hemen, euskaraz ikasi beharrez, «Jainkoak egunon!» gora eta «Jainkoak egunon!» behe-ra, eta zuek denak, bitartean, neure kolkotik barez! Horrela eskertuko didazue!

Ziria ez didala eskutik kenduko ikusita, eutsi egin nau besotik, astindu egin nau.

- Zergatik ez didazu lehenago esan, Sotero? Surtan ditu begiak. Jo egin behar didala iruditu zait, baina askatu egin nau atzenean.

- Adiskideari ez zaio horrelakorik egiten! Arrazoi du. Adiskideari ez litzaioke horrelakorik egin behar. Baina garbituko nuen, lehentxeago, adiskide hura. Eta Bretxako plazako lurreko paskinak -*Doazela gerrara aberaskumeak!*- axolarik gabe zapalduz joan gara Maria Kristina eta biok, Txubillorako bidean, haserre eta lotsaturik, espektakuluarengatik, baina barrenak hustuta.

Maria Kristinari begiratu diot.

- Hik hartu egingo huen, baina nik kendu egin dinat karga gainetik.

- **Jesus!** -esan nuen nik, Albertori begiratzen niola.

- Salute, compagno! -esan zuen Frantsesak, zeharka niri so eginez.

- Salute -errepikatu zuen, marrubi bat hartu eta, zeharka, niri begirik kendu gabe.

Albertok zapi zuri brodatuarekin zintzatu zituen sudurrak.

- Zuk Jainkoagan sinesten duzu, Sotero? -galdetu zidan Frantsesak ustekabean.

Sudurrak lehortzen ari zen bizargabeari irria sumatzen zitzaion zapi zuriaren azpian.

Izan ere, Frantsesak ez zuen Xefe ezagutzen, eta nik ez nuen Alberto ezagutzen. Baina Frantsesa ez zen Xeferekin fio, eta nik fidatu egin behar nuen Albertorekin.

- Ez mezetatik irtenda paseatzera doazen horien moduan, behintzat -erantzun nion, taberna-

ko ate leihodunetik igarotzen ari ziren bikoteak buruarekin seinalatuz.

- Zuk badakizu zer esan diozun Albertori, «Jesus!» esan diozunean? -itaun zidan, serio, ha-serre kasik, Frantsesak.

Marrubi bat hartu nuen, zapia garbituko zuten bestela birigarro haiek, ni konturatzerako. Ez ziren izugarriak izango, baina lehen marrubiak ziren.

Ohitura zela erantzun nion, inork doministiku eginez gero esaten zitzaiola «Jesus!», ez nekiela zergatik, baina hobe beharrez esango zela, lagundu beharrez. Erantzuna katigatzen nindoan bezala konturatu nintzen zer esaten ari nintzen, alegia, Jesusek lagun zezala doministiku egin zuen gaixoa, hori opa zitzaiola gaixoari, horregatik izango zela, noski, ez nekiela ziur, baina ohitura zela hemen, eta ohiturek ez dutela arrazoi jakinik izaten askotan.

- Euskaraz doministiku esaten zaio, Emilio. Dominus tecum, doministikua.

Zapia ondo tolestu eta galtzetan gorde zuen.

- Jauna zurekin alegia, latinez -argitu zuen Estudianteak.

Italiarrak baino argizari jaleagoak ginela esan zuen, ernegatuta, Frantsesak, ez zekiela, ezin zuela ulertu nola azpiratu zituen Ameriketako lurrak inorante eta sotanadun nazio harroputz honek.

- Nola sinets dezakezu ikusten ez duzun gauzetan? -galdetu zidan gero, lainezaturik.

Hortaz, pospolo bat hartu nuen, marrubien aldamenen utzia nuen kaxatik.

- Hara, ikusten duzue pospolo hau? -esan nien.

Piztu egin nuen. Suak hartu zuen buru fosforozkoa, erre egin zen ziriaren zati bat ere. Itzali egin nuen, putz eginda.

- Zuek ikusi duzue pospoloa itzalitakoan sortu den kea?

Baietz erantzun zidaten buruarekin.

- Eta non zagok ke hori orain? Non zegoan ke hori, pospoloa piztu aurretik?

Elkarri begiratu zioten. Ezer esan ez bazuten ere, ulertu zidatela iruditu zitzaidan.

- Jainkoa ere ke hori bezalako delako esplikatu zidaan behin apaiz batek, On Kaxildok, han,



Asteasun bizi ginenean. «Ikusi gabe ere, beti hor zagok ke hori, guri begira», esaten ziguan.

Txalo egin zuen Estudianteak, kolpea tirazion mahaiari Frantsesak. Argudioaren indarra onartu zidaten. Hamarreko bat nire alde.

- Ondo, Sotero, ondo. Baina kontu bat ahaztu zaizu. Alegia, pospoloa zerorrek, zerorrek bakarrik piztu duzula inoren laguntzarik gabe. Hor dago gakoa, Sotero, ez duela Jainkoak piztu!

- Eta itzali ere zeuk egin duzu, Sotero, zeuk bakarrik -erantsi zuen Estudianteak bazterretik, azkeneko marrubia ahoratuz.

- Harritu egingo zarete gero! Zer nahi duzue zuek? Jainkoa hemen gurekin esertzea, zakurra-  
ren ipurtzulo honetan, baso erdi batzuk hartu eta pospoloak piztera? -erantzun nien.

Barre egin zuen Frantsesak, baina ez zegoen amore emateko.

- Oso ondo, Sotero, nahi duzuna, baina kea zure asmakizuna da, ulertzen duzu? Zu gabe ez legoke kerik; zure barruan aurkitu behar duzu ikusten ez den ke hori.

- Ponteko igela baino kristauagoa zara, Sotero! -lotsagabetu zitzaidan Estudiantea.

Ez nuen gustuko eskerrik ere eman gabe marrubien zapia garbitu zuen aurpegi zorrotz eta zurbil hura, eskua ganorarik eta gogorik gabe eman zidan bizargabea.

Frantsesak berriro galdetu zidan ea ulertzen ote nuen.

- Zuk sortu duzu kea, Sotero. Zuk sortu, eta zuk itzali!

Orduan ez zutela lan makala hartu esan zion Estudianteak.

- Mereziko ote du? -galdetu zion Estudianteak.

- Baietz uste dut -erantzun zuen Frantsesak. Isildu egin ziren biak, Frantsesa eta Estudiantea. Begira neuzkan biak, Estudiantea eta Frantsesa.

- Eta? Non zaudek itzuli behar genituen poema horiek? -galdetu nuen, zapi hutsa mahai gainetik jasotzen nuen bitartean.

Poema horiek itzuli aurretik bazegoela beste lanik esan zuen Emiliok, Albertoren onespina bi-latuz. Hasieratik hasi beharko genuela erantzun zion bizargabeak.

- Ad augusta per angusta.

- Bai. Lehenengo leziotik hasi beharko dugu, Sotero.

Estudianteak paper batzuk atera zituen lebitaren barruko poltsikotik. Kapitalismoa zer zen, ba ote nekien galdetu zidan orduan Frantsesak.

- Hara, pertsonak eta letrak antzekoak gara askogatik.

Moldiztegiko armairu erraldoiaren aurrean makurtuta zegoen Frantsesa, kriseiluaren argi apalarekin, berunezko molde txikiak hartu eta antolatzailean zuzentzen. «Ikusten al duzu, hemen, nire astoa?», esan zidan.

Armairutik tiraderak irekitzen eta ixten hasi zenean, esan nion berunezko bala haiekin ez genuela birigarrorik ere zulatuko.

Bala haiek burua zulatzen zutela erantzun zidan, eta gero kriseilua pizteko eskatu zidan. Etzanda jarri zuen tiradera armairuaren gainean, betaurrekoak jantzi zituen. Umore onez zegoen goiz hartan, urrutitik usaintzen zitzaion umorea. Antolatzailea hartu zuen ezker eskuan, aurre-rantz makurtu zen, moldeko letrak hautatzen

hasi zen eskuinarekin, eta «Hara, pertsonak eta letrak antzekoak gara askogatik» esan zuen.

- Begira, badira letra larriak eta letra xeheak, pertsonak bezala; letra larriak ikusten ditugu portada, afixa, tituluetan, bakan, zehatz, argi eta, bitartean, letra xeheak hor daude, testuan pilatuta, bata bestearen gainera isuriak, elkarren artean bereizi ezinik, bata bestearen gainean etzanda, bata bestearen kontra estututa; baina, onena, hara: pertsonak bezala, letra bakarrak ere, huts-hutsean, ez du ezer esan nahi, ezin du ezer adierazi; ezin du ezer egin bakarrik, bakarrik ez da ezer.

Kriseilua piztu nuenean ate ondora bidali ninduen, baina ateraino iristen zen Frantsesaren arropen ardo usaina. Astoa izorratuko nion beldurrez bidali ninduen ate ondora. Azpiko aldetik atzaparrak sartu eta zerbait izorratuko nuen beldur izango zen.

- Gero, letrak elkartzeko konbinazio posible asko daude, eta konbinazio guztiak dira ezberdinak; badira letren arteko konbinazioak ezer adierazteko, ezer osatzeko, gai ez direnak, zentzurik gabeko harremanak egiten dituztenak; baina or-

dena jakin batean biltzen direnean zerbait esaten dute, zer edo zer adierazten dute, eta horri miraria irizten diot nik, sorkuntzaren miraria, ezerezetik sortzen direlako esanahiak, bizitza bezala, ezerezetik, bakarka ezer ez diren hitzen elkartzetik; baina elkartze guztiak ez dira zuzenak eta bidezkoak, elkartze guztiek ez dute emaitza segurua ematen, konbinazio posibleak anitzak dira, eta ez denak probetxuzkoak.

Ikusten nuen nola osatzen zituen ilarak, nola laztantzen zituen berunezko molde biluziak, tiraderaren kaxa txikiak, antolatzailearen ertzak. Jeltostuko zen atzaparrak sartu izan banizkio bere astotxoari.

- Gero badira letrak, arruntak, gehiagotan errepikatzen direnak, sarriago agertzen direnak; t letra, adibidez, asko erabiltzen da, gehien erabiltzen den kontsonanteetako bat izango da eta, horregatik, hemen tiraderan, ugari eta eskura behar dira t letrak; maiztu ere lehenago egiten dira, egia da.

Antolatzailean lerroak osatu ahala, zuzendu eta galeran ipintzen zituen, bizkor asko.

- Eta badira ia inoiz eskura iristen ez diren letrak, apenas erabiltzen direnak, zokoraturik daudenak bazter batean, oso bakan baino iritsiko ez zaien aukeraren zain.

Estudianteak eskuz idatzitako testua galeran konposatzen bukatu zuenean, moldeko letren multzoa listariarekin bueltan-bueltan lotu, tenteka jarri eta prentsara eraman zuen berun hura guztia. Gezurra iruditu zitzaidan papera bezalako hain gauza arina inprimatzeko, beruna bezalako hain gauza astuna behar izatea. Tinta zabaldu zuen, keinu egin zion Estudianteari. Garraiatzen aritu zen paper pilatik orri bat hartu eta prentsan ipini zuen bizargabeak, erdiratu, zapi bat gainetik eman eta arrabola pasa zion. Frantsesak probako orria hartu zuen, kriseiluaren argira aztertu zuen, betaurrekoak hurreratuz eta urrutiratuz.

- Moldeko letrek oinak dituzte, begiak, besaburuak, gorputza.

Lapitza hartu eta zuzenketak egin zituen probako orrian. Galerara itzuli zen, listaria askatu, pintza batzuk hartu eta moldeak jarri eta kendu

zituen. Ezagun zitzaion ofizioa mozkor deabruari.

- Eta gero gainera, familiatan multzokatzen dira: erromatarrak, klasikoak, gotikoak, italiarrak edo makurrak, modernoak, zurrinak, edertuak; pertsonak bezala, igual-igual, esan dizuet ba.

Zuzenketak bukatu eta lana ontzat eman zuenean, listariarekin lotu zuen berriro galera. Pentsara eraman zuen, etzanda ipini, eskuila pasa eta gero bentzinarekin garbitu zuen.

- Txukun-txukun gelditzeko.

Ate ondotik esan nion traste haiekin oheratzea besterik ez zitzaiola falta, eta hala ere ohea pittin bat berotuko zuela, gutxienez. Estudiantek kontu egin zion barreari, baina Frantsesak ez zigun kasurik egin. Bentzinarekin bukatu zuenean, berriro tindatu zuen plantxa eta keinu egin zion Estudianteari. Hasteko.

- Moldeko letra xeheek x altuera esaten dioguna daukate, letra guztiak, goitik eta azpitik, lerroan berdintzen dituen altuera bat, neurri doia ezartzen duena, letra xeheak goitik eta azpitik berdintzen dituena, baina letra gehienak ez dira x altuera horretara errenditzen; badira letrak x

altueratik irteten direnak, batez bestekoaz gora egiten dutenak, letrak, x altuera estandarretik harantzago jo nahi luketenak, adibidez t bera, edo b.

Lebita bazterrera botata, Estudianteak eragiten zion arrabolari, Frantsesak begiratzen zituen paskin sortu berriak, nik kalea barrandatzenuen atearen zirrikitutik. Bakoitzak bazuen bereztzako postua, ostegun goizean, Barojatarren moldiztegian. Barrandatzea zegokidan niri, elbarriari.

- Eta badira, noski, letrak batez bestekoaz azpitik daudenak, dena delako zama bat dutelako erori egiten direnak, x altuera horretatik beherantz jausten direnak, adibidez j, edo y, edo p.

Aspaldian bakardadean hausnartzen arituta-ko ideiak partekatzeko aukeragatik kontent zegoen, harrotua akaso. Auskalo lorik egin zuen gau osoan. Ardoaren indarrak eusten zuen zutik.

- Ez didazue esango letrek pertsonon tanke-  
ra izugarria ez dutenik!

Zer esan behar genion?

Minervarekin azkarrago egingo genuela, baina burrunba gehiago ere bai, esan zigun, baz-



ter batera zegoen makina tzar bat seinalatuz. Estudiantea poliki ari zen lehen aldia izateko, paperak ipini, arrabolari eragin, paperak jaso, berriro ipini, arrabolari eragin.

Ari ginen gure ezinean zerbait aurreratzen.

- Zu, Sotero, nik argi ikusten dut, zu s bat zara -esan zidan orduan-. Eta ez naiz izenarengatik ari. Esan nahi dut s bat zarela, s peto-petoa: zama handiegirik ez beheara egiteko, helburu izugarririk ez gora egiteko; eta gero, bihurria zara gero, Sotero!

Zigarroa piztu nuen, kaleko hotsei adi, barrukoiei gor, agindutako lanaren mirabe, zegokidan postuan aiduru.

- Eta zu I bat, Alberto, oso garbi ikusten dut: errurik gabe, tantaia bezain tente, galaia, gaztea, argia, neurri egokikoa, hain lirain eta aratza...

Paskin inprimatu berriak multzokatu eta berdindu zituen Frantsesak. Betaurrekoak kendu, mahai gainean utzi eta azazkalak garbitzeari ekin zion.

- Hala ere, I letrak badu ordain bat: zurrune-gia izatea.

Arrabolari eragiten zion Estudianteak. Nik kalea barrandutzen nuen zirrikitutik.

- Eta badakizu zer gertatzen zaien gauza zurrunei, Alberto? Apurtzeko arriskua dutela. Bestelakoak dira s letrak, s letrak egokitu egiten dira, bihurritu, iraun egiten dute, datorrena datorrela; I letrak ez dakite, I letrak erdibitu egiten dira arazoak etortzen direnean; zurrunegiak dira eta arbola zurrunei bezala gertatzen zaie, ezin diotela haize eraso bortitzei eutsi.

Serio begiratu zion Estudianteak, baina arrabolari eragiten jarraitu zuen, paperak ipini eta kentzen eta arrabolari eragiten jarraitu zuen, hala ere.

Multzokatutako pilatik paskin bat hartu zuen Frantsesak, ate ondora etorri zen, niri erakusteko. Zigarroaren kearen atzean babestu nintzen haren ardo kiratsetik. Ekarri zidan paperari begiratu nion, eskuan hartu, irakurriko banu bezala egin, eta baietz adierazi nion buruarekin, ondo zegoela, ados nengoela.

- Irakurri al duzu? -galdetu zidan, zirrikatzeko gogoz.

- Kontu bat ahaztu zaizu -eten zuen Estudianteak-. Gurea entzun dugu, eta garrantzitsuena ahaztu zaizu, Emilio: zein letra zara zu? Esango diguzu zein letra zaren?

- Itzali nahi duzu zigarro zikin hori? -agindu zidan Frantsesak, paskina eskutik kenduz-. Su emango diozu tailerrari.

Erretzen jarraitu nuen nik, Estudiantea gelditu egin zen. Isilik ni, atearen zirrikitu ondotik; geldirik Estudiantea, prentsaren ondoan.

- Bat hautatu behar banu, g letra naizela esango nuke -aitortu zuen Frantsesak azkenean.

Eta gero, beste azalpenik eman gabe, ordura arteko erretolikak kolpetik mututu zitzaizkion, pulpitutik erori balitz bezala. Mugitzeko aginduzion Estudianteari, arrabola eragiten jarraitzeko, laster etorriko zela enkargatua eta, Josefinak zertan aritu ginen susmatuko balu, larrutik ordaindu beharko zuela.

Eltzagorrek zer ziren ba al zekien galdetuzion orduan Frantsesari, zigarro muturra atearen zirrikitutik kanpora jaurtiz. Ez zekien noski, eta ez nion beste azalpenik ere eman, g letrak eltza-

gorrak ekartzen zizkidaia niri gogora, besterik ez.

Ontzi harro huts burrunbatsua: eltzagorra.

- **Salute, compagno!** -esan zuen Frantsesak, eta gero berriro errepikatu zuen-. Salute -ondo konturatzeko.

Zakurraren ipurtzuloko mahai gainean utzi nuen zapitik marrubi bat hartu eta zeharka begiratu zidan.

- Eskerrik asko, Emilio -esan zion Albertok, sudurrak zapi zuri brodatuarekin garbitzen zituena bitartean.

- Zuk Jainkoagan sinesten duzu, Sotero? -galdetu zidan Frantsesak ustekabean, eta arnasarik hartzeko astirik utzi gabe, ponteko igela baino kristauagoa nintzela esan zidan muturrera.

Saiatu nintzen zerbait erantzuten, baina bizargabea irriz ari zela sumatzen nuen. Frantsesak berriro eraso ninduen, ea ba ote nekien zer esan nion Albertori, ea konturatzen ote nintzen. Saiatu nintzen zerbait erantzuten, baina Estudianteak esan zuen euskaraz doministiku esaten

zaiola ur-zintzari, eta horrek latinez «Jainkoa zu-rekin» esan nahi duela. Italiarrak baino argizari jaleagoak ginela esan zuen ernegaturik Frantse-sak, eta ni, ni bereziki, ni hain juxtu, ponteko igela baino kristauagoa.

- Baina, nola izan zintezke kristaua, Sotero? -galdetu zidan berriro, lainezaturik, erantzuna entzuteko asmorik gabe, hisiaturik.

Beraz, pospolo bat hartu eta On Kaxildori, han, Asteasun bizi ginenean, ni leziatzen saia-tzen zen apaiz buruhandiari, ikasi niona erakutsi nien. Saiatu nintzen.

Hankazpira bota zituzten nire argudioak eta pospoloak, zapaldu egin zituzten, desegin. Era-kutsi nien pospoloaren kea bezala, zakurraren ipurtzuloko eguratsean desegin ziren nire argu-dioak.

Bertso kantatzen ariko bagina zer erantzun-go niokeen pentsatzen hasi nintzen, baina nik punturik lotu aurretik bota zidan berak bertsoa. Italian, hemen bezain katolikoak izan arren, hemen baino katolikoagoak akaso, inork domi-nistiku egiten zuenean «Salute!» esaten omen zitzaion.

- Osasuna, Sotero -itzuli zidaten-, osasuna.
- Ederra zaude Jainkoak ur-zintza sendatu

behar badizu!

Damutu zitzaidan piztia haientzat marrubi biltzen nekatua.

Irribarrez egon ziren puska batean niri begira, eta gero merezi ote zuen edo ez eztabaidatzen hasi ziren haien artean. Baietz erabaki zuten itxuraz, baina lehenengo leziotik hasi beharko genuela erabaki zuten. Frantsesak ardo tragoa egin zuen, ezpainak garbitu, eta kapitalismoa zer zen ba al nekien galdetu zidan.

Asteazken gau hartan hartu nituen zakurra-  
ren eskolako nire lehen lezioak.

EZ nuen lo faltaren beldurrik, banekien zer ziren begirik batere bildu gabeko gauak. Atzetik insurrekto koadrila bat ahuntzak haitzetan baino arinago heldu denean, loa da atzenekoa. Atzetik eremua zuk baino hobeto ezagutzen duen insurrekto koadrila bat heldu denean, txorakeria gutxi. Lorik eta urik gabe ibili behar bada, ibiltzen ikasten du batek. Larrua da lehenengoa; la-

rrurik gabe, zahagirik ez; larrurik gabe, akabo gainontzekoa.

Okerrena ez zen bezperako lo falta. Okerrena ostegun goizean Bretxara hazitarako zaku pata-tak jasotzera joan beharra zen. Larrua salbu, zahagia osorik, baina ardorik ez biharamunean, lanera itzuli behar biharamunean.

Orduan ere bazuen aitzakia eltzagorrak. Norbaitek jaso beharko zuela, noski, tailerreko zikin-keria hura guztia, galantak entzun beharko zituela bestela, lanik gabe utziko zutela akaso. Hortaz, hark tailerreko ardo kiratsa egurasten zuen bitartean, Estudiantea eta biok joan ginen kaleak zikintzera.

Paskinak eskura banatzeko eskatu zigun Frantsesak, egun argiz, eta eskura. Ez zen bera joango, baina bai azkar asko esan zer egin behar zen. Tailerra jaso behar zuela enkargatua iritsi aurretik, guk joan beharko genuela, baina berak egin behar balu, egun argiz eta eskura banatuko lituzkeela. Ezin genuela koldar agertu, ezin genuela beldurrik erakutsi.

Polita zegoen ba kalea, egun argiz aurpegi ematen ibiltzeko. Ez ziren hamar egun kolean

manifestazioa egin zutenetik estadounidostarrei gerra deklaratzeko. Belarrian neukan oraindik jendetzaren deiadarra:

«Baziaztik gureak,  
rataplan!  
soldadu fiñ, maiteak,  
rataplan!  
manbisak zapaltzera,  
beltz zatarrak astintzera.»

Cadizeko Martxa madarikatuaren doinuak buruan irabiaka, burrunbaka, erauzi ezinik:

«Mulatu etorkiñ ori,  
rataplan!  
sudur zanpatu, lori,  
rataplan!  
alper guziak naspill,  
bai, mutill,  
mando-pill,  
bota zak Kuba aldetik,  
esanaz biyotzetik:  
¡Viva España!»



Begietan neuzkan oraindik aurreko egunetako gertakizunak: gazte inuzente haiek guztiak Alamedan Espainiaren trapu odolduak astintzen, Union Liricaren banda, atzetik jende aldra hartuta, heriotzaren aldeko erakustaldia egiten, eguzki lokaztuaren banderak Ategorrietako Frontoian, Brau, Elizegi, Mardura eta Takoloren arteko partidan, Tolosako prozesioa Jainkoari hiltzaille hobeak izateko errezoka, eta diru biltzeetarako paskinak -«español leiala zeran partetik, gure naziyua atera dediñ garailari», «ostu nai digue, indarrez geiago dirala uste dutelako, gure islarik aberatsena, Españaren perlik ederrena», «ixilduko ditugu oien arrokeriyak»-.

Diru biltzeak, bezperan Alamedan trapu zikin lokaztuak astintzen ibilitako gazteek hanka edo begia galtzeko, soroak biltzeko eta baratzeak jorratzeko besorik gabe gelditzeko, gurasoak bilobarik gabe uzteko, hara zertarako.

Satorraren puzkerra baino isilago pasako ziren bestela, baina pilotariak, apaizak, antzerki-lariak, idazleak, kazetariak, arrantzaleak, soldaduak, tabernariak, udatiarrak, haurtzainak,

denak ari ziren harrokeria hura handitzen eta puzten, handitzen eta puzten.

Ramiro bera hasia zegoen Gorritxori eta bestei burua berotzen.

- Hara hemen gure heroia! -esan zien, tabernara sartu nintzen batean-. Hau bezalako bost edukiko banitu, konkistatuko nitian nik Kuba eta Estados Unidos!

Ramiroren moduko bostekin, propaganda egin beharrik ere ez zuen izango armadak. Ez nuela jarraitzeko asmorik konturatu zenean, Arrietaren harrokeriak puzten hasi zen.

Hamabi urte egin berritan, Gabonetako eskean ateratzeko baimena eman zidan amak. Gogoan dut anaia eri zegoela, ohean. Odol mehekoa zen, amaren gisan. Gogoan dut, baita ere, hotz egiten zuela eta aitaren brusa zahar adabakiz josi bat jantzarazi zidala amak, «Errukia emateko». Eta ez zidala jatekorik emango esan zidala, gosetu itxura emateko. Aitzakia ere izango zen, hautsak hartzen egongo ziren gure etxeko lapikoak, Gabonak izanagatik.

Dozena bat mutil kozkor abiatu ginen barriotik herrira, panderoak eta danborrak astinduz. Diru askorik ez genuen bilduko, negar egiteko moduko itxura eman arren. Atarietara irteten ziztaizkigun neskame eta etxeoandreek galletaren bat, esne txaroren bat, txakur txikiren bat ematen ziguten. San Telmo kaleko atari batean eman ziguten odolki mutur bana.

Ikatz kalean surtarako ikatz kozkor batzuk patrikan sartu eta bagindoazen Plaza Berrira, zorte gehiago izango genuen itxaropenez. Ordu-rako kontrako bidean heldu zen gurea baino koadrila handixeago bat. Ibaetako gazte jendea zen. Ezagutzen genituen.

- Ba al da karitaterik? -oihu egin zigun haietako batek, parean egokituta.

Gure poltsa astindu zuen diruzainak. Ez zuen txanpon hots handirik aterako.

Eskean atera ginen lehen aldia ote zen galde-tu zigun mutiko papar lodiko batek.

- Lastima ematea ez duk nahikoa -esan zuen beste batek, gure arropen erreparatuta-. Kantatzen ere jakin beharra zagok.

Kontra egin zieten gutako batzuk, ederki asko kantatzen genuela esan zien batek, ez genuela haiena baino itxura kaxkarragorik beste batek, eta bertsoan ere egiten genuela esan zuen Anttoniok, nigatik. Orduan erronka jo zigun kankailu batek. Bertso txar bat, ez hankarik ez bururik gabea, bota zigun, lastima ez, beldurra ematen genuela esateko. Ozen bai, kale osoak entzuteko moduan kantatzen zuen, ondo ez, baina.

Aparte samarrean nengoen, Plaza Berrian zorte hobea izango genuen itxaropenez, ez nuen liskarretan hasteko gogorik, baina lagunek berotu ninduten batetik, gehiago nintzela ikusi nuen bestetik: ozen kantatzea ez dela ondo kantatzea erantzun nion kankailu harroari.

Ez zuen erantzunik espero. Haserretu egin zitzaidan. Hark bazekiela kantuan, guk baino hobeto bai behintzat; gure poltsen hotsa entzun besterik ez zegoela konturatzeko.

Berotu nintzen eta, ahots ederrak baino, Ibaetako mutilek esku luzeak zituztela erantzun nion, asko pentsatu gabe. Inguruan bildu zitzaizkigun bataren eta bestearen adiskideak. Zen be-

zain kankailu, kikildu eta isildu egingo zela ematen zuen. Baina oilarrak baino tenteago jarri, bularra bete, eta gosea pasa eta miserable ibili baino, lapurretan egitea nahiago zuela bota zidan muturrera.

Ez dakit Arrieta kankailu hark esan zizkidan guztiak sinesten zituen, baina arrats hartan ederki etorri zitzaizkion, behintzat, ni isilarazteko. Zer esan ez nekiela gelditu nintzen. Arrazoirik ez zuela falta pentsatzen, baina arrazoia emateko adorerik gabe. Eta arrazoia kentzeko korajerik gabe.

Isildu egin behar.

Ramiro konturatu zen ez nuela jarraitzeko asmorik, eta Arrietaren balentriak puzten hasi zen. Isil-isilik edan nuen tabernaren kontura zerbitzatu zidan baso erdia. Isil-isilik aditu nuen Kukañasi zer esan zion Gorritxok: hurrengo goizean bertan joango zela izen ematera. Isil-isilik irtengo nintzen, baina, azkenean, Cadizeko Martxa mardikatu hura jotzeko eskatu zidatenean, hala esan nion Gorritxori:

- Hi, Gorritxo!

Zutitzen ari nintzen aldera bihurritu zuen lepoa.

- Ikusten baduk, emazkiok goraintziak nire eskuineko besoari.

Ez dakit zer esango zituzten bizkarra eman nienean. Akaso, nire balentriak epeldu egingo zituen Ramirok. Auskalo.

Gerrarako dirua biltzen ari zirenak, haiek zebiltzan kalean beldurrik gabe, egun argiz, eskuak diru eske luzatzen. Diputazioak jarri zuela, udal gehienek jarri zutela, herriko nagusi jaun eta jabeek, zerbait izan nahi zutenek eta zerbait izateko ustea zeukatenez, denek jarri zutela dirua, eta niri eskaka. Hara! Jo eta emango nion ziriarekin neskatxari, hain leuna eta argia izan ez balu azala. Ez nuen lehen aldia izango, ez horregatik, baina garaiz bezatu nituen nire hirak.

Giro polita zegoen ba, paskin zahar haiek egun argiz eta eskura banatzen hasteko. Larrua da lehenengoa; larrurik gabe, zahagirik ez; zahagirik gabe, ardoak ihes.

Paskinak inprimatu eta berehala zabaldu behar genituela erabaki genuen Estudianteak

eta biok. Frantsesak esan bai, baina aitzakia besterik ez zuen, eta egokia zen artean ordu hura, esnatu gabea egongo zen oraindik Donostia, animalia zauritu harroputza.

Plaza Berrian bota genituen paskinak *-Desertatu soldaduok!-*, Gobernu Zibilaren aurrean *-Gerra hau ez da zurea!-*, Santa Mariako eta San Bizenteko eliz atarietan *-Esnatu langileok!-*, Bretxako plazan *-Doazela Kubara aberaskumeak!-* eta Kasino Handiaren terrazan *-Ez eman dirurik gerrari!-*.

Azkar burutu genituen lanak. Eta aguazilak kalera irten aurretik erretiratu ginen etxera.

Larrua lehendabizi, gero Bretxara hazitarako zaku patatak jasotzera joan behar bazen ere. Hobe izango zela eskura eta egun argiz banatzea? Hurrengoan banatuko zituen nahi adina, udaletxe barrura sartuta, nahi bazuen, Kasino barruraino sartuta, nahi bazuen. Arduratuko nintzen ni Frantsesari gogorarazteaz.

Eta gero kafesne zopekin gosaldu, Maria Kristina hartu eta Bretxara joan, hazitarako zaku patatak zamatu, eta, behin behar eta, astoa egoskortu.

Han ari nintzen, ezinean, Maria Kristinari okurrizten zitzaizkidan guztiak esaten, arrain saltzailak, baserritarrak, umeak eta dendariak barrez jarrita, tira hemendik eta astindu handik, Frantsesak sustoa eman zidanean. Atzetik etorri eta bizkarrean zaplada eman zidan, «Jainkoak egunon!» esaka. Indarka ari nintzen astoarekin, eta ia erori zen lurrera, sustoarekin uhalak lasaitu zitzaizkidan. Patatak bai, han joan ziren, Bretxako plazan barrena, terren-ten-ten, izkina guztietara, pirritan.

Bilau hark, ez al zuen lanik egin behar? Ez al zuen tailerra jaso behar?

Amorrazioz azaldu nion hitzetik hortzera zerabilen «Jainkoak egunon!» hark zer esan nahi zuen. Amorrazioz azaldu nion, ordura arte hortz artean isildua neukana. Mendeku hartzeko gogoz azaldu nion, odol txarra egiteko amorrazioarekin.

Baina arrazoi zuen. Horrelakorik ez litzaioke inoiz egin behar adiskideari.

Eta hala ere paskinak *-Doazela Kubara aberaskumeak!*- axolarik gabe zapaltzen urrundu ginen Maria Kristina eta biok Txubillorako bi-



dean. Biotako inork ez zuen lurrean zabalduetako hitz haiek denak *-Desertatu soldaduok!*- irakurtzera gelditzeko gogorik, ostegun goizean, Bretxako plazan.

- Eraman al duk astoa ferratzera? -galdetu zidan Ferminek.

- Ez al diok nabaritu pausajea?

- Zer uste duk, astoaren pausajeari begira egoteko nagoela ni?

- Zertan aritzen haiz ba goiz osoan, ni hor barrera paseatzera bidalita?

- Beno! Kobratu al dik?

- Zenbat ordaindu behar nioan?

- Hiretik ordainduko huen ba, ez?

- Bai, baina... -astarkak lurrean utzi nituen, eskua gerrira eramanean, haizea hartu; ez zen lan erraza esku bakarrarekin egiteko-. Aizak, hik ba al dakik zer den plusbalioa?

Jezten ari zen behiaren ipurdi atzetik agertu zuen burua Fermin Eizmendi jaunak, eta Eizmendi jaunaren burua Estudianteak irakatsi zizkidanak bezalako galdera ikur bat zen.

- Esan zioat Esoraini, pasako haizela, eta nire lanaren plusbalioarekin ordainduko dioala.

Asteazkenean hasi ginen biltzen, Ramirorean, zakurraren ipurtzuloan, asteazken iluntzetan.

Asteazkena bazen, eta iluntzeko zortziak jotzeko, Ramirok pitxer bat beteko zuen ardoz, sukaldera joango zen, andreari aginduko zion eltzekoa ateratzeko, pitxerra utziko zuen mahaian gainean, ogia xerratuko zuen, trapu herdoildua pasako zien pipiak erasandako aulkiei eta arratsaldean esango zion atetik sartzen ari zen Frantsesari. Frantsesak, ez gogoz baina, edukazioz itzuliko zion agurra, eta gure zain eseriko zen, pipiak pazientzia handiz mahaian egindako zulotxoak kontatzen, lepora lotuta eramaten zuen zapi gorria lasaitzen.

Ni sartuko nintzen gero, keinu egingo nien buruarekin Potxolo, Gorritxo eta besteei, Ramirori gabon esan, Frantsesa bizkarrean zaplatu, aulkiari eskua pasa eta berandu nentorrela esango zidan adiskideak. Bitartean nik sudur luze hau

sartuko nuen eltzean, afaltzeko zer zegoen galdetuz. Lepoan bilduta ibili ohi zuen zapi gorriarekin kopeta lehortuko zuen Frantsesak, kopeta izugarri hura, nik zigarroa itzaliko nuen hanka puntarekin eta afaltzen hasiko ginen.

Estudiantea iritsiko zen azkena, ginbaila kenduko zuen atea zabaldu aurretik, lebita erantziko zuen, inor agurtu gabe, eta inork agurtu gabe, baina denak begira zituela korrituko zuen taberna alderik alde, behaztopa egingo zuen artesi-tzen hasitako lauzetako batekin, baldarkeria disimulatzen saiatuko zen eta lotsatuta eseriko zen gure aldamenean. Batzuetan eltzekoa partituko zuen gurekin, beste batzuetan begira geratuko zitzaigun, Frantsesak eta biok eltzekoa garbitzen eta muturrak zikintzen genituen bitartean, kafeak eskatzeko ordua bitartean.

Horrelakoak izaten ziren asteazkenak zakurraren ipurtzuloan, Ramirorenean, leziatu ninduten eskolan. Hiru lagun munduari begira, asteazkenaren talaiatik, zakurraren eskolan, Donostia-ko ipurtzulo hartan, horrelakoak izaten ziren asteazken iluntzeak.

Dena aztertzen zen zakurraren ipurtzuloan, denetik eztabaidatzen, dena jartzen zen hankaz gora, dena iraultzen, denetik galdetzen zen zakurraren eskolan, inoiz izan dudan eskola onean, inoiz izan dudan bakarrean.

Eltzea garbitzen genuen bitartean, bakoitzak bere kontuak mastekatuko zituen, Frantsesak inprimatzen ari zen azken lanaz hitz egingo zigun, nik Ferminekin izan nuen azken liskarraz, Estudianteak isilik begiratuko zigun. Egia esan, Frantsesari arrazoia edo niri lezioak emateko bakarrik hitz egiten zuen Estudianteak asteazkenean.

Eltzea garbituta, kafea eta pattarrak eskatuko genituen. Bakoitzak bazituen bere ohiturak kafearekin. Estudianteak ez zuen pattarrik hartzen, baina bai gustura azukrea; Frantsesak ur xorta bat botatzen zion kafeari, gogorregi sumatuta; nik afaltzen sobratutako ardotik ematen nion Ramiroren eltzeko kafeari, berez falta zuen indarra.

Pattarraren beroan eta kriseiluaren argitan bozak apaltzen zitzaizkigun orduan, eta edalontzien itzalak luzatu eta dantzan hasten ziren. Or-

duan albiste eta izen berriak sortzen ziren zaku-  
rraren ipurtzuloan, «Mare magnum» bat.

Kriseiluaren argi dantzariaren paretik pasako  
ziren Engels eta Dreyfus, Lumiere anaiak eta Ga-  
llartako meatzariak, Zola eta Bizkarrondo, Iba-  
rratarrak eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probin-  
tziala, Gustave Eiffel burdinazko dorrera igota,  
Iparragirre eta Victor Hugo, Leon XIII. aita santua  
*Rerum Novarum* entziklika besapean hartuta,  
Weyler eta Bakunin, Tabakalerako emakumeen  
lan ezak eta Eibarko armaginen grebak. Kontu  
haiek denak igarotzen ziren Ramirorenetik as-  
teazkenetan, eta baita Maria Cristina eta bere  
gorte osoa ere, Loreton altxa zioten jauregitik  
jaitsita, Montjuiceko torturatuekin eta Ravacho-  
lekin, Orbegozo eta Proudhonekin, McKinley  
izena zuen lehendakari berri batekin eta Donos-  
tiako neskameen haur abandonatu eta aborta-  
tuekin, Kropotkin eta Darwinekin, Atenasko joko  
olinpikoetan egon ziren atleta guztiekin eta Do-  
nostiako traineruetako arraunlari gehienekin,  
horiek denak eta gehiago igaroko ziren, baina  
baita Rockefellerren arrosak eta Posadaren es-  
keleto ibiltariak eta Darwinen tximino tentetuak

ere, eta haiekin Bizkaiaren independentzia eskatzen ari zen gazte bilbotar bat eta La Mano Negroko andaluziarrak ere bai, eta baita Jose Rizal eta Maceo anaiak ere, Polavieja, Canovas, Sagasta eta enparauen oldarrean. Haiek denak igaroko ziren, haiek denak eta gehiago sortzen ziren kriseiluaren argiak luzatutako itzal dantzarietan, zakurraren eskolako lezioetan, asteazken gauetan.

Kriseiluaren argitan eta pattarraren beroan jende berria ezagutu nuen, Ramirorenetik mugitu gabe; Frantsesak eta Estudianteak aurkeztu zizkidaten izen arrotzak, geografia ezezagunak. Hitz berriak ere ikasi nituen zakurraren eskolan, asteazken gauetan baino kabitzen ez ziren hitz berriak: askatasuna, materialismo historikoa, alienazioa, jabetza pribatua, klase sozialak, boterea, justizia, zapalkuntza, plusbalioa, erabile-raren balioa eta trukearen balioa, soldataren esklabotza; eta elkartasuna; eta antolakuntza; eta iraultza.

Nire adiskideek kontzeptu esaten zieten hitz haiei, eta handiago, ederrago, esanguratsuago balira moduan hartzen zituzten, bereizi egiten zi-

tuzten besteetatik, hitz haiek, kontzeptuak. Hitz gakoak zirela esaten zuten, hitz zutabeak, hitz giltzarriak, azpian hitz gehiago izango balituzte bezalako hitzak zirela. Ahoak gainez egin behar ziela ematen zuen.

- «Ogia» hitzak ez du beste hitzik azpian -esan zidan behin Frantsesaren boz apalak, Frantsesaren hats berotuak, kriseiluaren itzale-tan-. «Ogia» esan eta ogia ulertzen dugu, baina «askatasuna» esan eta hitz gehiago behar dira zer esan nahi dugun ulertzeko.

Horregatik, hitz potolo berri bat, kontzeptu berri bat, sortzen zen gau bakoitzean, hitz gehiago erabiltzen zituzten niri hitz berriaren esanahia azaltzeko, oiloak hegalpean txitak bezala, azpian hitz gehiago gordetzen zituzten hitz ama haiek uler nitzan. Oiloa ikus nezan, txitak erakusten zizkidaten, kriseiluaren argitan, pattarraren be-roan.

Hitz hauek oso ahopean esaten zituzten Frantsesak eta Estudianteak, ordura artekoak baino apalago, eta nik gerturatu egin behar izaten nuen kriseiluaren argira, hobeto entzuteko, eta

nik beste uxual bat eskatu behar izaten nion Ramirori, hobeto ulertzeko.

Baina hitz potolo haiek irakasteko erabiltzen zituzten azalpenetan, beti baziren hitz berriak, batzuk «ogia» bezain sinpleak, besteak «askatasuna» bezain zailak. Orduan gertatzen zitzaidan gauza bitxi bat: konturatzen nintzen txitak ere, hegalpean, txitak gordetzen zituela, oiloak bezala. Txitak oilo bilakatzen zitzaizkidan, txita izateari utzi gabe. Eta ordura arte zerbait ulertu nuela iruditzen bazitzaidan, zerbait ulertu nuela pentsatzen banuen, handik aurrera konturatzen nintzen zein motza zen nire entendimentua.

Eta hala ere, hurrengo asteazkenean berriro hasiko ginen, dena aztertzen, zakurraren ipurtzuloan, dena hankaz gora jartzen, zakurraren eskolan.

Tarteka poemekin edo kantekin etortzen zen Frantsesa, batzuetan frantsesez ekartzen zituen, besteetan okzitanieraz, inoiztik behin italieraz; behin bere asmamenekoak, beste batean norbaiti hartuak.

Iruditu zitzaionean *Drapeau Rouge* ekarri zuen asteazken gau haietako batera, eta harekin



hasi ginen lanean, Frantsesak nire bertsopaperean artean sartu zuen lehenengo harekin, irakurri ezinaz damutu nintzen harekin hasi ginen lanean, prest nengoela iruditu zitzaionean.

«Sarraskien aroari atea ixteak  
ekarriko du ikurra aldatzea  
eta gure bandera gorri tenteak  
mundu berria gidatzea»

Hala itzuli zuen Estudianteak paperera nire esana.

Eskola lantegi bihurtzen hasi zen: hitzaren eskola, hitzaren lantegi: zakurraren eskola, zakur lantegi. Frantsesak poemak ekartzen zituen, edo testuak bestela, sarri eskuz izkribatuak, bere letra zaindu, etzan, dotorearekin eskuz izkribatuak. Irakurtzen ikasteko liburuxkak eta idazten ikasteko astamakilak egiteko orriak ekartzen zituen Estudianteak. Nik gogoia eramaten nuen, batik bat gogoia.

Frantsesaren lehenengo poema hura itzultzen bukatu genuenean, gehiago ekarri zituen. Aurkeztu egingo zigun aurrena, behar ziren azal-

pen guztiak emango zizkigun. Gero papera atera, marranta garbitu, eta orijinala irakurriko zigun, jatorrizko hizkuntzan. Estudianteak eta biok isil-isilik adituko genituen hots arrotz haiek, esanahiak harrapatu nahirik, soinu haien atzean zeuden ideiak eta irudiak sumatu nahirik, aztal-ka, oiloen eta txiten atzetik.

Gero hasiko zen Frantsesa irakurri ziguna esaldiz esaldi, hitzez hitz, gaztelaniara itzultzen; eta ni hasiko nintzen, haren atzetik, Estudianteari euskaraz nola jarriko nituzkeen esaten.

Normalean eztabaida handirik gabe pausatuko ziren paperean nik Estudianteari diktaturiko hitzak. Baina beste batzuetan eztabaidatu egingo zidan Estudianteak, zuzentasuna aitatu zuen, egokitasuna, edo doitasuna. Frantsesari galdetuko genion, zer esan nahi zuen zehazki, bere ustea emango zigun, eta guk gureak gehituko genituen, eta eztabaidan jarraituko genuen biotako bat nazkatu edo nekatu arte. Orduan Estudiantea eta biok euskaraz hizketan hasiko ginen, oharkabeturik, eta Frantsesa guri begira isilik geratuko zen, kafe urtua edo pattarra murritzuz, euskaraz zer ikasiko, zer sumatuko.

Asteazkena noiz helduko zain egoten nintzen, zakurraren lantegira joateko, idazkari bizargabeari zer idatzi behar zuen agintzen hasteko, nazkatu edo nekatu arte eztabaidatzeko, ikasteko. Nahiz eta batzuetan nekatuegi iristen nintzen, afaldu eta ohera joan, beste ezertarako gogorik gabe. Igual alferrik ari ginela esango nien orduan, ez nuela indarrik eta gogorik lanean hasteko.

- Verba volant, scripta manent -esango zuen orduan Estudianteak.

Edo adarra joko zidan, bestela.

- Mando maingua! -esango zidan.

Pixka bat behartuko ninduen eta hasi egingo ginen, betazalei uxualarekin eutsiz, jo eta leher-tzeraino, eta ezin nuela, ezin nuela gehiago esango nien azkenean, eta orduan Frantsesak edalontzia altxa eta «Buvons!» esango zuen, topa eginez, berak bakarrik ulertzen zuen hizkuntza hartan.

- Buvons, Sotero! A l'indépendance du monde! Buvons!

Horrela joan ziren udaberriko asteazken guztiak eta udako zenbait, eta abuztura heldu

ginen, abuztu sargorira. Kanean baino epelago zegoen zakurraren ipurtzuloan, zerbaitengatik zuen eta zuloaren fama. Abuztu sargoriko asteazken hartan mahai gainean epeltzen ari ziren xerretan pausatzera zetozen euliak uxatzen lanpetuta nengoen. Ez zen oraindik Frantsesa agertu, zain nengoen, lanpetuta nengoen, euliak haragitatik uxatzen. Abuztuko asteazken sargori hartan batera sartu ziren, Frantsesa eta Estudiantea, Ramirorenera.

Segituan antzeman nien hizketan arituak zirela.

- Canovasena entzun duzu? -galdetu zidan Estudianteak irribarretsu, alai, begiak dirdiran, esertzeko denborarik hartu gabe.

Entzuna nuen. Jakina zen. Ez zebilen beste konturik probintzia osoan.

- Ez gara bakarrak, Sotero, ez gara bakarrak! -esan zidan pozik, begiak dirdiran, sorbaldatik astintzen ninduela.

Eseri egin ziren, biak batera.

- Hitz egiten aritu gara, Sotero -eten zuen Frantsesak-. Italiar hori garbitu egingo dute.

Zapi gorria eskuetan zekarren Frantsesak, lasterka etorri izango zen.

- Laster garbitu ere.

- Zerbait egin behar dugu -esan zuen gazteak, lebita altzoan bihurrituz.

- Zerbait egiteko prest zaude? -galdetu zidan zaharrak.

Gazteenak esan zuen ez ginela bakarrak, eta zerbait egin behar genuela.

Zaharrenak esan zuen garbitu egingo zutela Angiolillo, eta ea zerbait egiteko prest ote nengoen.

- Zer? -galdetu nuen nik.

Alegia eta zer egin genezakeen; alegia eta zer egin behar genuen. Hitz egiteaz aparte.

Inork ez zekielako haren benetako izena deitzen zioten Martin Etxeberria; Fagarasko nagusi jaun erbesteratua; turkiarren atzaparretatik ihes egin eta Mediterraneo itsasoa igerian gurutzatu zuen beltzaran erkina; Italia, Frantzia, Portugal, Egipto eta Islandia bere gurdiarekin korritu zituen enbusteroa; zortzi hizkuntza eta hamalau

dialekto hitz egiten zituen zalameraoa; hogeita bi semeren aita eta beste horrenbeste alabaren aitona; bost alditan alargundu eta hamarretan ezkondu zen gizona; bazterrotan ezagutu den kontrabandista eta komertziante handiena; mikelteen izutzaile eta mutxurdinen limurtzaile lotsagabea; baliorik gabeko edozer gauzaren saltzaile eta baliozko guztiaren lapurra; txatarra biltzaile eta eltze konpontzaile parerik gabea; Martin; Etxeberria.

Platanoak hasten diren bidearen goiko alde-tik azaldu zen, korneta jotzen. Harrizko bidea laga, eta elurrez garbitzen ari ginen gurdibidea hartu zuen, dozena erdi bat zakur atzetik zituela, zaunkaka, orkestina batek baino buila handiagoa atereaz zintzilik zekarren ferraileria harekin guztiarekin: zartaginak, sardeak, burruntzaliak, aizkorak, burdin hesiak, eltzeak, iltzeak, paderak, pertzak, zerrak, txarrantxak, burruntziak, ziriak, tupinak, laratzak, ontziak, kaikuak, kateak, pegarrak...

Fagarasko nagusi jaunak ere mereziko lukeela bertso sortarik pentsatzen irten nintzaion bi-

dera, Fermin, Ujenio zaharra eta Beltxaren semea aitzur, pala eta pikatxoiekin utzita.

- Hori duk, joan hadi, gu hemen utzita -ekin zidan Ferminek-. Irakatsiok horri zer den plusbalioa!

Gurdia gelditu zuen Martin Etxeberriak, pixkaka-pixkaka, elurretan irristatu eta amildu gabe. Orkestina isildu eta apartean itxaron ninduen, banindoakiola ikusita, urrutitik antzemandakoa, Fagarasko nagusi jaunak.

- Datorren asterako edukiko diat hirea -esan zidan, asmoak igarririk, aldamenara heldu nintzaionean.

Lurrera tu egin zuen ikatza bera baino listu beltz, ilunago bat. Bide bazterreko elurretan tanta beltz bat. Besterik behar ote nuen galdetu zidan, eltzerik konpontzeko, txatarrarik jasotzeko, labanarik zorrozteko... Ezetz esan nion, bestearekin nahikoa zela, eta eskerrak eman nizkion.

Sudurzuloak mahukarekin igurtzi eta eskuak berotu zituen hatsarekin. Abiatu zuen osterako orkestina, tabako zikin hura mastekatzen zuela.

Hotz heldu zen negua; zakurrak uluka baino lehenago hasi zen bera eztulka.

- Salute compagno! -esan nion gibeletik.

Atzera begiratu ere gabe erantzun zidan:

- Grazie.

Fermin eta Beltxaren semea han ari ziren, Ujenio zaharraren aginduetara, etxe aurrean eroritako enborra mugitu ezinik, tiraka eta bul-tzaka. Aizkorak ekarri eta erditik ebaki, edo asto-ak ekarri eta bazterrera bota, zer egin, zalantzan zegoen Ujenio zaharra.

- Zer? Atera al diok ferra merkeagorik? -gal-  
detu zidan Eizmendi jaunak.

Mutur beltz hura jarrita, kostako zitzaion en-  
borra mugitzeko Maria Kristina ateratzea. Ferra  
berriak gastatzeko ere. Lehenago lehertu behar-  
ko zituen gerriak aizkorarekin. Bajatu beharko  
zuen, laguntza nahi bazuen.

- Martin Etxeberriak ferratu gabe ibiltzen  
ditik astoak -erantzun zion Ujenio zaharrak.

Bidearen azpiko aldetik Fagarasko nagusi  
jaunaren korneta entzuten zen oraindik, udabe-  
rria esnatzera deitzen.



- Ez dik horrek plusbalio handirik aterako, horrela ibilita.

Martin Etxeberriarekin hartu zuen, baina nirekin zegoen zapuztua Eizmendi jauna.

- **Nik** ere nahiago ditiat ferratu gabeak. Emakumeak.

Zapore mikatzagoa dute. Zapore guztiak dituzte. Ferratu gabeak.

Ez dute konturik eskatzen, ohera sartzeko eta errezelak irekitzeko, ez dute konturik esaten eta dena jakiten dute, errezelak irekitzerako edo ohera sartzerako.

- Irribarre berdinarekin itxi eta zabaltzen ditek atea.

Bezatu gabeak, ferratu gabeak, orraztu gabeak. Ez dute hauts zurien edo gorrien beharrik, eta irri egiten diete Parisko moda kaskarinei. Zinez, gerra guztietatik bizirik atera behar duten bakarrak ematen dute.

Estudianteak jakin nahi zuen, eta inoiz bizirik egiten hasten bazen erakutsiko niola agindu nion. Jaulisi bezala.

Ez zen hura baino askoz zaharragoa izango, nolana ere, gure Estudiantea.

- Zenbat urte dauzkak hik, izan ere?

- Nahikoak! -erantzun zidan haserre-. Dagoeneko musu eman diot Martinicari.

Txoritxo hura nor zuen galdetu nion, algaraka hasteko gogoei eutsiz.

- Lehengusina bat -argitu zidan-. Baina ez dut gogoko. Nire izebak bezalakoa da, berdin-berdina. Haiek baino zaharragoa ere ematen du.

- Eta orduan, zergatik eman hion musua?

- Jakin egin nahi nuelako.

Ditxosozko jakiteko mina. Jakiteko min be-deinkatua.

- Eta nolakoak dira ferratu gabeko horiek? Erakutsiko didazu?

Ez segitzeko hortik esan nion, lana neukala, ez nintzela irakasle ona, hura ez zela kaligrafia edo astamakilak egitea. Baina Emiliok bakarrik uzten gintuen orduko, kontu berarekin hasten zitzaidan berriro, dale! Nazkatu nintzen, bai, eta nirekin eraman nuen, ostiral goiz batez, Martute-neko erreka bazterrera. Negua hatsarrean zen. Ez nuen itxaropenik. Bidea erakutsi eta bakea

emango zidala pentsatu nuen. Ez nuen gehiago espero.

Zorteko ibili ginen, hala ere. Arropak zuritze-ra joandako bi atsoekin hiru neska gazte zeuden, hotzak kuzkurtuak, zurbil. Bularrak agerian sartu zen bat Urumeara, eta bustita irten zen uretatik, buila txiki eroak botaz. Kanaberen atzean uzkur-turik, ahoa zabal-zabal eginda zegoen bizarga-bea. Begi argiak bustita, kokotsa uretaraino ero-ria.

Lebitatik eutsi behar izan nuen irrist egin eta eror ez zedin. Pozik zegoen, zoratzen, eskerrak eman zizkidan nik ez dakit zenbat bider; noiz itzuliko ginen galdetu zidan. Ez nion ezer esan hasieran, ez zapuzteagatik, baina haiek ez ziren ferratu gabeak; Martinica pobreagoak, besterik ez. Noiz itzuli behar genuen galdetzen jarraitu zuen, ezer esaten ez niolako.

- Bihar itzuliko gara, Sotero?

Bestelakoak ziren ferratu gabeak, erreka baz-terreko haien aldean.

- Ikasi duk bidea, ezta? -erantzun nion, go-gait eginda-. Niri ez zaidak ezer galdu hemen.

Isilik egin genuen handik aurrerako bidea.  
Ateri, baina elur giroarekin.

Frantsesak esan zidan Mr. Snoid jauna, aspaldiko adiskidea, etorri zitzaiola bisitan Irlandatik, eta harekin emango zituela egun batzuk, ezingo zuela hurrengo asteazkenean Ramirorenera azaldu.

Handik aurrera, azalpenik eman gabe hasi zen huts egiten.

Estudianteak, hasieran ez, baina laster jarraitu zion eltzagorraren arrastoari. Ematen zuen nik besterik ez niola eusten mastari tente; ontzia utzi zutela, marinela agintean lagata. Ramirok eman zidan Estudiantearen berri, ikusia zuela azken aldian dama galant batekin solasean, Alamedan.

Esango nion nik Frantsesari. Beti niri hartu behar zidan kontua. «Ikusten al duk Estudiantea nola dabilen?», hala esango niola erabaki nuen.

- Tempus fugit -aurrea hartu zidan Frantsesak, ordea-. Denbora badoala, alegia, barkame-

nik gabe, eskuetatik ura bezala, eta denoi gustatzen zaigula, zera...

Oso lotsatia zen Frantsesa batzuetan, edo kaltetua zegoen bestela. Irri triste batez amaitu zuen, bederen, esaldia.

- Zuk ere badakizu noski zertaz ari naizen...

Ulertu nuen Jaranako zalamandrana beltzarenarengatik ari zitzaidala.

Nik ere lizentzia txikia hartu nuen udan. Frantsesarekin eta Estudiantearekin biltzen hasi nintzen garaitsuan ezagutu nuen jenio biziko emakume hura, Jaranan jaio eta bertan hazi zen emakume begiratu zorrotzeko bat, gizonezkoei beldurrik gabe begiratu eta bernak lotsarik gabe erakusten zituena. Ile kizkur motza, gorpuzkera luxe liraina, ferrarik gabekoen kastakoa.

Esaten zidan: «Heu izango haiz esku bakararrekin dominatu nauen gizon bakarra», eta barre egiten zuen, oparo. Bazituen bi ume kozkor ordurako. Itsasoan galdua zuen senarra. Eta barre egiten zuen, nire besoa haren ipurdi gainetik kentzen zuela.

Ez zuen laguntzarik berehalakoan eskatuko. Neure kasa hasi nintzaion laguntzen. Handik edo

hemendik soberako zama erabiltzen zuen askotan Maria Kristinak, eta zer edo zer iristen hasi nintzaion tarteka. Beharragatik edo bihotz onagatik, eskertu zidan, zakarra izan arren, samurra izaten ere bazekien-eta.

Berez samurra izan arren, zakarra izaten ere bazekien eta, uste dut, horregatik eman zidala begira. Arrimura egin genuen, beharrak aginduta edo desioak bultzatuta. Ez genuen elkarrekin egoteko denborarik egiten, eta ondo konpontzen ginen; eman genezakeena eskatzen genion batak besteari. Ferratu gabea zen emakume hura, baina behin eskatu zidan, besotik helduta paseatzeko. Behin bakarrik.

Kasualitatea.

Frantsesak ikusi behar.

Uste dut biok pentsatu genuela gauza bera, une hartan. Beso bakarra lotuta ikusi ninduean.

- Zuk ere badakizu noski... -esan zidan Frantsesak, esan gabe.

Moldiztegian txartelak hartu eta botika batera eraman behar zituela, baina bukatuko zuela lana berak, eta etxera joateko agindu zidan. Apal

zegoen, horrelako betzulo handi batzuekin. Esan egin nion, neke itxura zuela, ez nuela zereginik, gustura lagunduko niola. Etsi egin behar izan zuen.

Botikako enkargua egin genuenean, pattar bat hartzera eraman nuen, kasik arrastaka. Emakumeengatik galdetu nion, baina kontu horiez aritzeko gogorik gabe sumatu nuen. Nik erdiraino neukan uxuala, ordea, eta asmakizun bat proposatu nion. Konpainia luzatu behar.

- Zer duk, ikusi ez eta, hala ere, begiratu ahala gero eta gehiago ikusten dena?

Aharrausi egin nuen neuk ere, laguntze alde-  
ra.

- Ez dakit ba... Gauza asko izan litezke...

Errotari eragiten hasi zen, gorputza eroria zuen arren. Ez zuen lagunduta ere asmatuko, baina heldu egin zion.

- Zapalkuntza adibidez, gehienetan ez da ikusten, baina zenbat eta gehiago begiratu...

Ez ninduen ulertu. Azkarregi bukatu nahi zuen.

- Ez, ez, ez. Ez nauk zuen hitz potolo bedein-  
katu horiez ari, gauza zehatzekin ari nauk, gauza  
sinpleekin.

- Ados, ados.

Pixka batean pentsatu zuen jarraitu aurretik.  
Bazekien ez niola erraztasunik emango.

- Bat baino gehiago dira beraz?

- Asko izan litezkek bai.

- Ez dakit ba... Musika? Ez, hori ez.

- Urruti habil.

- Badakit, badakit. Itxaron pixka bat.

Aharrausi egin nuen berriro, ez lokartzen ari  
nintzelako, laguntze aldera baizik. Alferrik izan-  
go zen, baina ahoa zabaldu nuen.

- Badakit! Liburuak. Liburuak egondako apala-  
ren hutsunea begiratzean...

Ez dakit zer besterik espero nezakeen. Be-  
giak piztuta begiratzen zidan, baiezkoaren zain,  
bukatu eta etxeratzeko gogoz.

- Ez ba; ez zuan hori -ostera ere aharrausi  
egin eta hortzak erakutsi nizkion, goiko ezpainak  
jasoz-. Hortzak zituan, hortzak. Ikusten al dizki-  
dak?



Gerruntzetik labana atera eta muturrarekin garbitu nituen hortz tartekak. Frantsesak ezin zuen halakorik egin. Ez segituan, motel zebilen, baina noizbait konturatu zen.

- Zure eskuineko beso hori bezala, ezta? Nire hortzak...

Barre egin nion eta labana jaso nuen gerruntzera. Pitxer bete ardo eskatu zuen. Eta okzitaniarra hasi zen hizketan orduan.

- Zer? -galdetu nuen nik.

Alegia eta zer egin genezakeen, zer egin behar ote genuen.

Hitz egiteaz aparte.

Gazteak esan zuen zerbait egin behar genuela; zaharrak, laster garbituko zutela Angiolillo. Gazteak esan zuen ez ginela bakarrak; zaharrak, ea zerbait egiteko prest ote nengoen.

Hitzak ziren.

- Zer? -galdetu nien; alegia, esan zezatela zer.

- Salbatu egin behar dugu! -saltatu zuen Estudianteak, aulkia atzera bota eta tente jarrita.

Txoratuta al zegoen esan nion, esertzeko eta isilik egoteko, Potxolok salatzea nahi ez bazuen. Aulkia jaso genuen lurretik. Zutabeen bermaturik, Potxolo genuen aldamenean, zotz luze batekin hortzak garbitzen eta ezagutzen ez nuen beste morroi baten esplikazioak aditzen. Arrietak Kubako bidea hartu zuenetik, ezagutzen ez nuen jendearekin ibiltzen hasia zen.

Frantsesak ebatzi zuen ezetz, ezin genuela askatu, ez genuela astirik ezer prestatzeko, ez genuela armarik, ez genuela indarrik, ez genuela esperientziarik, ez genuela ezer, ezinezkoa zela eta, gainera, ez geundela bakarrik, baina bai, bakarrik geundela; barregarria litzatekeela lagun bat askatzearren lau fusilatzea.

- Eta gainera, lepoa egingo nuke ez ligukeela ondo hartuko.

Azkeneko hura ez, ez nion ulertu, ezin nuen ulertu. Larrua lehendabizi, pentsatzen nuen, ezin nuen besterik pentsatu. Zer, bestela?

- Ekintzaren bidez propaganda egitea esaten zaio.

Beste maila batean ari zen. Estudianteak ulertuko zuen akaso.

- Hil beharra daukala ekintza bururatzeko. Aukera zuen ihes egiteko, baina...

Estudianteak amaitu zuen, erdizka ulertuz, nik bestela ere ulertu ezin nuena.

- ...ihes egin izan balu, eten egingo zen prozesua.

Han neuzkan adiskideak, aldamenean eserita, gogoeta isilean, bata begiak mahaira erorita, bestea begiak itxita, neu begiak zabalik, haien buruetan baino ez zeuden ideiei begira.

- Beraz, gurpilari eragin beharko diogu, ezta? -esan zuen Frantsesak, begiak zabaldu eta eskuak estutuz.

- Prozesua bizkortu -erantsi zuen gazteak, burua mahaitik altxatuta.

- Luzatu egin behar dugu Angiolilloren itzala.

- Hori da.

Isildu egin ziren. Ez zen hitz egiteko unea, pentsatzeko unea zen. Konturatuta nengoen eta isilik nengoen, zain, pospoloekin jolasean, argi bila, esperoan.

- Oinazearen Federazio Handia antolatu behar dugu, adiskideok -esan zuen Emiliok, ni itxaroten nazkatu eta handik askora.

Izen barregarri hura nondik atera zuen galde-  
tzekotan egon nintzen, baina hizketan jarraitu  
zuen, hau, hori eta hura egin behar genuela esa-  
ten. Kasurik ere ez zidan egingo. Abaila hartuta  
ari zen.

Oinazearen Federazio Handiari izena jarri  
behar geniola ebatzi zuen. Hiru lagun baino ez  
ginen elkartean, argi esateko, eta Oinazearen  
Federazio Txakarra dei geniezaiokeela etorri zi-  
tzaidan burura. Baina ni horretara heltzerako,  
sekretupeko izen bat behar genuela esan zuen  
Frantsesak, Narodnaia Volia edo La Mano Negra  
bezalako izen bat, entzute hutsarekin izua sortu-  
ko zuen izen bat, errespetua eta izua, biak ba-  
tean, sortzeko indarra emango zigun izen bat.  
Oinazearen Federazioaren izen harekin ez ge-  
nuen Ujenio zaharraren oilategiko oilorik kolda-  
rrena pittin bat ere aztoratuko. Hainbeste, ni ere  
konturatzen nintzen.

Zerbait behar, baina ezer sortzen ez. Poeta  
zirikatu genuen, baina Kantabriako Askatzaileak  
esan zuen. Bertsolaria zirikatu zuten, baina Men-  
dekuzaleak esan nuen. Ikaslea zirikatu genuen,  
baina Egiaren Ordua esan zuen. Horrela aritu

ginen, txandaka, baina ezer sortzen ez eta, aurrerago zerbait pentsatuko genuela askietsita, bigarren erabakia hartu genuen, ordura arte formalki erabaki gabe zegoena berretsiz bide batez, elkarren bizilekuen berri ez edukitzea alegia, Frantsesak gu non bizi ginen ezagutzen bazuen ere.

Federazioak beste hiru erabaki hartu zituen asteazken hartan. Ramiroren taberna bileretarako gehiago ez erabiltzea. Jarraituko genuen, hala ere, asteazkenetan biltzen, poemak itzultzeko eta niri idazten eta irakurtzen irakasteko. Motel nindoan, gainera; ez nuen Estudianteak agindutako lanak egiteko denborarik hartzen.

Hirugarrena izan zen, noski, inori lagunarte hari buruzko konturik ez aitatzea, ezta deusik ere, bazkide guztien onespenearekin ez bazen behintzat.

Eta pistola bat, edo ahal zirenak eskuratzea. Nire kargu gelditu zen azkeneko lan hori, Fagarasko nagusi jauna ezagutzen nuelako; turkiarren atzaparretatik ihes egin eta Mediterraneo itsasoa igerian gurutzatu zuen beltzaran erkina; Europa erdia eta Afrikako parte bat korritu, eta

zortzi hizkuntza eta hamalau dialekto hitz egiten zituen zalameroa; bost alditan alargundu eta hamarretan ezkondu zen gizona; mikeleteen limurtzaile eta mutxurdinen izutzailea; baliorik gabeko edozer gauzaren saltzaile eta baliozko guztia-  
ren lapur enbusteroa; Martin; Etxeberria.

Ulertu zuen azkenean. Emilek ahoa zabaldu eta falta zituen hortzak seinalatu zizkidan hatzarekin. Pitxer bete ardo eskatu genuen.

Eta gero okzitaniarra hasi zen hizketan.

Tolosan, ez du ezertarako balio hau kontatzeak, baina Tolosan jaio zen Emile; Tolosan hazi, han, Pirinioak omen diren mendi gaitz haie-taz harantzago; Tolosan, Garona deitzen dioten eta beti elurtuta dauden mendi tontor gaitzen erraietatik sortzen den ibai zabal oparoaren saihetsetara; Tolosan bizitu, hamalau urteak bete arte; Tolosan erre kardari, eta aitzogile, eta adreilugile; Tolosan umezurtz, aita mozkorrarekin, hamalau urteak bete zituen arte.

Ardo pitxerraren masailak bustita zeuden, Emile paristarra hizketan hasi zenean.

Parisera, alferrik izango da hau esatea baina, Paris handira iritsi zen Emile; Paris ugarira, antzerki talde ibiltariarekin; Paris jendetsura, Frantzia korritu zuenean; Parisera azkenean, Parisera bideak oro, Parisera behingoz. Parisko teilatuek teitlak baino ofizio gehiago izan zituen Emilek Parisen, baina tipografoarena gehien gustatu bide zitzaiona; gehiegikeria asko egin zituen Emilek Parisen, baina ardoarena, gelditu bide zitzaiona; adiskide asko egin zituen Emilek Parisen, baina Michelle bat bakarra hezurretara iltzatu bide zitzaiona; adiskide asko, Parisen; baina Michelle.

Ardo pitxerraren hondarrak trabatzen zitzaizkion mingainaren azpian, Emile bakartia hizketan hasi zenean.

Prusiarrak iritsi ziren hiriaren atarira, jolaserako gogo gutxirekin. Atea bota zuten, deitu aurretik. Asaldura, aztoramena, iskanbila, liskarra. Zer ez zen izan Paris egun haietan.

- Orduan asmatu genuen -esan zuen-. Asmatu genuen beste gauza bat. Ez zerrikeria hau!

Besoa astindu eta hormaren kontra bota zituen zakurraren ipurtzuloko mahai gainean geneuzkan traste apurrak: Hohnerraren erditik ple-

gatutako kutxatxoa, baso kristalezkoak, tabako toxak, pitxer lurrezkoa.

- Komuna! -aldarrikatu zuen.

Ramiro imintzioka eta builaka hasi zitzaigun, mostradorea alderik alde guganaino zeharkatuz, trapu herdoildua eskuetan estutuz. Indarrak soberan al geneuzkan, galdetu zigun. Sukaldetik erratza hartu eta kristal zatiak bildu zituen. Erotuta al geunden, galdetu zigun. Erratzaren txilarrak eta beira zatiek soinu sor bat egin zuten lurreko lauzen kontra. Emile, aldamenetik «Vive la Commune!» oihuka, ez zen laguntzarik proposena, ordu hartan, Ramirorenean.

Hohnerraren kutxatxoa eta toxa lurretik jaso, pitxer ardoaren eta baso kristalezkoen ordainak mostradore gainean utzi eta kanpora laguntzeko eskatu nion Frantsesari.

- Kontu egiok zein lagunekin ibiltzen haizen!  
-esan zidan Ramirok euskaraz.

- Hauek al dira zure adiskideak? -galdetu zidan Frantsesak atea gurutzatu genuenean.

- Eta hik non dauzkak hireak? -erantzun nion.

- Hilda daude denak.

Horrela esan zidan, hitz horiekin:



- Hilda daude denak.

Kontuak egin nituen. Ondoan neukan okzitaniarra, bakarrik; alboan neukan paristarra, adiskiderik gabe; han neukan, gizon bakartia, Emile.

Eta hankak baino arinago zebilkion, hala ere, burua.

Orain ez dakit merezi duen kontatzea, baina esan zidan bederatzi urte egin zituela espetxean, Komunaren aste haiengatik. Bederatzi asterengatik, bederatzi urte.

- Beste bederatzi egingo nituzke!

Gerezien sasoia baino lehenago hasi eta bukatu zen amets haur hura, bizarrak zurituta ziegatik askatu zuten gizon bederatzi urtez zaharra go hura, ziegatik askatu eta Marseillan eskean ibili zen hura, Parisen lo hartu eta Milanen babestu zena, ziegatik askatu eta Florentzian tipografo izatera itzuli zen gizona; Parisen amets egin eta, bederatzi urte geroago, ziegatik askatu zutenean, lau ebakortzak falta zituen gizon hura, Parisko Komunari buruzko albisteak ekarri zizkidana, askatasunari koska egiteagatik lau ebakortzak galdu zituen gizon bakartia, Emile.

- Michelle! -oihu egin zion aurrean genuen itsasoari.

Kontuak egin nituen, izarren azpian, gau hartan.

Larrua salbatu zuela behintzat, esan zidan. Gehienak hilda zeuden, lur azpian, edo izutuegi, ezer oroitzeko.

- Homo homini lupus -esan zuen-. Estimazio eskasa, gizonak gizonari diona.

Mendekuari bizirik eutsi zioten bakanek ez zutela indarrik amets hura egia izan zela sineste-ko ere, esan zuen; txindurriak bezala zapaltzen zituztela hildakoak, katu hilak bezala lurperatu zituztela hildakoak, bata bestearen gainean; kanpotik ekarri zituztela arotzak katabutak egi-tera, ez zegoela hildako haiek guztiak ikusi, usaindu, zapaldu gabe ibiltzerik, hiria hustu zela kolpez, arratoiak baino ez zirela irteten gauez kalera; festa handia izan zena hileta bihurtu zela kolpez, mamuz betetako hiri tzar bat, izurriteak eta goseak bat-batean abaildutako metropolia, denentzako behar zuen hiri abegitsua, inoren-tzako geltoki bihurtua, kolpez.

Ez du mereziko oroitzea, baina espetxean bederatzi urtez egon zela eta, askatu zutenean, hanka egin zuela esan zidan, Tolosatik pasatzea pentsatu zuela, baina beldurtuta zegoela eta Marseillan aterpetu zela, Milanera joan zela handik; ofizioak eta gosea ugaritu eta arropak zultatu zitzaizkiola bidean; Florentzian itzuli zela tipografo lanbidera, eta diru pizar bat batu zuenean joan zela Bartzelonara aurrena eta Donostiara gero; gaskoien eragin bistakoa zuela Donostiak, Italiako hiri handien aldean txikia zela, Parisen aldean ezdeusa zela, pospolo kaxa bat, baita Tolosaren aldean ere; txikia, hazi gabea, baina gustukoa zuela hiri hau; gustuko zuela akaso horregatik, gogoan har zitezkeelako kale izen guztiak, atsegin zituela tamaina hartako hiriak; eta ja bazuela, gainera, eginkizun zehatz bat, azkenean aurkitu zuela larrua salbatzearen ordaina, topatu zuela gerezien sasoiara itzultzeko bide bat behingoz, bederatzi urte eta beste bederatziren ostean, ileak zuritu eta bideak ixten hasten diren sasoiak.

- Michelleri zor diot -esan zuen-. Eta baita nire buruari ere.

Ordurako ihintzak hezetuta geunden, eta Parisiko Komunaren oihartzuna soinu sor bat zen nire buruaren barruan, erratzaren txilarrak Ramiroren tabernako lauzen kontra egiten zuena bezalako soinu sorra, eltzagorrarena bezalako soinu ahaztezina. Galdua nuen, zeharo, orduaren kontua.

- Hemen asmatu dugun komuna bakarra-  
-okurritu zitzaidan-, beste harako zulo hori, bakarka bisitatzen duguna.

Horra, komunak zer ziren Donostian, eta zer Parisen.

Handitzen ez zelako txiki izaten jarraitzen zuen oinazearen gure federazioak izen ofizialik eta egoitzarik gabe jarraitu zuen biltzen. Ramirorean biltzeari utzi genion, ez bazen bertsoren bat itzultzera edo nire ikasketei segida ematera. Sagardotegietara joaten hasi ginen tarteka. Oiartzunera, Errenteriara, Astigarragara, Hernanira, inguruko herrietara. Edo hamaiketako egin zitekeen leku apartaturen batera, Altzako Otxokira, Txubilloko Benta Zikinera, Astigarraga-

ko Santiomendira. Mahaira eserita batzen ziren gure bizimoduak. Jan beharrak berdintzen gintuela eman zezakeen, baina, egiaz, goseak berdintzen gintuen. Goseak, jateko horrek, eta egarriak, beste haren egarriak, batzen gintuen.

Ordurako gonazpikoen lurrinarekin liluratua go zebilen Estudiantea, edo akaso baserritarren giro hark ez zuen gehiegi kilikatzen, eta bileretara maizago huts egiten hasi zen. Edonola ere, damu nintzen, Martuteneko erreka bazterrerako bidea erakutsi izanagatik. Frantsesak arrazoi izango zuen, maite kontuek ez zigutela gure lanean mesederik egingo esaten zuenean. Kasualitatea izan zen, baina besotik lotuta ikusi ninduen. Behin behar eta. Horregatik, askotan pentsatu nuen nigatik esaten zuela, nire ibilerengatik. Estudiantearen Martinicak bezalako ezetz; nirea ferratu gabea zela kontatuko nion gustura. Baina agurra ukatu zidan Frantsesak, eta neure burua nondik zurituko nenbilen. Horregatik, Otxokin bildu ginen hurrengo aldian, zakar samar galdetu nion zergatik ukatu zidan agurra besotik lotuta ikusi ninduen egunean.

- Hara hemen gure Don Juan! Zer nahi zenuen nik egitea? Beso bakarra lanpeturik zenukan eta!

Haserre ote zegoen galdetu nion.

- Haserre ez, alajaina! Amorratzen nago zuekin, pozez amorratzen. Zuk ez dakizu maitemina baino gaitz okerragorik ez dagoela? Lehen bazenuen beso bat, orain batere ez!

Hurrengoan musu emango zidala ipurdian, nahi banuen, horrekin pozik geldituko banintzen.

- Ez zenion ezer kontatuko, ezta? -itaun zidan gero.

- Zer kontatu behar nioan?

- Zer kontatu behar nioan? -errepikatu zuen, destainaz, doinua imitatuz-. Zer kontatu diok guri buruz?

Estudianteak ere nire erantzuna itxaroten zuen. Kontrako eztarritik joan zitzaidan listua.

- Nik ez zioat inori ezer kontatu! -defendatu nintzen, eztul eginez.

- Ez gaitzazu izorratu, Sotero -saltatu zuen Estudianteak, zeinek eta Estudianteak.

- Baserritar hau ez da konturatzen zertan ari garen -asaldatu zen Frantsesa.

Hara, jo eta txikituko nuen. Estudianteak ez al zuen kontaktzen hartarako? Hari ez al zion galdetu behar zeinekin eta zertan ibiltzen zen bileretara huts egiten zuen egunetan? Haserre nengoen, baina laster konturatu nintzen ezin nuela Estudiantea zamatu. Nik bezain erru gutxi zuen hark. Frantsesarena zen kasketa guztia.

- Bazagok beste kontu bat -esan nien, gaia aldatzeko, baina kalmatu ezinik-. Martin Etxeberria ez duk gehiago azaldu. Galdezka ibili nauk, baina inork ez dik aspaldi haren berririk.

Isilik zeuden Fagarasko erregearen zakur tzarrak eta orkestina. Inork ez zuen haren kornetarik entzun aspaldian.

- Eskatu nioan hori laster ekarriko zuela esan zidanetik, bi hilabete joan dituk.

- Ez zenion hari ere kontaktuko, ezta? -itaun zidan berriro, hisiaturik, Frantsesak.

Eztarri lehorrean behera isuri nuen edalontzi-koa.

- Zer nahi huen kontaktzea? Zer uste duk pentsatuko duela? Arratoiak akabatzeko behar dudala?

- Denontzat mesede, ezer kontatu ez badiozu.

Batzuetan tamalgarria zen, bere kasketa eta kopeta zimurtuekin, eltzagor komediantea.

- Ikusi nuen azken aldian ikatza bera baino beltzagoko listu bat bota zuen ahotik -esan nien.

- Min horia? -galdetu zuen Estudianteak.

Bide bazterreko elur zurian tanta beltz bat; Martin; Etxeberria.

**Komuna.** Pariskoa; ez Donostiakoa. Esanahi berria eman zion Emilek hitz hari. Ramiroren tabernako lauzaren kontra zartatutako pitxerraren hotsa gogora ekartzen zidan Komuna, Pariskoa, ez gure zulo beltz hura. Pikotxean jarrita ez ezik, guztiok berdinduko gintuen Komuna hura. Dena entzuteko prest nengoen, badiaren aurreko gure babeslekuan. Dena jakin nahi nuen, gau hartan bertan. Emilek ordura arte gorde zituen hitz haiek denak aditu nahi nituen. Zergatik zien halako nazka Adolphe Thiersen liburuei, hori ere jakin nahi nuen. Galdezka hasi nintzaion, nola



izan zen, zer gertatu zen, nortzuk izan ziren, zer egin zuten. Dena.

- Kontatuko dizut, lasai, kontatuko dizut dena -esan zidan-, baina orain zureak entzun behar ditugu.

Gogor ekin nion, galderak egiten jarraitu nuen, erreguka eskatu nion. Baina ez zuela jarraituko erabaki zuen. Ezetz eta ezetz, nireak entzun nahi zituela. Etsi egin behar izan nuen, beste erremediorik ez eta.

- Aitarik gabeko umea nauk ni -esan nion, hasieratik hasi eta lehenbailehen bukatzeko asmoz-. Anaia bat nian, gizondu aurretik hil zena.

Ihintzak bustirik geunden ordurako, hezetasuna hezurretan kabitu ezinik.

- Gizondu aurretik hil zen anaia bat nian. Eta ama bat, beti eri, ito beharrean eztulka egoten zena.

Eztul egin nuen neuk ere, ihintzaren eraginez akaso, amarekin akordatzeagatik agian.

- Soldaduska bete nian. Ondo bete ere. Hiru urteak egin nitian. Aita hilda zegoan ordurako, baina anaia oraindik bizi zuan, eta guk ez geni-

tian 6.000 erreal. Soldaduska bukatu eta erre-  
serbara pasatzekoak gintuan. Hilabete falta zi-  
tzaiguan, eta Kubako gerra hori sortu huen. Arro-  
pa berriak eman zizkigutean, eman zizkigutean  
hedeak, kartutxo uhalak eta zorroa, kasaka eta  
galtzak, ginbaila eta gorbatak, botin pareta eta  
zahatoa. Eman zizkigutean Alemaniatik ekarrita-  
ko mauser berriak ere. Eraman gintiztean Burgo-  
sera, Sevillara, Cadizera. Sartu gintiztean bultza-  
ka ontzi batean; *Isla de Luzón*; ez zaidak bat-ba-  
tean ahaztuko; han ikasi genian uxuala edaten;  
erreal bat kopatxoa, kopatxo txiki bat; pezeta  
bat librako ogia, ogi beltz gogor bat. Eraman gin-  
tiztean Kubara, Cienfuegosera. Jaitsi gintuan lu-  
rrera, hamazazpi egun itsasoan eta beste lau  
trenean egin genitian. Ontzia izorratu egin zuan  
itsaso erdian. Makinak lehertu eta bertan galdu-  
ko ginela uste genian, handitasun hartan ur  
tanta bilakatuta desegin. Baina osorik iritsi gin-  
tuan Cienfuegosera. Habanaraino eramán gintiz-  
tean. Eman zizkiguan Habanako Udalak hogeit  
erreal eta nahikoa tabako. Tabakoa ez, gainera-  
koa zegoan eskas Kuban. Arroza lehor, hirugiha-  
rra urri, juka eta kafea sabela engainatzeko, ga-

lletaren bat tarteka. Martxak luzeak zituan, kontrakarreko martxak luzeagoak, arropak urratzen zitzaizkiguan, ginbailak galtzen, izerdia uharka, itsatsi eta lohitu egiten zituan arropak, zulatu botinak. Maniguako bideetako lohitara erori eta zutitu aurretik erortzen gintuan berriro, arrastaka ibili gintuan, oinez baino errazago. Eri egon ninduan. Jejenak eta eltxoak zulatu ninditean behin baino gehiagotan. Itsutuko nintzela ere uste izan nian. Batzuetan eguzkiak azala erretzen ziguan, besteetan euri erauntsiek azala zulatu behar zigutela ematen zian. Eztarria sutan nuelako, okerreko lekutik edan nian behin, eta hesteak bota beharrean jardun nian hiru egunez, zulotik bururik altxa gabe. Komuna... Hara hor, nire Komuna zer izan den: hiru egun hesteak bota beharrean.

Barre egin zuen Emilek.

- Medikuak zortea izan nuela esan zidaan, hala ere. Zortea, jakingo dik hark zer den! Behin, Baracoan, segada batetik ihesi irten behar izan nian. Oholesi osoa hartu zian suak. Ahal izan genuen bezala egin genian ospa handik. Lauko ederra eraman genian. Larrua salbatu behar. Al-

ferrik aritu zituan ofiziaiak builaka gau hartan. Insurrektoak hamar metrora nituela egon ninduan, gau osoa, arnasarik ere hartu gabe, deabruari eta espiritu santuari errezoka, ama birjinari eta akerrari erreguka. Insurrektoei kanta bat ikasi nian gau hartan:

«Maria Cristina me quiere gobernar,  
y yo le sigo, le sigo la corriente...»

Isilik eta serio zegoen Emile, ardo tragorik ere egin gabe.

- Hurrengo egunean kanpaleku batera iristea lortu nian nolabait. Borroka erdian ihes egiteagatik zigortu nindian kapitainak, eta hilabeterako giltzapetu. Han, giltzapean bazituan lapurrak, kubatarrei sukaldeko zakuak saltzen ibilitakoak, gaueko guardian lo hartutakoak, ihesean hasi eta erdibidean geldituak, obeditzeko edo lanerako gogorik ez zutenak, karlista zaharren bat eta etsaiari informeak pasatzen atzemandako sevilhar bat. Pedro. Egun apurren batzuk gelditzen zitzazkioan infernu hartatik irten eta goizetan botinen lokarriak gehiago lotu beharrik ez izateko.

Traizioa biziarekin pagatzen zuan han. Broma gutxi.

Istant batez isildu nintzen, lehen gatibutza hartako zokoak, usainak, koloreak, gogora ekartzeko indar eginez. Haizea hartu nuen, begiak itxita. Zail egiten zitzaidan, ordea, itsasoak zekartzan usain eta brisa biziakin. Istant batez itxaron nuen, Emile begira neukala, nondik jarraituko nuen igarri ezinik.

- La Mano Negra ezaguna egiten zaik?

- Ba...

- Aurrekoan kapitalismoa zer ote den ba al nekien galdetu huen... Pedrok irakatsi zidaan niri kapitalismoa zer den. Konfiantza hartu zian nirekin, eta hala esan zidaan behin: «Alferrik ari gaituk hemen, bihar jatena eta bizitzeko gogoak kenduko digunari ipurdia garbitzen; ikusten dituk gizajo hauek denak?». Dozenaren bat lagun egongo gintuan ziegan pilatuta. Pedrok eskua pasa zian ziegaren aldetik aldera. «Esklaboak bezalakoak dituk. Alderik ikusten diek? Esklaboak besterentzat lan egiten dik, kanaberak mozten, zakuak zamatzen, ihes egiteko edo hautatzeko eskubiderik gabe, askatasunik gabe. Guk besteren-

tzat lan egiten diagu, gorputzak moztan, gorputzak zamatan, ihes egiteko edo hautatzeko eskubiderik gabe, askatasunik gabe. Greziarren esklabo haiek, badakik? Hemen zaudek, esklabo haiek, gu gaituk».

Ardoarekin zeharo ahazturik zegoen, ordurako, nire adiskidea, Emile. Tragoa egiten uzteko eskatu nion. Kosta egin zitzaion botila ematen. Uste dut ez zuela espero, kontatu nionetik ezer. Banuen gehiago, ordea, eta zintzurra busti behar jarraitzeko.

- Pedrok bazian Hohner bat, moro beltzei trantuan aterea, erditik plegatutako kutxatxo batean gordetzen zuena. Musikarako abilezia berezirik ez zian, baina ez zuan laster isilduko, hala ere. Auhon luzeko ahapaldietan amaitutako bertso motz batzuk kantatzen zitian. Hiltzeko bezperan eman zidaan opari. «Jar iezaioke musika pixka bat mundu beltz honi, Sotero», esan zidaan.

Begietara begiratu nion orduan, eta badakit Barojatarren moldiztegian harmonika erakutsi eta enkargatuak barre egin zidan egunarekin akordatu zela Emile.

- Fusilatu egin zuten? -galdetu zidan.

Ordurako ni bere Parisko Komunarekin bezain liluratuta zegoen Emile nire Kubako andaluziarrarekin.

- Ez. Baztangak hartu zioan aurrea pelotoiari.
- Orduan, aurpegiko arrastoak...

- Bai. Pedrok kutsatuko nindian. Hiru egun egin nitian sukarrarekin, botaka, buruko minekin. Gero pikortak hasi zitzaizkidan ateratzen, balin handiak bezalako koskor batzuk. Su mendi txikiak zituan, aurpegian, besoetan, gorputzean, denean. Egun bakarrean josi zitzaidan gorputz osoa. Ospitalera eramateko eskatu zieten guardiei, ez ninduan ezertarako gauza eta. Gero gogortzen hasi zitzaizkidan pikortak, eta harri txintxarrak baino gogorrago egiten. Gorputz osoa bete zitzaidan koskor gogor haiekin. Bero-tasunak barrutik kiskalita hil behar nuela uste nian. Egunak eman nitian horrela, etzanda, dardara batean, noiznahi goitik eta noiznahi behetik arropak eta kamaina zikinduz. Noizbait zornatzen eta erortzen hasi zituan. Orban hauek geratu zaizkidak.

Isildu egin nintzen. Aurpegia erakutsi nion.

- Eta besoarena? Nola egin zenuen?

Ezin zen ase. Dena jakin behar zuen. Bi erdi egiarekin liluratu ninduelako, nik dena kontatuko niola esperoko zuen.

Kristauen bilera izateko, oso karitate gutxi izan zuten nire bertsoek Lezon. Aspaldian ez nion Xeferi lan handirik eman. Lepo gaineko nire arroka tzarrak ez zuen bertso berririk ematen eta zaharrekin joan nintzen Lezora, aurreko aldi batean sobratutako paperekin.

Antzeman egingo zuten lezoarrek. Barreka hartu ninduen aurreko urtekoak oraindik gogoan zituen koadrila batek. Erromeriara zihoazenen kontrako bidea hartu nuen, Hohnerra erditik plegatutako kutxatxoan gorde eta paperen erdiak baino gehiago ekarri nituen nirekin bueltan, tranbian.

Frantsesarekin egokitu nintzen hurrengo al-dian, eman egin nizkion, irakur zitzan. Gaztelaniara itzuli nizkiolarik, muturra belztu egin zitzaien aurrena, gorritu gero, eta osorik zituen hortzak alderik alde erakutsi zizkidan atzenean.

- Zer iruditzen zaizkik, txarrak?



- Txarrak ez, izugarriak! -jarraitu zuen barrez-. Inoiz entzun ditudan barregarrienak! Baina nola egin ditzakezu horrelako bertsoak, Sotero?

- lazkoak dituk, abisatu diat. Aspaldian ez diat berririk asmatu.

Ez nizkiola Estudianteari erakutsiko erabaki nuen hantxe bertan. Baten burlarekin aski zitzaidan.

Eltzagorrak kontua hartu zidan, ea zertarako idazten nituen erlijiozko bertsoak, hainbeste gai egonik bazterretan, ea zergatik ez nuen Weylerren ezinaz barre egiten, zergatik ez nituen salatzten Kasinoko handikien gehiegikeriak, zergatik ez nien bertsorik egiten guardia zibilen eskolan sartzeko izen eman zuten soldaduei.

- Ama Birjinari bertsoak egitea ere! Sotero, mesedez.

Eztabaidan hasi ginen, eta haserretu egin nintzaion. Ez zuen entzuten ezer, hisiatuta zegoen. Azkenerako umorea ere aldatu zitzaion, eta besotik heldu zidan.

- Esadazu gurekin egon zaren bitarte hau ez dela alferrik izan behintzat. Esadazu zerbait ikasi duzula.

Argi eta garbi esan behar izan nion:

- Emilio, aditu ezak: saltzeko egiten ditiat nik bertsoak.

Horretan nenbilen, saltzekoak zirenak egiteko gogorik gabe, eta egitekoak zirenak saltzeko ezinean.

- Nola nahi duk bertso horiek idaztea? Kartzelan sartuko naitek.

- Zure astoari egin iezazkiozu orduan!

Martin; Etxeberria; Fagarasko nagusi jaun erbesteratua, beltzaran erkin bat, turkiarren atzaparretatik ihes egin zuena, Mediterraneo itsasoa igerian gurutzatu zuena, mundu erdiko atsoak limurtu eta beste munduaren erdiko mikeleteak izutu zituena, atzetik haurrak barreka eta zakurrak auriaka ibiltzen zituena, zortzi hizkuntza eta hamalau dialekto jakin arren, tanta beltza baino ez zena elurretan; ikatza bera baino listu beltzago harekin isildu ziren Martinen korneta eta Etxeberriaren orkestina.

- Min horia? -galdetu zuen Estudianteak.

Ez nion ezer erantzun. Zertarako?

Armarik gabe zegoen Oinazearen Federazio Txakarra. Egoitzarik eta izenik ez edukitzea kontu bat zen, baina armarik gabe egotea...

- Juan Diaz de Garaiok bezala egin beharko diagu.

Mira eginda begiratu zidaten.

- Sakamantekas! -azaldu nien, baina berdin-berdin begiratzeko jarraitzen zuten zuten, kontuak atera nituen eta jabetu nintzen Frantsesa Florentzian ibiliko zela garai hartan. Estudiantea, seguru ez zela oraindik jaio.

- Ni haurra ninduan, baina 1881ean atxilotu zitean gizonezko bat Gasteizen. Sonatua izan zuan. Ni akordatzen nauk, eta zuek ez al duzue inoiz ezer aditu?

Harrigarria izanagatik, ez zuten Sakamantekasen berri. Frantsesari, hainbestean, baina kostatzen zitzaidan Estudianteari sinesten.

- Neskatoak bortxatu, hil, eta hustu egiten zitian barrutik -azaldu nien-. Aurrena bete, eta gero hustu egiten zitian; artilezko lastairak balira bezala, horrela, brast!

Nire gerruntzeko labanarekin lastaira urratuko banu bezala egin nien imintzioa airean.

Estudianteari goragalea eman aipatze hutsak. Sabelera eraman zituen eskuak.

- Garrotean hil zitean, hura ere, Angiolillo bezala.

- Labanaz apartekorik beharko dugu -esan zuen Frantsesak, kasu handirik egin gabe.

Berriro ere Polaviejarengana joan zitzaidan burua, oharkabea. Itzuli zenetik, sarri ikusi zuten Hendaiarako bidea egiten. Ezin zuen lan handirik eman. Neskatoa balitz eta Gasteizen egokitu izan balitz, erraz egingo zituen harenak Sakamantekasek.

Polaviejaren hariari tiraka jarraitu nuen. Romero Robledo ere eskura geneukan, nahi izanez gero. Zorte pixka batez, Josefa Zulueta besotik hartuta etorriko zen, gainera. Biak batera izan zitezkeen, ez zuen oihartzun eskasa aterako. Aski zen uda itzarotea. Etorriko ziren lehenago edo geroago, trenez, beti bezala. Harrera egingo zieten estazioan, beti bezala: dantzariak, bertsolariren bat, lore sortak, musika banda. Aski zen jende artean sartu eta hurreratzea.

Haiekin nahikoa ez izatera, Martinez Campos ere ez zen aukera txarragoa. Udaldian Zarautze-

ra etortzen zela aditua nuen, eta han baziren zenbait txoko lan haietarako egokiak.

Aspaldiko burutazioak nituen. Ez zen zaila izango haragi guri haietan nire gerruntzekoa bezalako labana bat murgiltzea. Gurina. Lastaira. Ez nintzen berriro hasiko Sakamantekasena esplikatzeko, azaldu beharrik ere ez zegoen, konturatzeko. Arazo bakarra ikusten nien, izatekotan, urde haiei: labana motzegi geratu eta gantza baino ez urratzea.

Polaviejaren kontuak aitatuiko nizkien berriro, baina Frantsesak beste plan batzuk zerabiltzan. Gorago jo behar genuela erantzungo zidan berriro. «Hisiaturik zaude zure gerrako kontuekin», esango zidan berriro; «Ez gaude hemen inor mendekatzeko», esango zidan.

Polaviejak kendu zituela Foruak, Romero Robledo Canovasen ministro izan zela, Zuluetatarraren esklaboak ez zituela ondo ikusi nola bizi ziren, Martinez Camposek Kuban egin zituenak ez zituela ondo ikusi esango nion. Canovasen leku berean egona zela, gainera. Ez zela mokadu txarra. Baina alferrik izango zen. «Itsututa zaude», erantzungo zidan berriro, «itsua da

mendekua, mendekuak baino gorago begiratu behar dugu guk».

Nire baitan berarekin eztabaidatzen ari nintzela igarri balu bezala, gorago begiratu behar genuela esan zuen Frantsesak.

- Nora, ordea? Nora esan nahi duk «gorago» esanda? -galdetu nion aspertuta.

- Maria Cristina esan nahi dut -erantzun zidan-. Maria Cristina, eta baita haren semea ere, parean tokatuz gero!

- Ume bat eta emakume bat, alajaina!

- Zuri besoa moztu zizun emakumea -erantzun zidan Frantsesak-. Zure aita berriro hilko duen umea! Alajaina!

Lepoko zapi gorria lasaitu zuen.

- Hau ez da broma, Sotero. Ez gaude umeke-riatarako hemen.

Estudianteari aurpegiko kolorea aldatzen ari zitzaion, lepoa estutzen ari balitzaizkio bezala. Sakamantekasen kontua aipatu nuenetik, behe-rakoa sartu zitzaiola ematen zuen. Hala zegoen, aulkian ipurdia asentatu ezinik.

- Canovasena eta gero ez du edonork balio. Gorago begiratu behar dugu.

Kubakoa ahitzear zegoen. Urtea ere ez, gehien jota asteak edo hilabeteak iraungo zituen harropuzkeriak oraindik, baina estadounidostarrak gerran sartuko ziren, eta orduan akabo. Weylerrek ez zuen zer eginik. Denok genekien kontua zen.

- Il y a un produit merveilleux -esan zuen Frantsesak bat-batean, eta erreztatzen hasi zen, ahopean.

«Placez une marmite  
bourrée de dynamite  
quelle que soit la raison  
en faisant explosion  
la nouvelle ira vite  
car pour inspirer la terreur  
il n'y a rien d'meilleur  
qu'la dynamite!»

Isilik gelditu zen. Zorrotz begiratu zigun.

- Dinamita -esan zuen-. Dinamita behar dugu.

Besotik heldu ninduen.

- Eta hobe zure putatxo horrek ezer ez bada-  
ki -esan zidan, gogor estutuz.

Bi erdi egiarekin liluratu eta nik dena kontatuko niola esperoko zuen. Ezin sekula ase, dena jakin behar, eltzagorrak. Besoarena nola egin nuen, hori ere galdetu zidan. Nik hemen ezagutzen zen komuna bakarra, bakarka bisitatzen zela esan nion. Eguna argitzen hasia zegoen ordurako. Osteguna heldu zen barru aldeko mendietatik. Laster jaikiko zen Fermin, eta gu oheratu gabe, badiako arkupeetan. Tinko ekin nion, beste Komuna harenak, Pariskoak, entzun nahi nituela esaka; eta Adolphe Thiers hura nor zen galdezka. Baina Emilek nire kontuak entzun nahi zituen, edo ez zituen nire galderak erantzun nahi, bietako bat. Eta nire komuneko zuloko ibilerak kontatu nizkion. Baina aski ez, eta besoarena ere, nola egin nuen jakin nahi zuela esan zidan, eta nahiak behar bihurtzen zekien Emilek.

- Maniguan erdi galduta geundean, Santiago de Cubatik ez oso urruti, hiru edo lau kilometro-  
ra, baina nondik jo behar genuen asmatu ezinik.



Bost lagun gintuan sarjentuarekin. Bazituan egun batzuk erasorik gabe hirian, eta bideak zelatatzeraz bidali gintiztean. Dozena bat insurrekto mukizuk jo zigutean eraso atze aldetik. Bi akabatu genitian, eta ihesi abiatu zirela iruditu zitzaiguan. Sarjentuaren aurrean jarri ninduan. Babesik gabe geundean, bide ertzera botata. Zutitzen hasi zuan sarjentua. Ni harekin. Orduan tiroa irten zuan maniguetatik, tiro bakarra, hosto, adar eta laharren artetik. Sarjentua zulatuko zitean, nire besoetatik eta zorroetatik izan ez balitz. Airean hartuta eraman ninditean, zorroa eta mausera bertan ahaztuta, heriosuhar. Urdeak sanmartinetan baino odol gehiago galdu nian bidean. Bertan seko gelditu behar nuela pentsatu eta kordea galdu nian. Ez diat besterik gogoratzen, baina gaiztotu egin zuan; itxura hala dik behintzat. Adaxkak egiten diren bezala, ihartu egin zuan, eta kimatu egin behar zidatela erabaki zitean. Horrelaxe izan zuan. Sarjentuarengatik.

Aurreneko aldia zen inori kontatzen niola. Lotsatu egiten ninduen domina eman zidatela esan beharrak.

- Domina eman zidatean.

Algaratan lehertu zen Emile.

- Badakik okerrena?

- Domina letoizkoa izango zen, seguru.

Barre azal bat egin zuen. Ez zen, berez, barre egitekoa, ez zitzaidan barre egiteko moduko kontua iruditzen.

- Ez, zilarrezkoa izan behar dik. Ez zakiat seguru, baina hala behar dik. Gordeta zaukaat, badaezpada ere.

Zalantza egin nuen. Eltzagorrak dena jakitea merezi zuen edo ez, zalantzak izan nituen. Baina ordurako hitzen agintea galdua zuen nire gogoa.

- Sarjentu hura Tolosakoa duk. Hemengo Tolosakoa, ez okzitaniarra. Dugiolsen besoetakoa. Arrospide. Fernando. Gerra zibilean hasi zian karrera, peseteroekin, boluntario. Han ibiliko duk oraindik, Kuban, dagoeneko koronel egin ez badute behintzat. Edo insurrektoren batek lepoa egin ez badio behintzat. Putasemerik handienak igotzen ditiztek graduz.

Arrietarekin akordatu nintzen. Hortzak pitzatu beharrean estutzen ari nintzela konturatu nintzen.

Peseteroak nortzuk ziren galdetu zidan eltza-gorrak. Arretaz entzuten ninduen, gorputza ukondoan gainean jasota, nire arrazoiak entzuteko interesaturik balego bezala.

- Hojalateroak -esan nion-. Liberalak. Erreginaren aldekoak.

Ez zidan ulertzen.

- Hik aditu duk zerbait gerra zibilari buruz? Santa Kruz apaiza eta? Hemen izan den gerrarik ankerrena?

Baietz esan zidan, entzuna zuela zer edo zer.

- Eguneko pezetako soldata irabazten zitean liberalek. Isabelen zaleak bai, baina dirua zitean haiek ere errege. Pesetero sartu zuan Arrospide, boluntario. Traidorea. Ulertzen duk?

Baietz egin zuen buruarekin eta nik ja ezin nuen atzera egin, zalantzak izan edo ez, bukatu beharra neukan hasitakoa.

- Ez diat askorik hitz egin gure aita zenaz, ezta?

Ezetz esan zidan.

Haizea hartu nuen.

- Gu umeak ginela joan zuan gure aita Santa Kruzekin. Gogoan diat bitan itzuli zela etxera. Lehen aldiaz ez nauk akordatzen, umeegia ninduan. Bigarren aldiari gurdian ekarri zitean, izeia baino luze eta tenteago. Tolosan hil zutela besterik ez genian jakin; Tolosan hil zutela eta Fernando Arrospide deitzen zen pesetero mukizu batek atzeman zuela hilerrian. Geroztik esan izan zidatek, mandatu bat egitera bidali zutela herrira. Agiriren batzuk jasotzera bidali omen zitean.

Haizea hartu nuen berriro. Hortzak lasaitzen saiatu nintzen; gogorturik neukan matrailezurra. Esana zegoen.

- Placez une marmite, bourrée de dynamite  
-errezitatu zuen Frantsesak.

Eta dinamita behar genuela erabaki zuen. Ume batentzat eta emakume batentzat, dinamita. Frantsesak erabaki zuen, eltzagorrak.

Guk sinetsi egin genuen. Eta pentsatzen hasi ginem.

- La nouvelle ira vite-esan zuen Frantsesak.

Eta guk sinetsi, eta nondik lapurtu pentsa-tzeari eman genion.

Estudianteak atera zuen kontua, Aizarnako Katre Minarena. Lehengusuren bat omen zuen han, jaun ingeles batekin ingeniari ikasten ari zena. Harria zulatzekeo dinamita erabiltzen zute-la eta aukera-aukeran geneukala, esku-eskura.

- Baina nik ezin dut hartu -argitu zuen-. Nabarmenegia litzateke.

Zehatz asko lortuko zituela, arriskurik gabe, sorta bat lapurtzeko jakin beharreko guztiak, esan zigun. Berak ezingo zuela joan, baina. Zuzen-zuzen begiratu zidan Frantsesak.

- Il y a un produit merveilleux -esan zidan-. Zuretzako lana da, Sotero.

- Egingo diat, hik laguntzen badidak.

- Lagunduko nizuke gustura, Sotero, baina ezin dut. Hau zuretzako lana da. Nire adinarekin ezinezkoa da horrelako lanetan hastea.

Aitzakia ederra. Nik nabarmendu behar, bi kurrutako haiekin.

- Joango duk ba Maria Kristina!

Kasketa harrapatu nuen. Saiatu ziren arrazoiak eta argudioak ematen. Alferrik. Ez nengoen prest, ez nuen nahi, nekatzen hasia nengoen.

- Nik ere ezin diat gehiegi nabarmendu -esan nien, eta «Izorrai!» pentsatu nuen.

Laineza harturik nengoen ni ere. Horretarako behar ninduten ni. Zerbait egin behar omen zen, zerbait egin behar omen genuen. Ikusia zegoen nork lan egin beharko zuen. Astoak.

Asteak eman genituen nor baino nor, ez atzera, ez aurrera. Polaviejaren kontua aterako nien nik, mahaiaren gainean jarriko nizkien Martinez Campos eta Romero Robledo, labanaren aukera emango nien, beste pistola bat lortzearena.

Gero ni izango naiz egoskorra eta tematia, baina eltzagorra ere hisiaturik zegoen berearekin eta, ahariak topeka ikusteaz asperturik, Estudianteak, norgehiagoka hura ezin eramanez, pasakinak inprimatzea proposatu zuen.

*Maine* kondenatu hura nork urperatu zuen zen gutxienekoa, estadounidostarrak gerran sartu ziren azkenean. Frantsesa eta biok norgehiagoka tentel hartan tematurik genbiltzan, hitzetan katigatuta, ez atzera ez aurrera eta, bi-

tartean, gerrazaleek manifestazioak egin zituzten probintzia osoan, diru bilketak hasi zituzten herriko etxeek eta Diputazioak; pilota partidak iragarri zituzten: Mardura eta Takolo eta, han ibiliko ziren pilotaren atzetik zealdoka; prozesioak egin zituzten, santuak aurrean eta sinestunak atzean hartuta.

Zientoka emakumeren eta gizonen bizitzak airean zeuden; Kuba osoa zegoen dilindan. Arrazoi zuen Estudianteak; norgehiagoka egoista generabilen Frantsesak eta biok.

- Hara, zuekin ez dakit monarkiarik garbituko dugun, baina zerbait egin beharko genuke gerra nazkagarri hau bukatzeko, ez zaizue iruditzen? -gaztigatu zigun bizargabeak-. Paskinak inprimatu behar genituzke behintzat.

Puskatu egin behar zen, atzetik edo aurretik. Zer edo zer egin, hil ala bizi. Arrazoi zuen Estudianteak. Gure liskarrak hurrengorako utzita, paskinak inprimatzeko adostasuna egin genuen.

Behingoagatik aitzakia handirik jarri gabe, Frantsesak moldiztegia zabalduko zuela agindu zuen. Estudianteak bazuen zerbait idazteko abiltadea. Behingoagatik zerbait egingo zuen Oi-

nazearen Federazio Txakarrak, artean egoitzarik, armarik eta izen ofizialik gabe biltzen jarraitzen zuen arren, Lehenengo Internazionalarena baino zatiketa larriago baten aurrean egon arren, zerbait egingo genuen, poemak itzultzeaz eta zahagia betetzeaz aparte.

Zita egin genuen, goizeko lau eta erdietan, Plaza Berriko arkupeetan. Goizegi heldu ginen Estudiantea eta biok, eta plazaren kantoi banatan itxaron genion aitzaki jaunari. Frantsesa plazara iritsi aurretik sumatu nuen zekarren ardo kiratsa. Parera barrez-barrez etorri zitzaidanean, kargua hartzekotan egon nintzen, baina ez nintzen gai izan, behingoagatik aitzakia handirik jarri gabe onartu zuelako moldiztegiko atea zabaltzea. Sartu ginen, piztu zuen kriseilua, makurtu zen armairu handiaren aurrean. Parisko sasoi onekin akordatu zela esan zidan belarri atzera. Tailerrera sartu ginenean, «Hara hor neure astoa, Sotero, zurea baino egoskorragoa» esan zidan. Auskalo lorik egin zuen gau hartan. Ezin izan nion kargua hartu. Hala ere, moldeko letrak hautatzen hasi zenean, bala haiekin ez genuela birigarrorik ere zulatuko esan nion. Adar jotzea



zen, adar jotze serioa. Izan ere, aitzakia besterik ez zuen Aizarnara niri lagundu nahi ez izateko.

Bala haiek burua zulatzen zutela erantzun zidan, hara zer erantzun zidan, birigarroak.

Gero kriseilua pizteko eskatu zidan, tiradera etzanda jarri zuen armairu gainean, betaurrekoak jantzi zituen, antolatzailea hartu zuen ezker eskuan, aurrerantz makurtu zen, moldeko letrak hautatzen hasi zen eskuinarekin, eta «Pertsonak eta letrak antzekoak gara askogatik» esan zuen, eta bizargabea paper garraio jarri zuen, eta besamotza ate ondora bidali.

- Letra batek, huts-hutsean hartuz gero, ez du ezer esan nahi, ezin du ezer adierazi, ezin du ezer egin berak bakarrik, bakarrik ez da ezer -esan zuen.

Ardo kiratsa ateraino heltzen zen eta ni amorratzen nengoen ordurako. Gogoak ematen zidan, bera ate ondora bidali eta haren lekua hartzeko, gutxiago ez nintzela erakusteko. Zigarroa piztu nuen, zerbait erre beharrez. Konparazioak egiten jarraitzen zuen eltzagorrak.

Lana aurreratu zuenean, ate ondotik esan nion traste haiekin oheratzea besterik ez zitzaio-

la falta, eta hala ere ohea pittin bat berotuko zuela behintzat. Handiagoa botako nion, garaiz isildu izan ez banintz.

Eroarena egin zuen Frantsesak. Moldeko le-trek x luzera bat dutela azaldu zuen orduan. Ni s bat omen nintzen, eta Estudiantea I bat. Ondo azaldu zuen, akaso arrazoi ere izango zuen, baina arrabolari eragiteari utzi eta serio begiratu zion Estudianteak.

- Garrantzitsuena ahaztu zaizu, Emilio: zein letra zara zu? Esango diguzu?

Azkenean onartu zuen, letra bat hautatu beharko balu, g letra zela esango zukeela, g letra zela bera, eltzagorra.

Nik laster antzeman nion, eta galdetu ere bai, eltzagorrak zer ziren ba ote zekien. Ontzi harro huts burrunbatsuak direla eltzagorrak, esango nion gustura. Baina isildu egin nintzen, bakeagatik.

Inprimatze lanarekin bukatu genuenean, eskuak garbitzen zituen bitartean, aitzakiak asmatzen hasi zen eta bizargabeak eta biok bukatu behar izan genuen lan zikina kalean, aguazilak ihintza biltzera irten aurretik.

Geroxeago Bretxan aurkitu ninduen, Maria Kristinarekin disputa betean ari nintzela.

Estudiantea eta biok lanean aritu ginen bitartean, lo egingo zuen deabruak. Makarrak garbitu gabe zituen begi ertzetatik.

- Jainkoak egunon! -esan zidan, bizkarrean zaplada emanaz.

*Doazela Kubara aberaskumeak!* paskina irakurri nuen lurrian. Maria Kristinak lurrera bota zituen hazitarako patatak; eta ni lehertu egin nintzen.

Ferminekin lanak bukatu eta etxera heldu nintzen ostegun iluntzean. Etxekoandrea babak egosten ikusia nuen arratsaldean eta ez nuen salda katilukada beroa eta baba platerkada ederra besterik itxaroten. Baina han zegoen. Maizter nengoen etxera igotzeko eskaileretan eserita, han zegoen zain.

Goizean baino mozkorrago zegoen gauean, eskuetan lepoko zapi gorri askatua, magalean zatar paperean bildutako fardel bat.

Beste behin etorri zitzaidan etxera, fardelarekin orduan ere, dena lardaskatzen hasi aurretik. Kropotkin delako batek frantsesez idatzi eta berak gaztelaniara itzuli omen zuen liburu baten pasarte eskuizkribatuak ekarri zizkidan. *Conquista del pan* zuen izena Frantsesaren itzulpenak. Ordu asko eraman omen zion itzulpen lanak, baina gu ezagutu aurretik harekin entretenitzen omen zen. Paper txar haiek ekarri zizkidanean, gosea zer zen ba ote zekien, zirikatu nahi izan nuen gure zahagi handia. Baina ostegun gau hartan, barre egiteko gogo gutxi; ezertarako gogorik gabe harrapatu ninduen.

Esana genuen ez genuela besteon etxeen berri izango.

Frantsesak ordurako bazekien non bizi nintzen. Arrazoi gehiago handik ez agertzeko. Ez nuen ulertzen zertara etorri zen. Gerruntzetik labana atera, barruraino sartu eta bertan bukatzeko gogoia sentitu nuen.

Ekin eta bukatu.

Gero ikaratu egin nintzen neure burutazioekin, eta zer esan, zer egin, ez nekiela gelditu nintzaion begira.

- Salute, Sotero -esan zidan-. Gabon.

- Gabon, hiri ere. Zer? Eskuizkribu gehiago ekarri al dizkidak?

Ez dakit nola kontu egin nion neure buruari. Iruditu zitzaidan liburu zaharren batekin heldu zela, eta hasia nengoen nardatzen hainbeste paperekin. Papera jaten zuela ematen zuen. Papera handik hona eta hemendik hara garraiatu besterik ez zuela egiten ematen zuen. Papera eta paper gehiago. Paperak ez zuela jateko balio, esango nion gustura.

Baina barkamena eskatu zidan.

- Urduri nabil eta ez dakit zer esaten dudan -onartu zidan-. Azken aldian handikeria batzuk esan dizkizut... Eta barkamena eskatu nahi nizun.

Fardela luzatu zidan.

Nik ez nuen salda katilukada beroa eta baba platerkada ederra besterik espero gau hartan.

Ezker eskuarekin hartu nuen. Ez ziren papera, zer edo zer bigunagoa baizik, tela moduko bat. Zer ote zen galdetu nion, ez bainuen gerruntzetik labana atera eta zatar papera urratzen hasteko batere gogorik.

- Gordea neukan Michelleren gonazpiko bakar-  
karra -esan zidan.

Eskerrak eman nizkion, fardela besazpira bil-  
duta.

Seguru ote zegoen, ez ote zuen gorde nahi,  
galdetu nion. Negarrez hasi behar zuela ematen  
zuen.

- Zure lagunak hobeto baliatuko ditu -mukiei  
tira zien gorantz-. Gonazpikoek ez diete itxura  
onik ematen hildakoei.

Salda katilukada beroa neukan zain, baba  
platerkada ederra. Ezin nuen eraman gizon  
haren negarra. Damu nintzen, ez nengoen lasai.

- Mamu tankera hartzen dute gonazpikoekin,  
eta bisita egiten dizute gauean, hildakoek -zuti-  
tzeko ahaleginik ere ez zuen egin; ezingo zuen,  
saiatuta ere-. Mamu gehiegi dauzkat, Sotero.  
Uste dut garaia heldu zaidala batzuen batzuk lur-  
peratzen hasteko.

Erdirik ere ez nion ulertu, baina eskerrak  
eman nizkion berriro. Goizean jaikitzeke ordua  
laster iritsiko zitzaidala esan nion. Besarkada  
baldar bat eman nion, beso bakarrarekin, besaz-  
piarekin Michelleren gonazpikoaren fardelari no-

labait ere heltzen niola. Balantza egin zuen eskailburuan, hormaren eta bion artean eutsi genuen. «Gabon» esan nion, eta bakarrik utzi nuen, hormari helduta. Atarira heldu nintzenean, atzera begiratu nuen. Zambuluka zihoan bidean behera.

Ez dakit salda katilukadarik izan nuen gau hartan, ez dut gogoan zer afaldu nuen. Baina ohean, lo hartu ezinik, itzuli eta mahaiaren gainean Michelleren gonazpikoaren fardela ikusten nuen eta pentsatzen nuen, dinamita eskuratze-kotan, neuk egin beharko nuela lan zikina, eltzagorri ezer esan gabe. Besamotzak egin beharko zuen. Elbarri honek. Eta ezin nuen atsedetik hartu. Ohean itzuli, eta Angiolilloren sua nigatik itzaliko zela iruditzen zitzaidan.

Luzea izan zen ostegun hartako gaubeila ere.

**Begietan** neukan nola izan zen dena, begietan amarrua. Zozketako zotz luzeena Estudiantearentzat nola prestatu zuen.

- Surtara! Surtara soineko zaharrak! Errautsekin jantziko gara goizean! -oihu egina zen bezperan.

Bazekien zital hark zein bidali zuen surtara.

- Errautsetan hilko gara gaur! Beti hil garen moduan! -esana zuen bilauak.

Bazekien doilor hark, zein hilko zen, zeinek ihes egingo zuen.

Jainkorik ez zegoela gaztigatu bai, niri. Gero beretzat gorde zuen Jainkoaren lekua, zein surtara bidali eta zein salbatu erabakitzeko. Zer uste zuen? Utzi egingo niola koitadu hura urka-bilurrera bidaltzen? Utzi egingo niola, ni salbatzea erabaki zuelako? Esker oneko egongo nintzaiola koldarkeria harengatik?

Plazan itxaron nuen, arkupeen babesean, moldiztegia itxi zuten arte. Atzetik joan nintzaion, zer egingo nuen, zer esango nion, bete-betea jakin gabe. Jaranan bizi zela ikusi nuen; non bizi zen, han sartu zen, errentan izan behar zuen etxeko atarian, kaiaren gain-gainean. Ataria aztertu nuen, eta hurrengo goizean bertan itxarongo nuela erabakita joan nintzen.

Biharamun goizera arte.



Banekien goiz mugitzen zela, baina goizago nengoan ni bere etxeko atarian, eskailepean kakoturik.

Halako batean, atea sumatu nuen ixten. Gizona zkoaren oinetakoak entzun nituen oholetan behera. Bizkar gainetik nabaritu nituen haren oinak igarotzen, hezetasunak eta pipiek jandako oholak kraskatzen. Burua atera nuen gordeleku-tik, artez. Pausajea ezagutu nion. Bizkarretik salto egin nion, atera heldu aurretik. Hormaren kontra estutu nuen, zigorrarekin eman nion ukalondoan, belaunetan; lurrera bota nuen, belau-narekin eutsi nuen, saihetsak estutuz. Bizkarre-ko hezurren kraskatakoak entzun nizkion. Krak! egin zioten hezurrek, krak! txiki bat egin ziotela iruditu zitzaidan.

Intziri egin zuen. Ez nuen errukirik sentitu.

- Erabaki egin behar diagu! -esan nion belar-  
rira-. Hic et nunc!

Zaharra zegoen goiz hartan, aspaldian baino zaharrago. Zigorra bota nuen.

- Zotz luzeena ateratzen duenak berpiztuko gaitik errautsetatik! -esan nion.

Dardaraka zuen tipografo esku zaildua. Sanjoan bezperako igande gauean bezala.

- Gaur niri egokitu zaidak zotz luzeena -esan nion.

Labana atera nuen gerruntzetik. Erakutsi egin nion. Begien aurrean ipini nion. Erakutsi egin nahi nion, ankerkeria hutsez.

Negarrez hasi zen eltzagorra.

Orduan, seguru nago urdea bezala urratuko nuela orduan, Sakamantekasek bezala, atarian ahotsik entzun izan ez banu. Eskua zapaldu nion, derrepentean altxa nintzen, eskua zapaldu nion eta krak! entzun zen, kraskatako txiki bat.

Izutu egin nahi nuen.

Mina egin nahi nion.

Akaso, hil egin nezakeen.

Atea emakume heldu batek zabaldu zuen. Saskiak zekartzan besazpian. Begira gelditu zitzaigun.

- Altxa zaitez, aitona, benga -esan nion.

Besazpitik hartu eta gora tira nion.

- Esaten dizut ba nik, kontuz ibiltzeko eskaileretan.

Kanporantz bultza nuen.

- Esaten dizut ba, ja ez zaudela eskaileretan saltoka ibiltzeko. Izutu egin duzu emakume gaixo hau.

- Ez da ezer -esan nion emakumeari.

Lekua egin zigun kanpora irten gintezen.

- Ez da ezer. Ondo dago, baietz, aitona? Ez da ezer, lasai.

Txapela kendu eta arropak astindu nizkion Frantsesari. Kanpora atera nuen. Begira geneukan emakumea, etxean sartzera erabaki gabe.

- Albertorekin hitz egingo duk -esan nion kanpora irten bezain pronto-. Albertorekin hitz egin eta amarrua prestatu dioala esango diok. Esan egingo diok zotz luzeena heurea zela, eta ez duela zertan ezer egin. Esan egingo diok, amarrua izan zela, heuk kraskatu huela zotza.

Ez zuen baietz esan. Ez zuen ezetz esan. Ez zuen ezer esan. Oneratu gabe zuen, oraindik, odola. Arrastaka neraman, sanjoan bezperako igandean bezala. Ez zen ibiltzeko gauza. Negar egiten zuen. Errukirik ere ez zidan eman orduan zahagi zaharrak.

Hainbeste kontu eta komeria, poema eta trapu gorri, eta zertarako?

Urdeentzako bazka. Ozalea. Zer ginen ba, gu hemen eta haiek Kuban? Moldeko letra xehe eta xehatuak. Angiolilloren sua itzaltzen hasi zen. Estadosunidostarrek eta espainiarrek akordioa sinatu zuten. Laster pasatuko zen irla urdeen eskuetara. Zerrien hankazpitik, urdeen eskuetara. Urdeek bazkatuko zituzten Kuba eta anarkistak, eta kito. On Kaxildori ikasi nion pospoloaren kearen tankera hartua zuen Angiolillok. Alferrik ari ginen, ketua zegoen haren sua. Kare bizitan erretzen ari zitzaizkigun asmo guztiak.

Horregatik ez zidan lorik hartzen uzten Michelleren gonazpikoaren fardelak. Mahaiaren gainetik, fardelak begiratzen ninduen niri. «Ozalea besterik ez zara, Sotero», esaten zidan.

Bi beso eskatzen zituen zama hark, eta nik bakarra izaki.

Aitzaki jaunak gero eta gutxiago errespeta-tzen zituen asteazkenetako gure mezak. Bizar-gabeak ere nahiago zituen emakumeen azpiko brodatuak. Bizpahiru astez neroni bakarrik izan nintzen Oinazearen Federazio Txakarra.

Frantsesak nahigabea hartuko zuen gurekin, akaso, hainbeste denboratan «Jainkoak egunon!» esaka ibiltzen utzi geniolako, ohartarazi gabe. Ez zen, akaso, berriz azalduko. Florentzian itzuliko zen, hain estimatua zuen tipografo ofizioan gora egiteko, haize eroak utzita.

Oinazearen Federazio Txakarra urtzen ari zen, malkoak eguzkitara bezala, gatz zapore ez-deus bat utziz masailean.

Asteazkeneko ohiturari eutsi nion, hala ere. Eta Estudiantea azaldu zen hurrengo aldi nire arrangura guztiak kontatu nizkion.

- Batzuetan Marx eta Bakunin zaretela begitantzen zait.

- Eta hi? Zein haiz hi, astaputz hori?

- Ez haserretu nirekin, beti elkarri zipoka ari zaretela esan nahi nuen. Halaxe bukatu zen lehenengo Internazionala. Konturatzen zara?

Hasi zen, bere betiko kontuekin.

- Marxek dena jakin nahi zuen eta Bakuninek ez zion inori konturik eman nahi. Ikusten? Azkenean bakoitzak bere aldetik bukatu zuen; eta elkarri zipoka.

- Elkarrekin ezin bizia baino hobea duk, hala ere, bakoitza bere kasa ibiltzea. Hemen ibili gaituk gu, elkarrekin, eta zer egin diagu? Ezta ezer ere.

Hitz egingo zuela berak Frantsesarekin eta astamakiletara jartzeko agindu zidan, letrak idazten ikasteko asko falta zitzaidala iritzita.

Ezetz erantzun nion, nahiago nukeela Frantsesarekin ezer hitz egingo ez balu. Lebitaren paparretik heldu eta eltzagorraz benetan pentsatzen nuen eta nekien guztia kontatu nion.

- Biok egingo diagu -esan nion, lepotik askatuz-. Frantsesaren trabarik gabe.

Izerditzen hasi zen. Ezin genuela erantzun zidan.

- Zuk ez dakizu, Sotero...

Ez zuen bukatu, ezin genuela Emilio gabe, esan zidan. Eta gero arrazoiak topatzen hasi zen, ezin genuela esateko arrazoiak. Bere zigarro luxe eta fin haietako bat pizten saiatu zen, baina ez zuen lehendabizikoan asmatu.

- Aitak eskaera egin du, Madrilera medikuntza ikastera joan nadin.

- Biok egingo diagu -eraso nion berriro-. Hik esadak nola egin behar dudan dinamita lortzeko eta biok egingo diagu. Angiolilloren sua itzali aurretik. Urtebete baduk hil zutela, eta hemen gaudetik gu, pago honen azpian astamakilak egiten. Normala iruditzen al zaik?

- Oraintxe esan dizut aitak eskaera egin duela ni Madrilerako medikuntza ikastera joateko. Ez duzu entzun?

Astamakilak egiteko gogorik ez banuen, alferrik zegoela han, eta nire ikasketetarako ekarri zituen traste guztiak eta lebita besapean hartu, zutitu eta joan egin zen.

Pagoaren itzalaren azpian, bakarrik nengoen: Oinazearen Federazio Txiki-Txikia. Zubietan. Eta errekarik gabe.

Angiolillorena bezala itzali zen, pixkanaka, Jarranan piztu nuen gar txikia ere. «Heu izango haiz esku bakarrarekin dominatu nauen gizon bakarra» esaten zidan emakumeak uda atzenean ahaztu ninduen. «Gizon osoago» bati erreparatu omen zion, ezagutu nauen emakume bakarrak,

zalamandrana bihozgabeak. Fabore handiagoak esperoko zituen. Bazituen halako haizeak, izan ere. Mandazainek baino zaku zabalagoa dutela dendariak, zera.

Damu nintzen harekin beratu nintzelako. Jolasean ibilia zen, arrantzaleak eskasago den amuarrainarekin egiten duen bezala: amua bota, tira eta laxatu. Ez dakit nola ez nintzen lehenago konturatu.

Ez nien ezer esan adiskideei. Zertarako? Behingoz besoa libre gelditu zitzaidala aditzeko? Lotsagarri gelditzeko?

Aski nuen neure ezinekin.

Itzali ziren Angiolillo, Komuna eta beltzarana. Baina barruan sentitzen nituen irakiten denak. Erregai biziko ikatza behar zuten. Gauak hauspori eragiten zion, itzalita uste nituenak suak hartzen zituen; kandela itzaltzearekin batera, nigan argitzen ziren. Gauero Michelleren gonazpikoaren fardelean laburtzen ziren nire sosega ezin guztiak.

Lehen elurrak goiz iritsi ziren, neguan sartzerako. Amets zital, gaizto, ilunean esnatu nintzen, eldarnio betean. Leihoan elur pinportak meta-



tzen hasiak ziren ordu hartarako. Michelleren gonazpikoaren fardela hartu nuen. Pospoloak ere bai. Atarira irten nintzen fardel harekin. Su eman nion. Su eman nion nire barruko garrei eragiten zion hauspoari. Kosta zitzaidan pizten, baina gero erraz hartu zuen. Elur pilara bota nuen hartzak kiskaltzen hasi zitzaizkidanean.

Betetzear zegoen ilargia. Bi egun beharko zituen gehienez.

Hauspoa erre nuen, baina gau hartan ere ez nuen sosegurik izan. Zurrumurrak heldu ziren itsasoz bestaldetik. Urrian herriratu zen tolosar batekin hitz egin nuen. Arrietaren berri eman zidan. Balentria handiak zituen eginak Arrietak Kuban. Sarjentu gradura igoa zeukaten han. Ez zen gustura ibiliko, alajaina. Baina estadosunidostarren armak gelditzeko Arrieta batzuk beharko zituzten, eta Espainiako ejertzitoaren gehiena erietxeetan zegoen, kapilau eske, olioia erregutzen, tolosarrak esandakoari kasu emanaz gero. Estadosunidostarren bilaukeriez eta malmuzkeriez besterik ez zuten hitz egiten nagusiek. Jaitsiak zeuden hilabete batzuk lehenagoko legamia harroak, damutzen hasia zen bat baino

gehiago, hain nabarmen agertzeagatik. Angiolillo de balde hiltzen utzi nahi ez baguen, hura zen mementoa, berandu baino lehen.

Zutitu eta zigarro bat bildu nuen, lasaitzearen. Hura errez, gelako leihotik kanpora begiratu nuen.

Fardela; ez zen ikusten. Elurak azpian gordea zuen ordurako.

Goizean, esnatu beharrik ere ez nuen izan. Behiak marruka hasi zirenerako, espartinak lotzen ari nintzen. Hirirako bidea goiz hartu behar nuen, Estudiantea aurkitzekotan. Uste baino errazago atzeman nuen, ordea, itzuli handirik egin beharrik gabe. Urumeako erriberan egiten ari ziren etxe berrien artetik ikusi nuen etortzen, kontrako bidean. Hautsak harrotuz heldu zen, zaldi gainean, bere betiko lebita soinean. Zaldi gainean ibiltzeko ere ez zuen kenduko; ematen zuen besterik ez zuela.

Keinu egin nion, urrundik, gelditzeko. Uste dut ez ninduela ezagutu hasieran. Buila egin behar izan nion, eta orduan bai, neure pareraino etorri eta diosala egin zidan, zaldi nabar galantaren gaintetik jaitsi gabe.

Frantsesarekin bakeak egingo nituela esan nion, hala nahi bazuen; azaldu nion prest nengola horretarako, baina berriz biltzen hasi behar genuela, zerbait egin behar genuela, erdizka utzi genuen zer hura bukatu beharra zegoela, orduantxe zela memento egokia, Kuba galtzear zegoela Espainia, kolpe zehatza emateko mementoa zela.

- Bai. Aita hasia dago Kuban dituen inbertsioak Londresera eramaten.

Ez nekien Albertoren aitak... Akaso Frantse sak, zerbait... Nik ez nekien bizargabearen aitak Kuban, zera...

Totelka ikusi ninduenean, azalpenak eman zizkidan. Estudiantearen aitak diruak jarriak zituen azukre landatan eta itsaso bidezko garraio zenbaitetan.

Laztan egin nion muturrean zaldi nabarrari. Batzuetan ez nintzen konturatzen norekin ari nintzen, ahaztu egiten zitzaidan.

- Hobe izango duk, bai, Madrilera mediku ikastera joanda -esan nion, bat-batean konturatuta.

Laztantz en ari nintzen zaldi hark hobeto uler-tuko ninduen. Seguru. Alferrik ari nintzen koadri-la harekin. Neu baino ez nintzen akordatzen An-giolilloekin.

Baina Estudiantea ere makurtu egin zen. Zal-diari muturra laztandu zion hark ere.

- Ados -esan zidan.

Eta ezker eskua eman zidan, zalditik jaitsi gabe.

Hondoa jo nezan itxaron zuen, eskua eskain-tzeko.

Duda egin nuen. Ez nintzen berehalakoan konturatu. Baina besoa luzatu nion. Hurrengo igandean zita jartzeko esan zuen Estudianteak. Baietz esan nion. Frantsesarekin hitz egingo nuela esan nion. Utziko niola enkargua lantokian.

Zaldiari tira eta bidean aurrera jarraitu zuen. Bizkarra eman zidanean konturatu nintzen.

- Aizak! -egin nion buila-. Aizak! Hire lehen-gusu horrek... Aizarnako minatan segitzen dik lan-ean?

Baietz egin zidan buruarekin. Zalditik jaitsi gabe. Eta barreka joan zen, solibak garraiatzen

zitzen gurdi bat ezkerretik pasatuta. Atzera begiratu eta eskuin besoa jaso zuen agurtzeko, barre egiteari utzi gabe.

Michelleren gonazpikoaren fardela oparitu eta gutxira topo egin genuen Frantsesak eta biok. Ez nion aitortu nahi izan ez nuela fardelik zabaldu, eta lanagatik galdetu nion.

- Badakizu nik ere, zuk bezala, astoarekin lan egiten dudala? -esan zidan.

Alegia, astoa esaten zitzaiola moldiztegiko armairuari, altzari handi hari.

- Chevalet -esan zidan.

Berunez zamatuta egoten zen asto haren sabela.

Bidean lagundu zidan Loretoperaino, eta torturatzeko erabiltzen zen beste chevalet bat ere bazela esan zidan.

- Inkisizioak erabili zuen hemen.

Errazuren txaletaren parean gelditu eta imintzioka erakutsi zidan, besoak zerura jaso, eta hanka puntetan jarriz. Pertsona jartzen omen zuten esku hankak grilluekin lotuta, eta goitik

eta behetik eragiten omen zioten hezurak kras-  
katu arte, edo adiskideak, senideak, auzoak sa-  
latzen hasi arte. Hondartzatik, pasealekutik, be-  
gira geneuzkan udatiarrak. Postura lotsagarri  
hura uzteko eskatu nion Frantsesari eta aurrera  
eragin nion astoari.

- Honek ez dik ba inkisidore itxurarik, baina  
torturatzen naik ederki -esan nion, Maria Kristi-  
nari ziriarekin eraginez, abiarazteko.

- Bai. Gure tailerreko astoak ere torturatzen  
nau ni.

- Hire gerriek hartuko zitean Inkisizioaren  
asto hori! Badaukak zerbaiten premia -esan  
nion, erdi herrenka baitzihoan, tarteka gerriei  
helden ziela.

Baina Frantsesak bazuen galderei ez erantzu-  
teko ohitura zerri bat. Pentsatzen ari zen. Ikus-  
ten nuen pentsatzen ari zela.

- Beste chevalet bat ere bada, ordea.

Azaldu zidan margolariek haren gainean ber-  
matzen dituztela koadroak.

- Hitz bakarra, eta hiru esanahi.

Ulertu ezin nuen hunkidura klasea zeukan.

- Hirutasun santua bezala, orduan: gauza bakarria hirutan eta hiru gauza bakarrean -erantzun nion, On Kaxildoren lezioekin gogoratuta.

Barre egin zidan, baina ez nuen sentitu; bazekien ez nintzela serio ari. Nik banekien ez nintzela serio ari.

- Bai, Sotero, larru bakarrean hiru pertsona izateko aukera.

Ez nekien zer esan nahi zuen. Airean eragin nion ziriari.

- Hala ere, Maria Kristinarenak baino belarri motzagoak izango ditiztek chevalet horiek guztiek.

Barre egin zuen, algara naro ustekabeko bat, ahoaren goi aldeko lau ebakortzen hutsunea agerian utziz.

Hortz haiekin akerra ematen zuela esan nion.

- Sotero, ni ez naiz deabruaren mezularia -esan zidan barregura kalmatu zitzaionean.

Ondarretako tunelaren azpitik gindoazen.

Oparitu zidan fardela ireki al nuen galdetu zidan.

Ezetz erantzun nion.

Derrepente tristatu zela iruditu zitzaidan. Lepoko zapi gorria askatu eta aurpegia pasa zuen harekin. Begiak igurzten zituela iruditu zitzaidan.

Tuneletik argitara irten ginen laster.

- Hara, hor zagok nire zeruaren fabrika!  
-esan nion, kontua aldatzearren.

Ez zuela ezagutzen ohartu nintzen, eta Ezte-nagaren pospolo fabrika seinalatu nion ziriarekin.

- Donostiari fosforoa falta zaiola? Hor daukak behar duan guztia.

Kubaren independentzia eta jela gogorak eka-  
rri zituen urte berriak. Maria Kristinak jan behar  
ez zuenen bat jan zuen. Inoiz edo behin hozka  
egin izan zien parean harrapatutako galtzei edo  
txapelaren bati. Ez dakit zer irentsiko zuen,  
baina kalte egin zion. Haginaren adaxkak, akaso,  
arratoientzako pozoiren bat, ez dakit.

Jaulis etorri zitzaidan etxera. Arnasestuka  
esan zidan Maria Kristina hesteak bota beha-  
rrean egon zela gau osoan, eta ezin zutela gehia-  
go altxa. Lasterka joan ginen Eizmendiren ukui-



lura. Iritsi ginenerako, joanda zeuzkan indarrik gehienak. Ezin zuen burua altxa ere egin, baina begiratu egiten zidan, bere begi handi, ilun, bustiekin. Belarriekin keinuren bat egiten zuen, baina ez zuen indarrik ezertarako ere. Triste zituena begi handiak.

Ulertu balu moduan. Baleki bezala.

Egun hura itxaron genuen, badaezpada ere.

Hurrengo goizean ukuilura jaitsi ginen Fermin eta biok. Lotan zegoela ematen zuen, edo lotan zegoela pentsatu nahi nuen. Makurtu ere gabe, ostiko batzuk eman zizkion Ferminek, eta asto berria ekarri beharko zela esan zuen.

- Aurreratuko diat nik dirua.

Ez nuen onartu. Ez dakit zenbat denboran aritu beharko nuen hutsaren truke harentzat lanean, astoa ordaintzeko. Astoak bezala lan egin, astorik gabe jarraitzeko; negozio urria.

- Ekar ezak astoa, nahi baduk, baina ez diat nik hartuko -esan nion, astoaz gainera mandazain berria ere beharko zuela zehaztuta, eta joan egin nintzen.

Sukaldera igo eta etxekoei esateko denbora izango zuen, ez gehiago. Entzun zuen bezain

azkar, tximistaren pare, atzetik lasterka etorri zitzaidan Jaulis.

- Soterooo! -buila egin zidan.

Umea zen artean. Mukizu arraioa.

Gainera salto egin zidan eta airean hartuta besarkatu nuen.

- Lasai, kaskurrio. Etorriko nauk bisitan tarteka.

Lurrean utzi nuen. Ilea haztatu nion.

- Ez zara Ameriketara joango! -esan zidan, erdi intzirika.

- Ez diat uste. Baina, joango banintz, abisatuko nitek.

Ameriketan egona nintzen lehenago ere. Joatekotan, joaterik banu, joan beharrik banu, Parisera joango nintzateke, akaso. Baina hori ez nion Jaulisi kontatuko.

Zerbait behar eta, morroi hasi nintzen maizter nengoen baserrian. Etxekoandreak fedea eta karitatea zituen ugari, eta lanak eskas. Beso bakkarrarekin arituta ere, denbora aski izan nuen Estudiantearekin beste lan batzuk aurreratzeke; baita hark etxerako ematen zizkidan lan nekosoak egiteko ere. Bolada hartan ikasi nuen irakur-

tzen dakidan apurra. Baina azkenerako errukitu egin nintzen nire etxekoandre errukitsuarekin. Ez zuela morroi beharrik jakinarazi nion, ez zegoela han niretzako lanik. Hainbesteko mesedeak egin zizkidan. Ezin nuen etxekoandrearen ugaztetik bizitzen jarraitu.

Ez zegoen erraza lana aurkitzen. Elbarrientzat zailago. Inork ez zuen nire modukorik enplegatu nahi. Barre ere egin zidaten baten batzuek, asko gorde gabe; ez dauzkat berehala ahazteko.

Gainera, bakea sinatu zuten estadosunidos-tarrek espainiarrekin. Gure soldaduak etxera itzultzen hasi ziren, zamaontzietan pilatuta, arratoiaren artean. Irabazleen jabetzara pasatu zen irla. Bukatu zen gerra eta soldadu ohiek bideertzera salto egin zuten, lapurretara, eskera, kantura, errukira.

Bertso berriak egiten hasi nintzen haietako batzuentzat.

«Kuba'tikan etorri  
giñaden gaztiak,  
nola arkitzen geran  
guziro tristiak,

errukitu zaitezte,  
euskaldun maitiak,  
ikusirikan gure  
begi bitartiak.»

Bazter askotan topatzen nituen, gehienak ni baino okerrago eta tristeago zebiltzanak, bi besoak osorik eduki arren. Elbarriak ere baziren: itsuak, herrenak, gaixoak... Gosea zuten etsai gaiztoena, hala ere.

Bertso berriak egiten hasi nintzen, eta opari ematen nizkien, erruki eskea janzteko. Aguazilek edo mikeleteek aurrean hartuta bidali aurretik, haiekin hitz egiten nuen, aldarterik izanez gero, edo baso erdia hartzera gonbidatzen nituen Ramirorean, patrikan dirurik izanez gero.

«Emen txit umilla  
bada gazteriya,  
nola ez du izango  
gure errukiya?  
Nork ukatuko digu  
txakur bat aundiya,  
kentziagatikan

guri miñ-oriya?»

Arrietarengatik galdegiten nien. Batzuek eza-  
gun zuten, besteek ez. Kanoikada batek lehertu  
zuen Santiagoren defentsan, batzuen esanera;  
maniguan ihesi hasi eta desagertua zen, besteen  
iritziko. Eskale aldra hartan ez nuen topatu  
behintzat. Ramirok ere ez zuen haren berririk.  
Aberriaren batasunagatik hila izango zela esan  
zidan behin. Zakurraren ipurtzulora bidaliko  
nuen, baina ez eskailerapeko hartara, zakurra-  
ren ipurtzulora baizik.

Frantsesarengatik ere galdetu zidan Ramirok  
negu hartan, eta Estudiantearengatik.

- Ez ditiat aspaldi ikusi -erantzun nion-. Zer  
ba? Hemen egon al dituk?

- Hobe haien berririk ez baldin baduk -esan  
zidan-. Jende hori ez duk parte onekoa.

Bazen parte okerragoko jenderik. Heroi gisa-  
ra agurtu zituzten arren, soldatarik gabe buelta-  
tu zen soldadu aldra harekin batera, kategoria  
handiagokoak ere itzuli ziren Donostiara. Eta or-  
duko ailegatu ez zirenak laster iristekoak ziren.  
Bueltatu zen Dugiols, Filipinetako heroia handia,

euskaldunon izena munduan edertu zuena. Denek loriatzen zituzten, ezbairik gabe, haren balentriak eta haren tenplea. Gizonaren graduko harrera prestatu zion probintziak.

Faltan sentitzen nuen Frantsesa. Gustura adituko nituen zahagi zaharraren «Buvons!» haiek, Ramiroreanean, Arrietaren eta Potxoloren muturrean: «A l'indépendance du monde!».

Bolada makala izan zen. Eskas zebiltzan lana eta jatekoa. Dirua bazegoen heroi handiei harre-rak atontzeko, baina azukrez betetako ontziek Donostiako kaian sartzeari utzi zioten. Zaila izan zen negu hura, Kubaren independentzia eta jela gogorak ekarri zituen.

Jelak berdin honda ditzake baratzeak, garaiz kanpo egiten badu. Baina tamaina egokian eta garaiz egiten badu, lurreko zomorroak garbitzeko eta belar txarrak ihartzeko, ez da botika ho-berik.

Urte hartako jelak tamainan eta garai ego-kian etorri ziren. Orduan aurreratu nuen irakur-tzen dakidan apurra, orduan itzuli nintzen bertso berriak egitera, aspaldiko partez, eta bide zuzenetik zihoan Estudiantea eta bion arteko lan isila

ere. Hotzak lurrak garbitu eta neguak udaberri-rako bidea egin ahala, Oinazearen Federazio Txakarra lehengora itzultzen hasi zen. Igandetan biltzen hasi ginen, Zubietan. Ezin genuen hutsetik hasi, baina trukean bagenekien zer emango zuen gutako bakoitzak, bagenekien bakoitzari zer eskatu ahal zitzaion, noiz estutu, noiz laga bakean.

Frantsesak lana aurkitu zidan, haziak saltzen zituen Donostiako gizon alai eta axolagabe baten dendan. Nagusia kaskarin samarra izanagatik, lana samurra zen, eta garbia. Zaku txikiak bete, zaku txikiak pisatu, zaku txikiak kobratu. Noizean behin zamatu behar izaten ziren karga astunagoak, edo txukundu behar izaten zen almazena. Baina hutsa, ordura arte izan nituen asto lanekin alderatuz gero.

Estimatu nuen Frantsesaren mesedea.

Baina egiazko lanak Estudianteak eta biok aurreratu genituen.

Frantsesari lehengo eta betiko nire kontu haiek esaten nizkion, hobe litzatekeela Dugiols zelatatzea, edo Polaviejari begiratzea, edo akaso markesen bat barrandatzea. Bere betiko erreto-

likarekin erantzuten zidan, gorago jo beharraz aritzen zen, pitxerrari ondo helduta, badaezpada ere.

Distraitua geneukan Zubietan, igandetan, gure eltzagorra.

Horregatik harritu zen dinamita lortu genuela esan genionean.

Begi mozkortiak piztu zitzaizkion eta ez genuen gehiago bakerik eduki. Dena jakin nahi zuen aitzaki jaunak: nondik eskuratu genuen, nola izan zen, nork zeukan, zenbat; eta data jarri behar genuela, lekua aukeratu, dena prestatu, dena ondo lotu eta, batik bat, zera erabaki:

- Zeinek?

Nork piztuko gintuen errautsetatik, alegia.

Ez zuen denbora askorik behar izan dinamita berak gordetzea komeni zela sinetsarazteko. Estudianteak segituan heldu zion amuari. Pasatakoak pasata, ez dakit nola onartu zion, ez dakit non zeukan burua, medikuntzetan edo lurrin gozoetan. Gogor egin nion, ez itsutzeko, dinamita neuk gordetzea hobe zela, eta niri uzteko eskatuz. Baina, sasoi onenetan bezala, elkar hartuta



zeudela ematen zuen, nire kontra, bizargabea eta eltzagorra.

Oraindik eta zailagoa izan zen nola erabakitzea. Ez genuen berdin ulertzen eginbeharrekoa eta ez zen samurra ados jartzea. Gutako bakoitzak bazituen bere ñabardurak. Estudianteak ez zuen garbi ikusten printzearena, baina gainerakoan ados zetorren Frantsesarekin. Nik ez nuen garbi ikusten ezer, baina okerrena iruditzen zitzaidan geure buruak entregatzea, ihes egiten ere ez ahalegintzea. Frantsesa zen argien ikusten zuena. Baita ezer egiteko borondate gutxien zuena ere. Luzamendutan aritzen zen.

Nik gogora ekartzen nien dinamita nork atera zuen. Baina Estudianteak ere bere parte aaldarrikatzen zuen zeregin horretan. Eta Frantsesak ideia norena izan zen galdetzen zuen. Bakoitzak bazituen bere merituak.

Nagusi gehiegi asto bakarrarentzat.

Baina bakarka ez zen errazagoa izango eta, azkenean, nolabait adostu genuen ezin genuela pasatzen utzi uda hura eta, aukera izanez gero, abuztuaren 8an egingo genuela egin beharrekoa. Angiolilloren bigarren urteurrenean. Sine-

tsia nengoen amarruren bat zerabilela Frantse-  
sak; hezurrekin lurra jo arte mozkortzea eta libu-  
ruak jatea, beste asmorik ez zuela; ahoa hitz po-  
toloz bete arren, nahiago zuela oilaskoz eta  
ardoz beterik; eltzagor koldar alaena; aitzaki  
jauna.

Hizketan eta hizketan hasten zen, ezer esan  
gabe. Gai zen orduak eta orduak zentzugabeke-  
riak, bata bestearen atzetik, esateko. Ordurako  
nahasten hasia egongo zen akaso.

- Erabaki egin beharko dugu, bestela... -esa-  
nez hasten zituen mahaiaren bueltako igandeko  
bilerak, eta gero airean zintzilik uzten zituen gal-  
dera guztiak, paradisuko beste sagar debekatu  
haien antzera.

Horregatik harritu nintzen sanjoan bezperako  
igande hartan, nahita ere edukiko ez lukeen  
mozkor piura harekin lurrean aztarrika hasi eta  
hiru zotz muturraren aurrean jarri zizkigunean  
Estudianteari eta bioi.

Horregatik haserretu nintzen eltzagorraren  
ukabilaren barruan krak! egiten entzun nue-  
nean, zotzik laburrena atera, eta «Kaben zotz!»  
faltsu hura esan zuenean.

Sanjoanetako istiluaren ondoren ez nuen gehiago korajerik bildu Frantsesak aurkitu zidan lanera itzultzeko. Damutu nintzen ederki nire ira kolpearekin. Lastima zen hazi dendako lana uztea, baina zer aurpegirekin joango nintzen astelehenean, deus ere gertatu ez balitz bezala, plantak egitera? Adiskideak ziren dendako nagusia eta eltzagorra, tarteka behintzat elkar hartuta ibiltzen zirenak. Nola, zer arrazoirekin, azaldu behar nion ia-ia zahagia erditik urratu nuela? Nola azaldu, dena esan gabe?

Igandean bisita egin nion Fermini. Ez zegoen etxean. Emaztearekin hitz egin nuen. Gezur batzuk esan nizkion, lanetik bota nindutela, elbarria nintzelako gutxiesten nindutela; handikeria batzuk. Nire alde egingo zuela agindu zidan.

Gizon zintzoa nintzela.

Astelehenean bertan, dendako nagusiari azaldu nion ez nuela itzultzeko asmorik.

- Ez nauk ohitzen, egun osoa denda barruan -esan nion.

Ez zidan gehiago galdetu, eta eskerrak.

Kontuak egin genituen eta Loiolarako bidea hartu nuen atzera. Fermin Eizmendi jaunarengana berriro. Emazteak beratua zuen ordurako. Jaulisek ere esango zion zerbait, seguru. Sukaldeko zizeiluan eserita harrapatu nuen, gazta puska batekin hamaiketako egiten.

Barrabilei hozka egin eta makurtu egin behar.

Egin genuen nolabaiteko tratua. Ez nengoen protestan hasteko kondiziotan.

Jaulis poztuko zen, akaso. Nik banituen hura baino lehenagoko kontuak. Ez nengoen dantzarako. Kontuak nituen kitatzeko Frantsesarekin. Eta kitatu nituen, portuko etxe hartako atarian. Ez zuen Jaulisek asko susmatuko nola ibilia nintzen. Gogoak ematen zidan horregatik pozten zela ni ikusteaz, berriro Eizmendirekin lanera itzuli nintzelako pozten zen bakarra zela Jaulis.

Alde batera, lasaitua hartu nuen, Frantsesaren malmuzkeria baldar haiek denak agerian utzi nituelako.

Bestera, uste osoa nuen, hurrengo igandean ni bakarrik agertuko nintzela Zubietara. Egin zi-

tuela Federazioak egin behar zituen guztiak. Akabo zela.

Frantsesa ikusten nuen, izaturik, Florentziarako bidea hartzen. Estudiantea ikusten nuen, ikaraturik, Madrilerako trenean. Negar egingo nukeen, haserre egon ez banintz. Joanak zirela pentsatzen nuen, denak joan zirela.

Ordurako neronek ere beldur gutxi, dena bukatu eta lehengo bizimodu petralera itzultzeko. Atzean utzi nuen hartan ez zegoen guraririk, baina ezta traiziorik ere. Gardenagoa zen dena. Errazagoa.

Baina hurrengo igandean azaldu egin nintzen Zubietara. Itxaropenik gabe, baina han nengoen esandako ordurako. Tabernan salda beroa eskatu eta kanpoko petrilean eseri nintzen. Eizmendi jaunak alokatu zidan asto berria nuen gogoan. Argi-argia zen, zuria kasik. Ez dakit nondik, Federarri behar niola okurritu zitzaidan. Federacion deitza pentsatu nuen, baina luzeegi gelditzen zen, aukeran. «Gure Federazioak izenik gabe ahitu behar badu, sikiera astoari izena emateko balio izango dik», pentsatzen nuen. Fede ondo zegoen, motza zen, eta Federiko esan nahi zuela

pentsatuko zuen jendeak. Hainbat hobe; galdera gutxiago.

Astoa neure kasa bataiatzen ari nintzen hartan agertu zen Estudiantea, bere zaldi nabarraren gainean. Hala ibiltzen ginen, batzuk gure asto kontuekin arrastaka, eta besteak zaldi gainera igota.

Aulkitik jaitsi eta diosala justua egin zidan. Ilun zuen begitartea. Bridak enbor ihar baten bueltan bildu eta komunera joan behar zuela esan zidan.

- Pariskora? -galdetu nion, arrakasta handirik izan ez zuen broma tristea eginez.

Kasu handirik egin gabe baztertu zen tabernaren atze aldeko zoko batera. Estudiantea eskuak beteta lanean ari zela agertu zen Frantseza, neure bizkar aldetik. Ez dakit zergatik iruditu zitzaidan aspaldi zegoela han, pilota plazaren kontrako ertzean, guri begira. Susmo hori hartu nuen.

Bisaia zurrunarekin elkartu ginen hirurok pagoaren itzalpera. Garesti zeuden hitzak. Zer edan edo jan nahi zuten galdetu nien.

- Soldat forçat a pas, jamai plan portat lo sac-erantzun zuen Frantsesak.

Ez genuen ezer ulertu, eta berritik hasi behar izan zuen aitzaki jaunak esplikazioak ematen.

- Gure herrian esaten da, derrigortutako soldaduak ez duela gerla txukunik egiten esateko.

Barkamena eskatu zion Albertori. Amarrua aitortu zion.

Urduri zegoela esan zigun. Erabaki beharra zegoela eta ez zuela inork erabakitzen eta zer-bait egitea pentsatu zuela. Gu biok elkar hartuta genbiltzala, bazterrera utzi genuela dinamitaren kontuan. Mila arrazoi eman zituen, eta bat bera ere ez. Baina, azkenean, «Ez baduzu gogorik, ez duzu zertan ezer egin», esan zion Estudianteari.

Harekin aski zen niretzat. Ez nuen gehiago espero.

- Eskertzen dizut zintzotasuna -esan zion Estudianteak.

Astoa bataiatzeaz aparte, ez nuen gauza handirik espero igande eguerdi hartan. Ni bakarrik agertuko nintzela uste nuen behintzat eta.

- Eskertzen dizuet dena -jarraitu zuen bizargabeak-. Baina pentsatzen eman dut aste osoa.

Eta egin egingo dudala erabaki dut. Bai, neuk egingo dut.

- Ez daukak ezer egin beharrik -moztu nuen-. Amarrua izan zuan, ez al diok aditu?

- Lasai, Sotero. Badakit amarrua izan zela. Zer uste duzu? Ez nuela nabaritu nola kraskatu zuen zotza? Baina aste osoa izan dut pentsatze-ko, eta baietz erabaki dut. Neronek egingo dudala.

Haizea hartu zuen.

Mutu geratuak ginen Frantsesa eta biok. Petrilean eserita, burua kolkoaren kontra estutu eta hartxintzarrekin jolasean ari ziren bere oinei begiratu zien Estudianteak.

- Acta est fabula -esan zuen, ordura arte sumatu genion bozik helduenarekin-. Ez badut nik egiten, ez du inork egingo, ezta?

- Sator-zulotik aterako gaituk astelehenean.

Bekainak altxa eta kopeta handi hura zimurtu zuen Frantsesak. Trumoiak jo zuen taberna kanpoan, eta hara joan zitzaion burua.



- Satorrak bezala -azaldu nion, besotik helduta-, inor konturatu gabe aterako gaituk argitara. Parisen bezala.

- Pariskoa ez da berriz gertatuko -erantzun zidan-. Gainera, jakin egin behar izaten da lepoa noiz luzatu.

Ate aldera egin zuen keinu buruarekin.

«Acta est fabula» esan zuen. Akabo kontuak eta komeriak. Nik asko espero gabe Estudiantek esan zituen hitz haiei bueltaka aritu nintzen. Fabula hitzak errima politikak zeuzkala okurritu zitzaidan. Eizmendirengana nindoan, Federekin, bertsoak osatzen:

- Burla, degula, eztula...

Puntu erdiren bat ere osatua neukan:

- Acta est fabula,  
ezingo digu berriz  
iñork egin burla...

Inoiz salduko eta ziurrenik inprimatu ere egingo ez nuen bertso sorta baterako bertsoak zetozkidan, goiz hartan. Ia-ia zuria izateraino argia zen asto berriarekin nindoan, txistuka. Oinez nindoan, Federekin, puntuak asmatzen:

- Garbituko diogu  
kontrako eztula,  
lara lara lara la  
acta est fabula...

Aurrez aurre heldu zen gizonari erreparatu nion. Eskuak patrikan sartuta eta hortzetan zotza zuela heldu zen Amarako bidetik. Zamarra bizkarretik atzera botata heldu zen gizon hark Arrietaren pausaje bera zeukan.

- Ez al diok lagunari kasurik egin behar! -orro egin zidan, parean tokatu ginenean, estutu bortitza emanaz.

- Sarjentua nauk orain, argi ibili nirekin.  
Begia keinatu zidan.

- Estudiantina antolatu behar diagu gerrako ezinduentzat.

«Zer uste dute moro zar oiek:  
española garaitzia,  
gure kopeta beren indarrez  
umill goiberatutzia?»

Arnasarik hartzen ez zidan utzi eta lepotik tiraka ari zitzaidan dagoeneko, bertso txar haiek kantatzen.

- Izen emango diat estudiantinarako.

- Zer estudiantina?

- Dirua bildu nahi diagu gerrako ezinduentzat. Hiretzat ere iritsiko duk zerbait.

Lehen bezain zakar kantatzen zuen, ez zitzaien ahotsik beratu.

«Kubara goaz Euskal-Erriko  
seme leial t'agitzuak,»

- Ezin diat. Lanpetuta nabilek. Asto berria zeukaat, eta hura pagatzeko beltz lan egin beharko diat.

- Hau al duk hire asto berria? -galdetu zidan, interesa izango balu bezala.

Sabelpea haztatu zion, esku zakar haiekin.

- Bai. Fede jarri zioat.
- Abandonatu egin al hau Maria Kristinak?
- Hil egin zuan.

Eskua Federen sabelpetik atera eta kantuari ekin zion. Ez zituen bertsoak gogoratzen. Nahi zituenak bakarrik kantatu zizkidan.

«Goazen, mutillak, tximistan oiñez  
odoi beltza urratzera,»

- Izen emango diat orduan. Astelehenean bilduko gaituk.
- Astelehenean ezin diat, esan diat lehen ere. Lanpetuta nabilek.

Frantsesak esan zuen astelehena egun egozia izan zitekeela, entzun zuela zerbait, Gaztelura igoko ote ziren astelehenean, Siciliakoei bisita egitera.

- Ezin didak ezetz esan. Gainera, musikaz dakien norbait behar genikek.
  - Izango duk nik hainbeste dakienik.
- Ez zuen ezezkorik onartuko.

- Hi, txikito, ibil hadi kontuz nirekin, sarjentua nauk orain, ez bahekien ere -esan zidan, badaezpada ere.

Barre egin zuen, baina besoa txindurritzeraino estutu zidan. Astelehenean Ramirorean egin zutela zita esan zidan, eta han joan zen, gonbita edo mehatxua, zer egin zidan argitu gabe.

Acta est fabula. Badakit pentsatu nuela. Ez dut uste esan nionik.

Heldu dira soka mutur guztiak korapilo baka-  
rrean lotzera, bukatzear dago kontakizuna, eta  
hala ere Estudianteak hisiatuta jarraitzen du ira-  
kurtzen eta idazten ikas dezadan. Zenbat aldiz  
saiatu ote da bi urte hauetan? Baina alferrik da.  
Lepo gainean dudan arroka tzar honekin alferrik  
izango da, noski. Eta hala ere gaur berriro saiatu  
da, zakurraren ipurtzuloan Frantsesaren zain  
eserita geundela, beste ahalegin bat egin du.  
Gutunazal bat atera du lebitaren barruko sakela-  
tik, eta zirriborro batzuk egin dizkio lapitzarekin.  
Bukatu duela iruditu zaionean nire aldera itzuli  
du gutunazala. Ezetz egin diot buruarekin, lepo  
gainean dudan arroka tzar honekin, ez dudala  
konprenitzen, nekaturik nagoela, ez dudala inoiz  
konprenituko, uzteko lasai, heldu direla soka  
mutur guztiak korapilo bakarrean lotzera.

Madriilen onartu al duten galdetu diot, alda-  
tzeagatik. Baietz egin dit buruarekin eta liskar  
inozoan hasi gara gero.

- Maingu mandoa! -esan dit azkenean, minduta.

Barre egin diot, igarri diodalako zer esango zidan. Hain ditu agerian pentsamenduak.

Orduan makurtu da nigana eta esan dit astelehenean izango dela, goizeko zortzietan. Frantsesak esan bezala. Bazekien zerbait eltzagorrak.

Tximeletak, inurriak edo puzker itoren bat hasi zait irabiaka urdailean, kontuak egin eta bost egun baino ez direlako geratzen astelehenarako. «Bost egun eta c'est fini», pentsatu dut. Patrikatik kutxatxo atera, Hohnerra mahukan igurtzi eta Baracoatik ihesi, azukre kanaberen artean gordeta, moro beltzei ikasitako kanta jotzen hasi naiz orduan.

«Maria Cristina me quiere gobernar...»

Estudianteari ez zaio gustatu eta utzi egin dut. Urduri dago bizargabea, eta arrazoi du, ez da komeni. Kuban sarjentu gradura igo zutenetik legamia baino harroago dabilen Arrieta horrekin ezin duinork fidatu. Berandutzen ari da gainera,

eta Frantsesa ez da ageri. Urduri jartzen hasi gara, Estudiantea ni baino gehiago. Konturatuta nago, ordea, eta Frantsesari nik itxarongo diodala esan diot; maiteñoaz despeditzera joateko, nahi badu.

Esan badiot esan, konturatu naizenerako bakarrik gelditu naiz zakurraren ipurtzuloan eta aste erdiko diruak bota ditut Ramiroren mostrodore gainera.

Azkenean, taberna itxi behar duela, eta esan egin behar izan diot Ramirori, ez gogoz, baina esan egin behar izan diot, igandean, goizeko hamarretan, Atotxako frontoian egongo garela Estudiantea eta biok, pasatzeko abisua Frantsesari.

Apropos aldatua genuen biltzeko eguna. Ahaztu egingo zitzaion akaso.

Frantsesaren itzalari segika pasa dut aste osoa, baina igandean Atotxako frontoiaren kanpo aldean Estudiantea eta biok elkartu gara, eta alferrik ari garela esan dit bizargabeak.

- Ez da etorriko -esan du, tabakoaren kea sudurretik isurtzen zaiola.



Petrilean eseri eta zigarroak erre ditugu. Itxarroteak merezi ote duen galdetu diot Estudianteari.

- Saldu egin gaitu, Sotero, saldu...

Frontoiko pilota hotsak isildu egin dira. Eta gaurko galtzailea nor izan den jakin gabe etsi behar izan dugu.

Lasaitua hartu du Estudianteak. Zama ederra bota du gainetik.

Pentsatu dut jaiki egin behar genukeela petriletik, lekutu, ospa egin, ezkutatu, Argentinara joan, larreratu, Frantziara hanka egin, sasiratu. Azkar gainera. Baina galdu egin dugula onartzea izango litzateke petriletik altxatzea orain. Ez dugu altxa nahi. Dena amaitu aurretik amaitu da dena, eta hemen gaude gu, petrilerak iltzatuak, umezurtz gaudela onartzeko indarrik gabe.

Bi urte, kare bizian erreak.

- C'est fini -epaitu du Estudianteak, apropos gordeak nituen puruetatik eskaini diodanean.

Min eman didate hitz haiek, traizioa begien bistara ekartze horrek.

- Esan nian -ekin diot orduan-. Esan nian hobe zela dinamita nik gordetzea.

Hortik aurrerakoa berez etorri da. Mozkortu egin gara, lotsarik eta korajerik gabe.

Asteazkenean *La Voz de Guipúzcoa*k ekarri du Maria Cristina, erregina anderea, eta Alfonso XIII., errege umea, Gaztelu mendira igo zirela bezperan, Sicilia erregimentuaren garnizioari bisita egitera.

Madrilerako trena hartu aurretik topo egin dut Estudiantearekin. Nik txapela eta hark gimbaila erantzi ditugu, eta besarkatu egin gara. Madrilerako doa bizargabea, medikuntza tituluak eta emakumeen galtzariak konkistatzera.

Gehiago ez pentsatzeko joandakoari buruz, esan dit. Izan zenak eta izan behar zuenak ez dutela axolarik gehiago. Aurrera begiratu behar dugula.

«Aurrera begiratuko du gerorako zerbait duenak; besteok, atzera begiratu behar». Hori pentsatu dut, baina ez diot ezer esan, bidaia luzea duelako, ez dudalako tristatu nahi. Behin honetara helduta, alferrik delako.

Ez dut gauza zuzenik esaten asmatu, ordea.

- Esan nian hobe zela dinamita nik gordetzea -esan diot atzenean.

Okerrago izan da. Isiltzea nuen onena, baina hala irten zait.

Besoa askatu dut Estudiantearen lepo bueltatik. Ez dut bere lebita maiztua berriro usainduko, akaso.

Joan da mendea. Niri adiskideak joan zaizkidan bezala. Espainiari Kubak alde egin dion bezala. Atzean gelditu dira denak. Heldu da mende berria, itsasoz haragoko koloniarik gabe, eta betiko miseriekin. Espainiako erreinua baino bakarrago utzi naute. Lehen ere ez nengoen saltoka haste-ko, baina banituen adiskide batzuk, bederen. Adiskide uste nituenak. Lehen baino abailduago utzi nautenak.

Zer gelditzen zait? Hemen daukat labana, ger-  
runtzean, baina ez daukat dinamitarik. Patrika  
miatzen dut, eta pospeloak dauzkat, baina ez  
daukat surik. Itzali ziren azken pindarrak. Amaitu  
dira antzerkiak. Acta est fabula, Estudianteak  
behin, aspaldi, Zubietan esan zuen bezala.

Izan behar zuen su hura, eta izan den ke hau.  
Erre egiten zuen su hura, ito egiten duen ke hau.

Nahiago nuke ahaztuko balitzaizkit eltzagorraren zapi gorriak eta bizargabearen zapi brodatuak. Denak. Nahiago nuke haien gezurrak eta fantasiak hutsean galduko balira. Atzean gelditu ziren haiek denak. Eta, tarteka, neu ere haiekin atzean gelditu naizela iruditzen zait, konpaño.

Ito egin behar nau ke honek.

Hotzean pentsatzen dudanean, arrazoiak ateratzen hasten naizenean, ez dut ulertzen, nahi dudana egin nezakeelako. Inori konturik eman gabe. «Ez daukak ez bizargabearen izurik, ez eltzagorraren aitzakiarik», esaten diot neure buruari, hotzean hartzen dudanean. Hainbeste buelta eman eta, azkenean, Fernando Arrospide Tolosan zain daukadala konturatzeko. Aita Tolosan zain daukadala ohartzeko.

Korajea bildu behar.

Baina baso erdiek itotzen dituzte nire buruan baino ez dabilzan keak.

Bi urte, kare bizian erreak. Joan dira, hanka egin dute, eta bakarrik utzi dute maingua. Maingu elbarria. Ez naiz gauza. Ezin dut. Amorrua ematen dit onartzeak Frantsesa bezain koldarra naizela.

Zer egingo nuen, Frantsesak nire zotza erdi-bitu izan balu? Berez etorri zait erantzuna.

Bertsoak egin nizkion asto berriari. Xeferi eman nizkion. Paperean jarri zizkidan, eta joan nintzen Tolosara, Gurrutxagaren moldiztegirara. Tratua itxi genuen. «Arrospide», esan behar nien «Fernando Arrospide». Aski zen hori esatea. Jakin behar zuten non bizi zen, gutxi gorabehera. Baina konturatu nintzen ez nintzela gauza. Beldurtu egin nintzen. Kuban ikasitako guztiak debalde izan nituen «Arrospide jauna non bizi den badakizue?» galdetu behar izan nuenean.

Ez nuen kartzelan edo garrotean bukatu nahi.

Kartzela, bestela ere banekien zer zen. Zorri zaku bat burutik behera hustea. Gosea, zikina eta grilluak. Ez nuen hara behar, ez horratik.

Garroteak, ikusia zegoen zertarako balio zuen garroteak. Sua piztu, kearekin itotzeko.

Frantsesaren kopeta handi zimurtuari begira jarri naiz, Estudiantearen esku luze, leun, hezurtsuei. Atzera begiratu behar, aurrean ezer espero ez duenak. Asteazken iluntzea dela, eta berriro Ramirorean bildu garela begietaratu zait. Hohnerra hautsa biltzen utzia dudala esan dit

Frantsesak. Ez dudala aspaldi jo Kuban ikasitako kanta hura, Estudianteak.

Hohnerraren kutxatxo atera dut poltsikotik, eta kanta batzuk jo dizkiot hego haizeari, triste jartzen nauen horri. Soinuak hartzen ditu haizeak, eta eraman egiten ditu, oraindik zeharo usteldu gabeak dauden azken hostoekin; soinuak hartu eta eramaten ditu, urrutira, han atzean utzitako iraganera, akaso, konpañõ.

Bada hirugarren aukera bat, sokarena. Aitzakia da, badakit, baina «Nola urkatu behar duk beso bakarrarekin?», esaten diot neure buruari.

Dugiolsen zelatan egon naiz, baina hura ere joan egin zait . Hil da Filipinetako heroia. Tristura handia hartu du probintzia osoak. Handiagotan. Zenbat aldiz ez zen sutunparen erdian gertatuko, lohitan hiltzear, odola ezpainetatik xirripan erortzen, Filipinetako lur urrun haietan? Zenbat bider ez zen saldukeriaren batean jausteko puntuan suertatuko? Eta zetazko maindireta eta burko artean itzali da azkenean, eztitan, labanarik kamusten utzi gabe.

Zerraldoa Donostiatik Tolosara eramán zuten zalgurdian. Tolosan apaizek, alkateak, musika bandak eta jendetzak hartu zuten hildakoa. Elizkizunak egin zizkioten. Bertsoak eta hitzaldiak eskaini zizkioten, loriatu zuten goraino eta Arriabalagatarren hilobian sartu zuten, beheraino, mikeleteek. Han nengoen neu ere, badaezpada, zulotik altxatzea bururatuko balitzaio ere. Han zegoen On Kaxildo ere. Eskerrak ez ninduen eza-gutu. Ez nuen asmatuko zer erantzun. Han nengoen, grinak errenditu ezinik, Arrospide sarjentuari begirik kendu gabe. Lastima, atzeko biderik ez ikustea. Ni ez naute kartzelan edo garrotean errendituko, ez horratik.

Aitzakia baldarrak, elbarriarenak.

Hartu eta brast! egingo luke Angiolillok. Beldurrik gabe. Azeko biderik gabe.

«Hala utzi zitean, larrua urratuta», pentsatzen dut.

Baina horrek ez dit korajea biltzen lagunduko, ez preziso.

«Konpañño, bakarrik egin zian hark, egin beharrekoa», esaten diot neure buruari.

Zabuan ibiltzea bezala da hau, alde batera hotz, bestera bero, grinatik etsipenera, zorigaitzetik amorrura.

«Kantabriako itsaso zakar horrek zenbat urderen oinak garbitu, eta trukean zenbat errugabe irentsi duen!» esaka berotzen dut neure burua. Eskua estutzen dut, berotasun pixka bat egiten zait odolean, eta kolpe tiratzen diot zer-baiti. Angiolilloren pindar hartaz akordatzean.

Laster kristau zintzoz betetzen hasiko dira badiako hondartzako aulkiak. Hankak bustiko dituzte goizean, bazkari oparoa egingo dute eguerdian, dantzaldiren batera joango dira arratsaldean eta, gauean, hotelerako bidean, atzemango dut baten bat, han ez bada hemen. Gauean izan beharko du.

Hainbeste min... Ezinezkoa da dohainik izatea.

Ramirori pitxerra betetzeko eskatu eta su eman diot nire kaskezurrari: markesen bat; enbaxadoreren bat; Romero Robledo, akaso; Maria Cristina bera, beharbada. Martinez Campos ez. Gaixo dago. Zarautzera etorri da, ez titan hiltzera, Dugiols bezala. Baina bat ez bada, bestea,



egokituko da baten bat parean. Gauean. Eta orduan, lastaira bezala urratuko dut, gurina bezala erdibituko ditut denak.

Une aproposa itxarotea da kontua. Itxaron, eta atzeko bidea begiratzea. Ihesa begiratu, eta koraje puska bat biltzea.

Hohnerra atera dut kutxatxotik. Zabaldu eta mahukaren kontra igurtzi dut, distira ateratzeraino. Neuk asmatu dudan pasodoble triste, geldo, bati ekin diot, ezpainak ardotan bustita.

Arrieta sartu da, eskuetan duen egunkaria astintzen. Zoro batek, Italian, Humberto Lehena hil duela esan du builaka. «Zoro batek», esan du.

Jotzeari utzi diot, atenditzeko. Batzuk ondora bildu zaizkio. Mostradorean egunkaria zabaldu eta ozen irakurtzen hasi da Arrieta.

- Hainbeste krimen burutzen dituen anarkismoa gaitzesten dute denek.

Akaso Italian eutsiko diote Angiolillok piztutako suari.

- Eta denek erauzia ikusi nahi lukete gari alozrean iraka bezain zitala den legenar hori.

Zeinek jakin Frantsesa Italiako bazter haietan ibiliko den.

- Atxilotu duten gizona hiru aldiz interrogatu omen dute, eta hiruretan izen ezberdinak eman omen ditu. Ikerketak egiten ari omen dira Madril-en eta Bartzelonan.

Katre Minako dinamita kartutxo tzarren batzuk zorroan sartuta ibiliko da eltzagorra, Florentzian, edo beste nonbait.

- Angelo Bressi deitzen omen da.

Esango balidate, ez nuke sinetsiko, baina itsu-itsuan sinetsi nahiko nuke Frantsesak behar adina koraje bildu duela, Michelleren izenean, aspaldi egin behar zuena egiteko.

Tabernara sartu aurretik esan dit, irudipena duela, bihozkada bat, datorren astelehenean izango ote den, heldu den astelehenerako pres-tatu behar ote dugun. Zergatik galdetu diot, zergatik uste ote duen. Bihozkada dela esan dit, ezagutu ninduenean izan zuena bezalako bihoz-kada bat.

Hainbeste denbora eta gero, ezkutuan egin-dako lana agertuko dugula pentsatu dut. Satorrak bezala ibili garela, lur azpiko lanean, hain-

beste denboran, muturrik ere atera gabe, argia zer den ahaztuta. Horiek pentsatu ditut, baina Frantsesak dioena egia bada, bihozkada zuzena badu, zuloa egingo dugu astelehenean, muturra aterako dugu argitara, eta mundu osoak ikusiko du Angiolilloren argia, Arrasateko bainuetxean piztu zuen suaren garra.

- Sator-zulotik aterako gaituk astelehenean, Emilio.

Bekainak altxa eta kopeta zimurtu du, baina galdetzeko denborarik ere ez du izan. Kanpoan lehertu den trumoi hotsarekin, atera joan zaio begirada.

Besotik heldu dut, nigana erakarri.

- Hainbeste denboran lur azpiko lanean ibili eta gero, satorrak bezala aterako gaituk argitara, Parisen bezala.

Muturra belztu zaio, marmarka hasi da, ate aldera egin du keinu buruarekin. Tximistak argitu ditu ilunduta zeuden kaleak.

Lepoa noiz luzatu ere jakin behar dela erantzun dit. Baina ni asteazkena heltzeko irrikaz nago, esan nahi didanaz konturatzeko. Lepoa luzatu aurretik, aitzurra zelatan ote dagoen jakitea

komeni dela esan ote didan, baina nire buru barruko hotsak besterik ez ditut aditzen.

- Jakin egin behar izaten da lepoa noiz luzatu, Sotero. Parisen ere, han zegoen aitzurra zeltan. Muturra atera orduko, brast!

Baina ni irrikaz nago, dagoeneko, astelehenearekin. «Sarraskien aroari atea ixteak ekarriko du ikurra aldatzea, eta gure bandera gorri tentek mundu berria gidatzea», letra hori besterik ez dut entzuten. Horregatik ez diot kasu handirik egin Frantsesari, hizketan ari zenik ere ez naizelako konturatu.

- Pariskoa ez da berriz gertatuko -esan duela iruditu zait.

Edalontzia hustu, biona ordaindu, eta joan egin da, «Asteazkenera arte» esanda.

- Hator hona. Zer behar duk? Azukrez karga-karga egindako kafe txar bat eskatuko diat. Uztak lebita zahar hori aulkian. Bai, esadak «Maingu mandoa!». Egin ezak barre. Gaztea haiz. Bizarririk ere ez daukak eta! Barre egitea tokatzen zaik. Baina etor hadi hona. Eta lagun ie-

zadak. Arrieta nazkagarri hori zirikatzen hasi zaidak berriro. «Hik piztuko huen sua», esan ez zidak ba? Estudiantinarekin atera ez nintzelako haserre zagok nirekin. Edo nire bertsoak entzun dituelako, egiazkoak, ez Xeferi diktatzen dizkiodanak. Edo gehiegi edan duelako. «Hik piztuko huen sua, insurrekto zikin horrek». Ikusten al duk, zer esan didan? Esadak baietz, mainguk maniguan galdu beharrekoa zuela besoa. Ez nabilela oker. Ez nagoela bakarrik. Utz itzak hire Madrileko entretenigarriak, eta esadak astamakilak zuzen egiten ikasi dudala. Esaiok Arrietari. Berak hainbeste ikasi dudala idazten eta leitzen. Esaiok bakean lagatzeko. «Hi ibiliko hintzen Miramarreko tximiniei sua ematen, traidore zikin hori». Ni ez nauk traidorea. Maingua bai. Elbarria ere bai. Koldarra, akaso. Koraje gutxiko pertsona; baina traidorea ez. Aditu al duk? Ni ez nauk traidorea. Nik ez ditiat inoiz, aditu al duk?, nik ez ditiat inoiz adiskideak alde batera utzi. «Salatu egingo haut, salatu egingo haut!», ez zaidak ba hasi, ume setatiak bezala. Esaiok zerbait, edo neuk botako zioat sermoiren bat hantuste horri. «Hi bai, traidorea!», esango zioat. La Habanan

matxetearekin erdibitutako umeak gogoraraziko zizkioat. Hantxe, kale erdian, batere errukirik gabe. Zer kulpa izango zitean haiek? Gogorarazi egingo zioat, hemen bertan, denen aurrean. Odol putzuen eta hesteen gainean, orroka eta intzirika aldi berean. Munstroa bezala. Denei kon-tatuko zieat. Azkar ez bahaiz etortzen, esan egingo zioat. Aspertu nauk «Salatu egingo haut, eta Ondarretara eramango haute, aditu al duk?» horiek entzuteaz. Nazkatuta nagok Arrietarekin. Hator hona, Alberto, hator azkar. Handiren bat egingo diat bestela. Uda bazoak. Udatiarrak bazoazak. Campooko markesa. Santa Barbarako kondea. Turkiako ministroa, Izzet-Patxa. Ibarra-ko kondea. Casa-Gileko markesa. Jaulisek bere edadeko lagunak egin ditik. Herenegun ikusi nian koadrilarekin, estropadak eta gero, uretan ahateak eskuekin ehizatzen. Lotsagarri. Esaiok heuk, lotsagarri ibili zirela. Niri baino kasu gehia-go egingo dik hiri akaso. Hi bezain umea duk. Esaiok ez ibiltzeko lotsagarri señoritoen aurrean. Esaiok itxura barregarria zuela. «Ondarretan us-telduko haiz, aditu al didak?». Ez zaidak Arrieta-ren behatz hori gustatzen. Esaiok ez zaidala gus-

tatzen. Esaiok kentzeko, ez ni seinalatzeko. Ez zaidak gustatzen inork ni seinalatzea. Kenduko zizkioat nik horri sudurreko mukiak. Aditu al duk Alberto? Non hago? Bazoazak denak, eta bakar-bakarrik gelditzen ari nauk hemen. Gero eta aukera urriagoekin. Gero eta koraje gutxiagorekin. «Kasu egidak nik hitz egitean!». Badakik? Egariak zagok gerruntzeko labana hau. Egariak zagok oraindik. Zergatik idatzi didak gutun txepel hori, Alberto? Min egin zidak. Zertarako idatzi didak? Esadak ez haizela damutzen. Esaiok Arrietari: «Guk ez zioagu inori obeditzen». Guardia zibil zapuztu horri. Ez garela damu. Esaiok, Alberto. Handiren bat egingo diat bestela.

Hasteko, kosta zitzaidan bizargabea konbentzitzen. Baina ulertarazi nion ezin geniola Frantse-sari lan haren berri eman, ez dinamita gure eskuetan eta ondo gordeta eduki arte behintzat. Ulertu zidala iruditu zitzaidan orduan. Laster hasi zen esaten, ordea, informeak eskuratuko zizkidala, baietz, baina ez zidala handik aurrera la-

gunduko. Ezin zuela. Handik aurrerakoa asko nabarmentzea zuela.

Poliki-poliki, eta pazientzia handiarekin, aurreraxeago ere eraman nuen. Ihes egiten laguntzeko, behinik behin, konbentzitu nuen. Usurbilerako bidean itxarongo niola, ez gintuela inork ikusiko eta gero, gordean egon besterik ez zuela nik lana bukatu arte. Sotero, makurtu eta lan zikina egitera. Hala beharko zuen zerbait egitekotan. Aizarnarako bidea egiteko landaulet bat eskuratuko zuela hitzeman zidan azkenean.

Askok atzeratu gabe azaldu zen Igeldoko bidea, zaldi beltz handi batek tiratako gurdian. Inoiz ikusi nuen zalgurdirik txikienean etorri zen, eta aldamenen eseri nintzelarik, uhalak eman zizkidan eskura. Neuk gidatu behar omen nuen landauleta. Bizargabeari iruditu zitzaion ez genuela itxura onik emango elkarren aldamenen eserita, nabarmendu egingo omen ginen. Morroi hartu ninduen, itxuraz bazen ere, eta atzean eseri zen, neu gidariaren lekuan bakarrik utzita. Gidatu egin behar, zerbait egitekotan. Hasieran trakets samar, baina lanik handiena zaldiak egin behar zuen, eta oker handirik gabe heldu ginen



Aizarnaraino, erretolika handirik gabe. Herrira sartu aurretik, bide aldapatsu eta estu samar batetik gora hartu genuen. Bizargabeak itxaron behar zidan lekuraino heldu ginen, pinu arteko zabaldi batera. Han utzi nuen, landauletaren kontra bermatua, esku urduriekin zigarro luxe batentzako harria piztu ezinik.

Bidezidor bat hartu nuen, mendiaren hegaletik, bizargabeak seinalatutako tokitik. Txara itxi samar batzuk igaro eta minaren gain aldean azaldu nintzen. Ordua zen eta, gauzak ondo bidean, etxean bazkaltzera joanak behar zuten langile gehienek. Hutsik behar zuen eremuak, bizargabearen arabera.

Burua atera nuen lahar artetik. Gertu zegoen bulegoa, oholez eginiko txabola soil bat. Ez zegoen inor bistan. Zuzenak ematen zuten bizargabearen informeeak. Pixka batean itxaron nuen, badaezpada ere, eta txabolara hartu nuen zuzenean. Poliki jaitsi nintzen, harri solteak ez amiltzeko kontu handiarekin.

Sartu nintzen bulegora, atea behartu gabe, bizargabeak emandako giltzarekin. Segituan aurkitu nuen biltegia, sartu eta eskuinetara. Egu-

rrezko ate txikia ere batere behartu gabe zabaldu zen.

Ilun zegoen biltegia, baina han zeuden, egurrezko kutxa luze batzuetan pilatuta: urde haien-tzako behar genuen ozalea. Kutxetako bat zabaldu eta sokaz lotuta zegoen eskukada bat kartutxo hartu nuen.

Harrapatu bezala utzi nuen dena, ezer ez antzemateko moduan. Itxi nituen ate guztiak giltzarekin, eta isil-isilik joan nintzen etorritako bidetik. Malkarrean gora igo, ahuntzen pare, txara itxiak zeharkatu, ez urraturik egin gabe, eta hasierako bidezidorra aurkitu nuen. Iritsi nintzen landauleta utzi genuen lekura, pinu arteko zabaldira.

Eta falta.

Egin behar zuen gauza bakarra. Eta ezta hura ere. Falta.

Guardia zibilak ibili zirela landauletaren inguruak miatzen, eta galdezka hasi zitzaizkiola, zer egiten ote zuen han, noren zain zegoen. Aitzakiaren bat asmatu, eta joan egin behar izan zuela. Ezin izan zidala abisurik pasa.

Sinetsi egin nion orduan. Malmuzkeria hura.

Estudiantearen gutuna iritsi zaidala. Esan didanean, ez diot sinetsi Ramirori.

Sartzeko asmorik gabe igaro naiz taberna aurretik. Ferminak aspaldi zor zidan ordainsaria jaso dut, eta oinetako berriak erosteko asmotan nintzen. Baina taberna paretik pasa naizenean, Ramiro atera da arineketan mostradore atzetik, gelditzeko keinuak eginez, trapua astinduz. Al-pargata berriak behar ditut lanerako. Oinak txikitu beharrean ibiltzen naiz. Tabernara sartzen baina, ez dut deskantsatuko diru guztiak xahutu arte, badakit.

Horregatik itxaron diot Ramirori kanpoan. Ateraino etorri eta sartzeko esan dit, gutun bat iritsi dela nire izenean, brusatik heldu eta barrura sartzeko tira egin dit. Ez da sinestekoa, baina. Erreal guztiak lapurtu nahi ote dizkidan, zer amarru ote darabilen zalantza egin dut, baina atzetik joan natzaio, atzenean. Jakin-mina handiagoa izaki. Mostradore atzean sartu eta tiraderatik atera du gutuna.

Arrazoi zuen Ramirok. Niretzat da, Estudiantearen gutuna.

Gehien urrundu denean asmatu du ni haren terrenora eramaten. Badaki ezingo diodala inori erakutsi, ezingo dudala laguntzarik eskatu. Barrera egongo da, han Madrilen, edo nonahi dagoela ere, gure bizargabea; jarri berri didan lanarekin kontentua, irakatsi zidan apurragatik harro, zain egongo da, ea noiz iritsiko nik zirriborreratutako paper pusketa bat. Irrikaz egongo da, nire gutuna noiz jasoko, «Zerbait ikasi zenuen, Sotero!» pentsatzeko.

Pitxer bete ardo eskatu diot Ramirori. Pazientziarekin hartzekoa da lan hau.

Zakurraren ipurtzuloko kriseilua pizteko baimena eskatu diot Ramirori. Gutuna irakurtzeko behar dudala azaldu diot. Garrafoia askatu gabe, baietz egin dit buruarekin. Eseri naiz. Piztu dut kriseilua. Letra hanpatua du Estudianteak. Hantxe dago nire izena, «Sotero Múgica». Eta jarraian, «Maingu mandoa». Sekula ez naiz helduko gutunazalean ikusten diren biribilketa horiek egitera. Bi marra zuzen itxurakoak egiteko astamakilekin nik botatzen ditudan izerdiak.

Toxa atera eta zigarro bat bildu dut. Pitxerra-  
rekin eta zigarroarekin behar bezala hornitu nai-  
zenezan, gutuna zabaldu dut. Orrialde bat, paper  
gogor samarrean, idatzi dit. Sinadura beheko al-  
dean, agurraren ondoan, «iSalute, compagno!». Goiko partean, data, eta diosala, «Estimado  
señor Sotero». Adarra jotzen ari ote zaidan pen-  
tsatu dut. Señor ni? Baina ez, doinu berarekin ja-  
rraitzen du egun ona izan dezadala opatzen, zer  
moduz nabilen galdezka.

«Ondo», erantzun diot nire kolkorako, «Ondo  
izorratua».

Gaztelera egiteagatik barkatzeko eskatzen  
dit, ez duela ia euskaraz egiten eta ahazten ari  
zaiola. Faltan botatzen omen ditu gure hitz as-  
peltuak. Donostian egon omen zen abuztuan,  
baina ez omen ninduen ikusi.

Ez dit entzungo, baina «Ez hintzen Ramiro-  
netik pasatuko», erantzun diot. Nekez eta poliki  
irakurtzen dut hark istant batean idatziko zuena.  
Poztuko litzateke, hala ere, gure bizargabea. Al-  
gara politik egingo lituzke zakurraren ipurtzulo-  
an berak bidalitako gutuna irakurtzeko lanean  
ikusiko banindu.

Ardoari eman diot musua, baina nire poz guztiak zimurtu ditu sartu berri den Arrietak. Bekozko ilunarekin heldu da gaur ere.

- Zeri begiratzen diok hik, insurrekto mutur beltz horrek? -galdetu dit, oldarkor.

Ez du ozen esan, baina ulertzeko moduan bai, hala ere: «Traidore ustela!». S u m i n d u egin nahi nauela konturatu naiz, baina gaur ez dit izorratuko. «Salatu egingo haut!» esaka aritu zitzaidan hartan bezala. Onetik aterea etorri da, baina gaur ez dut bururik galduko.

Ramiro saiatu da kalmatzen. Zer gertatu zaion galdetu dio. Guardia zibiletan sartzeko ikasketak hasi behar omen zituen, baina izen ematera joan, eta lekuak beteta daudela erantzun diotela, Arrietak. Ez dutela onartu. Pattarra ateratzeko eta mostradorean uzteko eskatu dio Ramirori marmarka.

Bere erneguearekin laga dut Arrieta, eta pitxerri heldu diot, nire lanarekin jarraitzeko. Gutuna Ramirorenera bidaltzen ondo egin ote duen galdetzen dit Estudianteak. Ez omen zekien nora bidali. Ikasketen inguruko gorabeherak kontatzen dizkit baita ere.

Lehengo nekeaz gainera, kosta egiten zait jarraitzea, ordea. Arrieta hortxe daukat, bost urrats eskasera. Umorea txartzen dit. Zeharka begiratzen didala sentitzen dut. Pikutara bidaliko nuke. Baina gaur ez, ez naiz aldrebestuko.

Ardoari tragoa eman, eta gutunari jarraitzea izango dut onena. Estudiantearen gutuna, ez nuen asko espero. Hara, jakin omen du Arsenio Martinezena. Prentsan irakurri duela esan dit.

«Ba nik ere bestek kontatuta jakin diat», erantzungo niokeen. Ez da luze lurpean sartu zutela, Dugiolsen konpainiara.

Estudianteak ere jakin omen zuen Dugiolsena, eta nirekin akordatu omen zen. «Nostalgia» sentitu omen zuen. Ikasketekin ari omen zen, ordea. Egonkortu gabe omen zegoen artean. Hurrengorako utzi omen zuen gutuna, eta horretan luzatu. Martinezena irakurri zuenean erabaki zuela idaztea, luzatzen utzi gabe. «Kontentu ibiliko zara, ezta?», idatzi dit. «Zerrendan zenituen guztiak ari dira erortzen, eta besoa batere nekatu gabe, gainera. Nor izango da hurrengoa?», galdetzen dit. «Nor daukazu miran jarria?».

Doinu jostalaria antzeman diot. Ni ez nago jolaserako, ordea. Esplikatu nahiko nioke erdituta nagoela, emakumeak erditzen diren bezala. Bitan zatituta nagoela, ezinaren eta nahiaren artean. Baina neure buruari esplicitzen ere kosta egiten zait; hari esaten hasteko.

Arrietaren purrustadei bizkar emanda, irakurtzen jarraitu dut, poliki eta nekez, silabaz silaba hitzak osatuz, hitzez hitz esaldiak lotuz. Baina ez da erraza, ez dut ulertzen zer esan nahi didan bizargabeak. Ez da letrarengatik, ez da irakurtzeko ezinagatik. Ez dakit zer esan nahi duen. Arrietak bake puska bat emango balit, behintzat. Ematen du gaur ere nirekin itoko dituela ezinak.

Gutunean esplicitzen dit Dugiolsenarekin barre txiki bat egin zuela, baina Martinezen albisteak ez zuela poztu, ez ziola zirrararik eragin. Penarik ere ez. «Ez dut esan nahi tristatu nintzenik. Ez naiz ni hasiko haren hezurak lurpetik ateratzen. Baina pozik ere ez dut batere sentitu». Beste zerbait sentitu omen zuen albistea irakurri zuenean: «Nostalgia, edo urruntasuna, agian». Oraindik urtea ere igaro ez den arren, urrun ikusten omen du Oinazearen Federazioa-



ren sasoia. «Lotsatu ere egiten naiz tarteka», idatzi dit. Barkatzeko, baina lotsatu egiten dela. Ez gaizki hartzeko.

Ez gaizki hartu? Nola nahi du hartzea orduan? Zer nahi du pentsatzea? Ez dut ulertzen zertaz lotsatu behar duen. Ez dakit zertarako idatzi didan.

Alferrik sartu naiz Ramiroren tabernara. Ez dakit zergatik pasatu naizen aurretik. Beharrik ere ez nuen. Kalearen beste aldetik joanda ere berdin zitzaidan. Arrieta pixka bat isilduko balitz, sikiera, baina horrela ezin da. Arrieta itsaso pare bat urrutiago balego, eta Estudiantea aurrean edukiko banu, esango nioke zerbait. Esango nioke errezelo txarra ematen didala gutun honek. Akaso, esango nioke hasieratik sumatu niola koldar itxura, eskas eta nagi eman zidala eskua Frantsesak aurkeztu zidan egunean. Ez dakit zertarako sartu naizen taberna zikin honetara, jakinda Arrietak azaldu behar zuela, lehenago edo geroago.

- Mintzen hasia dago ardo hau.

Ramirori esan diot, baina Arrietak bota behar izan du berea.

- Hi hago mindua. Ustela

Isiltzeko eskatu dio Ramirok, bakeagatik. Zakurraren ipurtzulora etorri da, pitxerra jaso, eta ardoari usain egin dio.

- Mindua egoteko, ederki hustu duk ba -aurpegiratu dit.

Lotsaz onartu diot baietz. Pitxer berria aterako didala agindu dit, hala ere. Egia esan, joan egin nahi nuke, zulo honetatik irten egin behar dudala sentitzen dut. Estudianteak burla egiteko idatzi didala iruditzen zait. Ez dut gehiago irakurri nahi. Gutun hau jasotzeko gogorik ere ez nuen, ez dakit zer fantasia klase asmatu ditudan, Ramirok gutun bat neukala esan didanean. Begiak nekatzen hasiak dauzkat, Arrietarekin nazkatzen hasia nago. Utzi egin beharko nuke, oinetako berriak erosi, eta etxera joan, baina baietz esan diot Ramirori, ekartzeko beste pitxer bat.

- Baina goraino bete gabe. Oinetakoak erosi behar ditiat. Ez diat soldata guztia hemen hustu nahi.

Jakin-mina handiagoa izaki. Berriro zabaldu dut papera. Ezin dut utzi irakurri gabe, tira egiten didala ematen du. «Neure buruaz lotsatzen

naiz». Lotsatu egiten dela esateko idatzi badit, ederki gaude, pentsatu dut. «Umea nintzen orduan. Ez nekien zertan ari nintzen ere». Ez dut ulertzen zer egiten dudan hemen, odol txarra egiten gutun nazkagarri honekin. Estudiantea adarra jotzen ari zaidala iruditzen zait. «Emiliok leiho bat zabaldu zidan, eta liluratu egin nintzen erokeria harekin».

Erokeria? Ziri ederra sartu didate adiskide uste nituen horiek.

Baina nik hasieratik bertatik jakin nuela konturatu naiz. Bostekoa emateko modu nagi hartan, zapi brodatu haietan, zalditik jaitsi gabe eskua eman behar hartan. Ikusten zen ez zela gure artekoa; beste kasta batekoa zela. Ez dakit Frantsesak nondik atera zuen oilo busti hura. Ez dakit zer ikusi zion aurpegi leun hari? Hura al zen errautsetatik piztu behar gintuena? Alberto?

Eta okerrena da nik banekiela, hasieratik, eta ez niola usteari kasurik eman.

«Orain poztu egiten naiz dena hasi aurretik bukatu zelako», idatzi dit, traidore horrek. Akabo. Orain bai. Kito. Ez du ba nire erantzunik

jasoko. Aspertuko da nire gutunaren zain egon behar badu.

Mahai gaineko kriseiluaren atea zabaldu dut, eta orria tolestu erditik. «Salute, compagno!» idazteko adorea izan du gainera, gutunaren beheko aldean. Hori ez bada adarra jotzea.

Kriseiluaren ate zabaldutik sartu dut gutunaren mutur bat. Barrura. Gorritzen hasi da pape-  
ra. Estudiantearen lebitari emango nion su, gus-  
tura asko, bera barruan sartuta, gainera. Baina konformatuko naiz gutuna erretzearekin.

- Erotu al haiz? -buila egin dit Arrietak, eta gainera oldartu zait.

Lurrera bota nau, eta eskuetatik erori zait gutuna. Sentitu egin dut nola irristatzen zen nire behatzetatik. Lurretik ikusi dut nola oin zolekin zapaldu eta itzali duen Arrietak.

- Hi ez hago osorik! Denok erre nahi al gaituk!

Derrepente zutitu naiz lurretik. Bultzakada batekin, gutunaz aparte bidali dut Arrieta astapotro hori. Papera jaso dut lurretik, eta ate alde-  
ra abiatu naiz, baina atzetik zango trabatu nau Arrietak. Zanbulu egin eta mostradorearen kon-

tra joan naiz. Eskutik irristatu zait gutuna. Ordu-rako, errezoan hasia dago Ramiro. Ez dut ondo entzuten, baina sumatzen dut haren erretolika. Gutuna hartzeko makurtu da Arrieta. Esku zikin hori.

- Zer daukak hemen, hainbesteko arretarekin gordetzeko? -zirikatu nau-. Baina, hik ba al dakik ba leitzen?

Ez diot denborarik eman gutuna hartzeko. Lurretik zeharo altxa gabe, ostikoa eman diot eskuan, eta labana atera dut gerruntzetik.

- Uztak gutun hori!

Arrietaren gainera oldartu naiz.

Hortik aurrerakoa lausoturik ikusten dut.

Nahastuta nago oraindik, baina gero eta lan gutxiago ematen dit esnatu eta ohe moduko honetan esertzeak. Orain lanak ematen dizkidana bizarra da. Sekula baino luzeago daukat, eta ematen du hura hazten egindako lanean ahitzen zaizkiola indarrak nire gorputzari. Lau egun, eta hebaindua daukat gorputz osoa oraindik.

Goizeroko moduan, arrastaka iritsi naiz pailankanaren ondoraino. Lau eguneko ur zikinean eskua sartu eta aurpegia pasa dut. Ur tantak erori zaizkit bizarreko ileetatik. Bitxia da.

Tantak ikusten ditut erortzen, baina ez ditut sentitzen azalean.

Nigandik eroriko ez balira bezala.

Astearte arratsaldean egin nuena bezala, Ramirorean.

Ez zen nigandik atera. Ez dut sentitzen nik egin nuenik. Baina ikusi egiten dut nire eskuaren bekatua.

Hemen sartzean, edo berdin aurretik pasatzea tokatuz gero, *Odia al delito, compadece al delincuente* irakurtzen da. Baina ez da erruki etxea. Mojak etortzen dira bai, tarteka, baina hemen ez dago inorengatik abemaria bat errezatuko duen kristaurik. Hona heldu aurretik uste nuen ikusiak nituela ikusi beharreko guztiak, paseak nituela inon diren infernu guztiak.

Oker nengoen.

Gogoan daukat ikusi nuen lehen aldia. Kanpotik ikusi nuen lehen aldia. Dozena bat lagun zeramatzaten bertara, esku eta hankak kate luzeekin lotuta. Nola aldatzen diren kontuak, barrutik edo kanpotik ikusita.

Ez askotan, baina tarteka joaten ginen Ondarretako arroketara. Bainatzeko ez zen leku txarra. Konportako harpausoetan jolasean ibiltzen ginen. Olagarroak ere harrapa zitezkeen arroketan, abileziarik izanez gero. Ni ez nintzen langintza horretarako jaioa, ordea. Besteek nola ehizatzen zituzten ikustearekin etsi behar.

Neska gazteren batekin paseatzeko ere, ez zegoen gaizki. Bazter batean zegoen, bertan baina apartean. Gure jirako neska gehienek ez zuten paraje haietara joan nahi izaten, ordea. Ez zuten gurasoen baimenik. Guk ere ez, baina.

Lanean hasi nintzen, ikatz partitzen, Gomera deitzen zuten mutilzahar begi bakar batentzat, eta arroketarako joera eskastu zitzaidan. Gainera, kartzela berria eraikitzeko lanak hasi zituztenetik, bertarako gogoia ilundu zitzaigun.

Orduko adiskideak, Anttonio, Tragalax... Kuban gelditu ziren. Nik zorte handirik izan ez

banuen, haiek gutxiago. Beste batzuk, Luixmari, Bermeano... Ameriketara joanak ziren, gerrara beharrean. Pedrito suak kiskali zuen, etxean. Zunzunegi, bizi bazen, ez nuen gehiago ikusi bueltatuz geroztik. Banekien Ezenarro Alegiara ezkondua zela, eta Anjelek Bilbon egiten zuela lan. Tarteka ikusten nuena Abelino zen, arotz hasi zena aitarekin. Hura pasako zen, akaso, kartzelaren aurretik, eta irakurriko zuen sarrerako atearen goiko idazpurua. Ni barruan egon nintzekeela susmatu ere gabe.

Ondo gogoan daukat noiz ikusi nuen lehen aldiz, idatzi hori, bertsoarako puntu galdua eskuratu bainuen egun hartan.

Antiguan ikatz partitzetik heldu nintzen, gurdi hutsari tiraka. Bidean topo egin nituen soldaduak, presoak kartzela berrira aldatzeko lanean. Dozena bat gizon, esku eta hankak kateatuta, geldirik zeuden badiako ibilbideko barandaren kontra. Armak bizkarrean tinkaturik, eskuak eskopeten uhaletan zeuden soldaduak, lurrean etzanda zetzan gizonarekin zer egin erabaki ezinik. Etortzen ikusi nindutenean, nigana egin zuten soldaduek. Altoa eman zidaten.



- Hire gurdia behar diagu!

Errekistatu egin nahi zidaten, baina agindua zen; zer esan behar nion?

- Gizonetako bat egoskortu egin zaiguk -eman zidaten azalpena.

Lurrean etzanda, sabelari eskuekin eusten zion ezkailuari erreparatu nion. Hila ematen zuen, kolore zuri harekin. Gainerako gatibuak burumakur zeuden, eserita batzuk, barandaren kontra besteak.

Soldaduetako batek katetik askatu zuen eria, eta gurdian zamatzen lagundu zidan arnasa hartzeko indarka hari zen gizon luze hura. Hezurak hautsi behar zitzaizkiola ematen zuen.

Ilara osoa lerroan jarri zuten soldaduek, abian jarri ziren. Atzetik jarraitu nintzaien, ahal izan nuen bezala, gurdiari tiraka. Ezkailu hark ez zuen ihes egiten saiatzeko itxura handirik, baina soldadu batek aldamentetik jarraitzen zigun, begirik kendu gabe. Ez zituen gerriak asko okertuko niri laguntzen. Erdi hildako ezkailu hark ez zuen hiru ikatz zakuk baino gehiago pisatuko, baina eskertuko nuen besoren baten laguntza.

Kartzela berriko atariraino joan ginen. Ate handi hura zabaldu zuten. Ez nuen barrura sartzeko batere intentziorik, eta handik aurrera ni gabe ere moldatuko zirela esan nion atzetik zertorkigun soldaduari.

- Barruan entzerratuko haugun beldurtu al haiz? -galdetu zidan irriz.

Atearen goiko aldeko idazpurua seinalatu eta, han jartzen zuena eginez gero, ez nuela zertan beldurrik izan, esan zidan.

Laguntzeagatik txakur txikirik ere eman ez eta, gainera, eskerrak ematea nahiko zuen. Ez nekiela irakurtzen erantzun nion. Orduan jaso nuen burua, idazpuruari begiratzeko.

- Odia al delito, compadece al delincuente, hori jartzen dik -esan zidan-. Delitua gorrotatzen baldin baduk, ez daukak hemen bukatzeko beldurrik.

Presoa gurditik jaisten lagundu nion. Ezkailua besazpietatik heldu eta arrastaka eraman zuen barrurantz. Ateak itxi aurretik idazpurua seinalatu zuen berriro.

- Badakik! -buila egin zidan, barrez-barrez.

Ondo gogoan daukat, Arrietarekin akordatu nintzelako. Berandu, baina behar zen garaian bertsotan eman ez nion errespuesta okurritu zitzaidalako: lapurrentzat ez dagoela errukirik, hori esan behar nion.

Urrun geratuak ziren Gabonetan kantari irte-ten genuen sasoi hura, ordea, eta Arrietari esateko berandu zelako, isilik egon ezin, eta Frantsesari eta Estudianteari kontatu nien.

Ez zidaten kasu handirik egin. Estudianteak ozen irakurtzen jarraitu zuen auskalo zer paper zahar. Hark irakurtzen bukatu zuenean hitz egin zuen Frantsesak.

- I a un temps que trampa, un autre que des-trampa.

Tarteka bazuen, ezustean, okzitanierazko esaerak errezitatzeko ohitura hori.

- Eroriko da kartzela hori ere -erabaki zuen.

Barre egin nion Frantsesaren inuzentekeriari.

Serio jarri zitzaidan orduan. Berari barre egi-ten ari al nintzaion galdetu zidan. Ezetz erantzun behar izan nion, barreak isilduta, baina inuzente galanta izango zela hori egiatan pentsatzen baldin bazuen.

- Inuzente galanta naiz, orduan?

- Ez nian hori esan nahi...

- Ba esan egin duzu.

Azaldu nahi izan nion, baina ez zidan utzi.

- Eguzkia jartzen ikusten ez zuen inperioa, esaten zioten. Zer uste duzu pentsatuko dutela erreginak eta haren ministroek orain?

Ez nuen ulertu zer galdetzen ari zitzaidan.

- Zer uste duzu pentsatuko dutela Kuba eta Filipinak galduko dituzten egunean?

Artean ez zegoen horren argi kubatarrek irabaziko zutela, baina Frantsesak horrela galdetu zidan.

- Zer uste duzu pentsatuko duela erreginak, Kubaren independentzia sinatu eta, hurrengo ilunabarrean, leihotik begiratu eta eguzkia erortzen ikusiko duen goizean? Badakizu zer pentsatuko duen?

Sudur puntaren pareraino altxa zuen hatza.

- Sekula pentsatuko zuela uste ez zuena, hori pentsatuko du. Eguzkia erortzen ari dela, eta lur haiek ez direla ja Espainiako Koroarenak gehiago izango.

Kristorena esan balu bezala gelditu zen, aul-  
kian atzera bota eta gerrikoa lasaituz sabelaren  
bueltan. Estudianteak ere barre murriz bat  
zuen, ez zuen ezer esango, baina sumatzen zi-  
tzaion gustatu zitzaiola.

- Eta? -galdetu nuen, azalpenak eskatuz.

- Zuk uste duzu Marco Aureliok inoiz pentsa-  
tu zuela Erroma hain azkar eroriko zela?

Asko nekien nik zein zen Marco hura. Laster  
konturatu zen Frantsesa ere. Begira gelditu zi-  
tzaidan, eskuak zabalik.

- I a un temps que trampa, un autre que des-  
trampa -esan zidan, berriro, zakar eta hisiatu-  
rik-. Bibliak ere jartzen du eta, Sotero! Baina no-  
lako kristaua zara zu? «Badago harrirentzako  
garai bat, eta badago hitzarentzako garai bat».

Ez nuen lotzen kartzelarekin, eta esan egin  
nion, ez nuela ulertzen zer lotura zuen horrek  
guztiak kartzelarekin.

- Batzuetan busti, besteetan lehortu, Sotero,  
egin eta desegin, dialektika, arraioa, dialektika!

Zutitu egin zen, galtzetan kabitu ezinik, eta  
begira gelditu zitzaidan, ezpainak erdi irekita.  
Komunera joan behar zuela esan zuen.

Lepoko zapi gorria askatuta eta kopeta handi hartako izerdiak lehortuta, baretuago itzuli zen. Ordurako Estudianteak egina zuen ahalegina, nik zerbait uler nezan. Frantsesa eseri egin zen, haizea hartu zuen, eta polikiago hasi zen hizketan.

- Nire hizkuntza hau... Hara, garai batean, Europako gorte guztietan, hizkuntza honetan kantatzen zieten errege-erreginei. Bai. Okzitanieraz kantatzen zuten trobadoreek. Orain, berriaz, nork uste duzu hitz egiten duela orain? Nork uste duzu kantatzen duela okzitanieraz? Inork ez, Sotero. Urte gutxi batzuen buruan galduko da. Ez da gehiago entzungo. Ezer ez. Desagertu egingo da. Zuk uste duzu...

Libre zuen eskuko hatz erakuslearekin atze aldeko horma seinالاتu zuen.

- Zuk uste duzu trobadore haiei, duela bostehun urte, norbaitek esan balie okzitaniera desagertu egingo zela... Zuk uste duzu sinetsiko lioketela?

Hori esan nahi zidan, beraz, kartzelarekin.

- Barre egingo liokete!

Nik barre egin nuen moduan, alegia, esan nahi zuen.

- Inuzentetzat hartuko lukete!

Nik egin nuen moduan, alegia.

- Dena bukatzen da, Sotero. Dena. Gauza batzuk betirako direla ematen duen arren.

Zentzuzkoa zirudien Frantsesaren burugabekeria hark.

- Kontua da zenbateko indarra egiten zaion, bukatzeko.

Zentzuzkoa zirudien Frantsesaren burugabekeriak, baina urtebete geroago, soka mutur guztiek korapilo bakarrean lotu behar zutenean, Ondarretako kartzelaren sarrerako atearen gainean jarraitzen du lehengo idazpuru berak: *Odia al delicto, compadece al delincuente*. Auskalo zenbat urte joan diren kartzela berria zabaldu zutenetik, eta hor jarraitzen du, ez da amiltzen, ez da pitzatzzen, ez da belaunikatzen.

Olatuek ipar aldeko hormaren kontra jotzen dutenean, ematen du kresalak jango duela, eta arrazoi zuela Frantsesak, edozer gauzaren iraupena kontra egiten zaion indarraren araberakoa dela, batzuetan betirako izango den itxura eman arren.

Ziegako barroteak dauzkat aurrean. Herdoiltzen doaz, pixkanaka. Bezperan baino herdoilduago egoten dira hurrengo egunean. Egia da bihar herdoilduago egongo direla gaur baino. Baina hor jarraitzen dute, beti, hurrengo goizean.



Higatzen dira, ez dira desegiten.

Arrazoi izango zuen, akaso, Frantsesak. Baina nik ere kontuak egin ditut, eta inperio bat edo hizkuntza bat baino gutxiago biziko naiz. Zenbat urte behar dira inperio bat edo hizkuntza bat desagertzeko? Kartzela bat desegiteko, zenbat indar egin behar da? Zenbat indar egin deza-ke pertsona bakarrak?

Frantsesak azkar egin zituen kontuak, baina niri, halakoak pentsatzen hasten naizenean, bu-ruak leher egin behar didala iruditzen zait. Ez naizela osorik aterako. Ez dudala jasateko kora-kerik izango.

Okerragoa izaten da, hala ere, Ramirorean gertatu zenaz akordatzea. Esaterako, esnatu eta, arrastaka, indarge, palankanako ur zikina- ren bila joaten naizenean. Eskua ur beltzean sartu eta aurpegira eramaten dudalarik, senti- pen bitxiak izaten ditut. Nire aurpegiko azalak ez du urik sentitzen. Bitxia da, ikusi egiten ditudala- ko ur tantak, baina ez ditudalako sentitzen. Eta horrek nahi gabe eramaten nau Ramiroren ta- bernako arratsalde hartara.

Ez zait iruditzen nik egin nuenik. Labana urdailean sartzea. Ez dakit nondik atera zitzaidan.

Handik aurrerakoa lausoturik ikusten dut. Txatal batzuk, elkarrekin ondo josi gabeak, kanpotik ikusiko banitu bezalakoak. Ramiro «iVirgen santísima!» oihuka. Arrieta mostradorearen kontra erortzen. Bizkarrean hautsi didaten aulkia. Ostiko bat urdailean. Belarritik odola hasten zaidala. Jendea, ezagunak gehienak, nire inguruan multzo bihurtuta. Denak niri kolpeka eta irainka. Sukaldetik heldu diren txilioak. Bertan hilko naizela pentsatzen dut. Manteoko ospitalean esnatzea, besoa oheari kateaturik. Kartzelaren ate nagusirainoko ibilaldi laidogarria, eta idazpuru hori atearen goiko aldean.

Urtebete gehiago kare bizian errea.

- Non sartu hintzen, Emilio?

Horma hauek ez dute ezer entzuten.

Palankanako ur zikinak itzultzen didan aurpegia ez dut ezagutu ere egiten. Kosta egiten zait bizar handi bizar luze hori ni naizela sinesten. Ez al genituen kate guztiak puskatu behar? Ez dut ulertzen nola iritsi naizen hona, konpañño. Hiru bide nituen, eta okerrena aukeratu.

Txukuntzeko agindu didate ziegako begitik.  
- Bisita daukak!

**Presaka** zihoan Frantsesa. Botika batera txartelak eramane behar zituela, nahi banuen laguntzeko. Esan nion, ez nuela astoarena egiteko asmorik, baina baietz, konpainia egingo niola. Esnategitik Plaza Berrira hartu genuenean, Estudiantea dama galant batekin solasean ikusia zuela kontatu zidan. Ez zela harritzekoa esan nion, Martinita lehengusuarekin eginak zituen balentriak ezagututa.

- Gaztea baituk! -esan nion.

Esplikatu nion nola joan ginen Martuteneko erreka bazterrera ere. Irriz ari nintzen. Ez hala Frantsesa.

- Emakumeak ikustera joan zineten? -galde-tu zuen.

Hori ez zela txukuna esan zidan eta, presaka, gaia aldatu zuen.

Nik, ordea, ezin utzizkoa nuen Estudiantearen kontua, alde batetik ernegatu eta bestetik barregura ematen zidalako. Zehatzago aipatu

nahi izan nizkion erreka bazterreko komeriak, baina «Tempus fugit» esanda moztu zidan Frantsesak.

- Zuk ere badakizu noski zertaz ari naizen...

Esku bakarrarekin dominatu nuen emakume hartaz ariko zen, noski. Ikusiak gintuen, ordurako, elkarri besotik helduta paseatzen. Banekien zer pentsatuko zuen hartaz, baina ez zidan zuzenean galdetu.

- Mr. Snoid etorri zait bisitan -esan zuen.

Irlandatik etorri berria zela Mr. Snoid, aspaldiko adiskidea zuela, etxean hartuko zuela egun batzuetarako.

- Datorren asteazkenean ezingo dut Ramiro-renera joan.

Aldarte txarrean jarri eta, bat-batean, lanak bakarrik bukatuko zituela, etxera joateko agindu zidan, ez zuela nire beharrik. Nik bukatuak nituen, ordea, eguneko lanak, eta ez nuen beste zereginik.

Moldiztegiraino jarraitu nuen. Hasieran ez zidan utzi nahi, eztabaidan aritu ginen atarian, baina ez zuen sartzen uztea beste erremediorik izan.

Botikarako txartelak jasotzen eta fardelean biltzen hasi zen Frantsesa. Hura lanean ari zen bitartean, sartu eta eskuinetara zegoen apalategia aztertu nuen nik. Egunkari zaharrak, orri solteak, hariz jositako liburuak, egur xafla baino tapa lodiagoa zutenak. Ez zen apalategi handia, baina klase guztietako liburuak ikusten ziren han, nik bizitza osoan juntatuko nituenak baino gehiago, nolana ere.

Elkarren artean oso antzekoak ziruditen, eta bata bestearen gainean pilatuta zeuden liburuki lodi batzuetara joan zitzaidan eskua.

- Utzi hori, Sotero, ez du merezi -esan zidan Frantsesak-. Michellek ikusiko bazintu oraintxe bertan...

- Zer dituk ba?

Azal gogorrean urrezko letraz inprimatua zegoen izena irakurtzen saiatu nintzen: T, h, i...

- Adolphe Thiersen *Historia de la revolución francesa* -argitu zidan.

Aldamenera etorri zitzaidan eta, liburuki bat eskuetan hartuta, hasperen egin zuen.

- Donostiako liberalkumeen Biblia.

Beste liburukien gainean utzi zuen eskuetan zuena.

- Estudiante gonazale horrek ere irakurria izango du honezkero -esan zuen-. Utzi zabor pila hori, eta zatoz. Ez al zara ba laguntzera etorri?

Harritu ninduen Frantsesak liburu haiei egin zien destainak. Galdetu nion, zer zuten liburu haiek hain gaitzesgarri.

- Liburuak baino -erantzun zidan-, liburuaren egileak ematen dit nazka, badakizu?

Ez nekien zein zen Thiers hura, zergatik zion Frantsesak halako erdeinua, eta esplikatzeko eskatu nion, baina ez gehiago galdetzeko eskatu zidan, ez egoskortzeko kontu harekin.

Lanak bukatu arteko pazientzia hartu nuen. Konbentzitu nuen pattar bat hartzera joateko, asmakizuna plantatu nion muturraren aurrean, eta azkenean lortu nuen Frantsesa Komunari buruz hizketan jartzea.

Hunkitu egin zen, oihuka hasi zen, pitxer bat hautsi zuen Ramirorenean, eta hanka egin behar izan genuen handik. Badiako arkupeetan jarraitu genuen hizketan. Gauza asko esan genizkion el-

karri, batzuk egia handiak eta besteak ez hain-  
bestekoak.

Thiers hura zein zen argitu gabe etxeratu nin-  
tzen, ordea.

Gero Arrasatekoa gertatu zen, Canovas del  
Castillo hil zuen Angiolillok, eta Frantsesa «Pla-  
cez une marmite» eta «Gorago jo behar genuke»  
esaten hasi zen.

Planak egin genituen.

Aukera izan nuenean, berriro galdetu nion  
Frantsesari.

- Aizak, eta Thiers hori, nor zuan?

Gogoan dut Emiliok utzi zuen isiltasuna, eta  
nola urratu zuen.

- Badakizu Michelleren antz pixka bat duzula  
alde honetatik begiratuta?

- Bai, noski, bizarrarengatik izango duk  
-erantzun nion.

Egunero moztuta ere, laster ateratzen zitzai-  
dan berriz, indar handiz gainera.

- Bai, bizarrarengatik, noski -barre murriz  
bat egin zuen, ezkerreko ezpaina altxatuz-  
Adolphe Thiers, prusiarrei errenditu eta parista-

rrak zanpatu zituen kontserbadorea. Foutriquet esaten zion Michellek.

Foutriquetek zer esan nahi zuen azaldu zidan, ez bainekien: gizon nanoa, txikarra, ez-deusa, ñarroa, kakanarrua.

- Thiers nor izan zen jakin nahi duzu? Ba, imajinatu haur jaio berri bat bi metroko ezpata erraldoia astintzen.

Gizon hura izan omen zen Komunazale gehienak fusilatu eta Parisko kale bazterrak gorpuz bete zituena. Eskuetan gogor estutzen ari zen basoa hustu zuen Frantsesak, eta kolpe lehorra-rekin utzi zuen mostradore gainean.

- Frantziak eman duen putakumerik handiena.

Zain nago, ahal izan dudan bezala txukunduta, nor etorriko zaidan, zer esateko, igarri ezinik. Atea zabalduko dela, eta Frantsesa sartuko dela imajinatu dut.

- Bisita daukak! -agindu didate.

Seguru dakit ez dela Jaulis izango. Etortzea bururatuko balitzaio ere, ez liokete sartzen utzi-



ko. Ez dakit ikusi nahiko nukeen ere. Auskalo zer pentsatuko duen.

Ez harritu On Kaxildo izatea. Kapaz izango litzateke, enteratu bada, Asteasutik propio etortzeko. Nahiko luke bere aurrean damutuko banintz, barkamena erregutuko banio.

Besterik? Ez. Etortzekotan, aspaldi hemen behar zuen, ez da etorriko. Eta beste hiru horien artean aukeratu behar banu ere, ez dakit inori sartzen utziko niokeen. Zorionez, ez didate aukeratzeko lanik eman. Nik ezer esaterako, ziega barrura sartu da kartzelako nagusia.

- Sotero Mujika? -galdetu du.

Eskua emateko keinua egiten hasi, baina ez du nigana makurtzeko imintziorik egin. Ez nik zutitzekoa ere. Gorputzean atzera bota ditu eskuak, eta urrats batzuk eman ditu hizketan hasi aurretik.

- Albiste onak dauzkat zuretzat, Mujika.

Ondo hezitako eta ondo hazitako gizasemea da, betaurreko txiki batzuk erabiltzen dituena masail oparoetan itota. Lehen ere ikusia dut leihotik, bulegoetatik irten, patioa zeharkatu, eta ate nagusirako bidean, kanpora irteten. Arina-

goa ematen zuen ziegako leihotik ikusita, baina orain gorbatak paparretik salto egin behar diola ematen du.

Hormaren kontra eseri naiz babes bila, aurrean dudan gizasemearentzat albiste onak zer diren asmatu ezinik.

- Hiltzen saiatu zinen gizonak hobera egin du -esan du.

- Nik ez nuen inor hil nahi -defendatu naiz.

Badakit ez dela horretara bakarrik etorri. Jakin egin nahiko du, non gorde genuen dinamita. Honezkero Frantsesak salatuko zuen dena. Den-dena.

Paper bat atera du jaka barruko patrikatik. Betaurrekoak hurreratu ditu paperera, eta sudurraren gainean egokitu ditu atzera; haragitan murgildu zaizkio.

- Luis Mari Arrieta Aiestaran -irakurri du, eta begira gelditu zait.

- Esan diot ez nuela inor hil nahi. Nahi gabe izan zen.

Gutuna ostu zidala, eta hura berreskuratu nahi nuela, «Besterik ez», esan diot. Edaten aritu nintzela. Bultza egin ninduela. Borrokan hasi gi-

nela. Mingainera etorri zaizkidan guztiak bota dizkiot. Gizalegez aditu du, «Bai, noski» esan du, baina ez du entzuteko asmorik batere.

- Kontua da, ez duela hiltzeko itxurarik -moztu dit ahal izan duenean-. Ez dakit ohartzen zaren, baina gizon hori bizirik egoteak dezente lagun zaitzake.

- Erruki pixka bat besterik ez diot eskatzen, jauna -esan diot, ohearen kontra jarri eta bizkarraren tentetzen saiatuz-. Nik ez nuen inor hiltzeko asmorik. Behartu egin ninduten.

Larrurik gabe ez dagoela zahagirik; zahagirik gabe ezin zaiola ardoari kontu egin; eta nik ardoari kontu egin nahi diodala pentsatu dut.

- Sinetsi nahi nuke, baina kosta egiten zait, Mujika. Lagundu egin beharko didazu.

Orain dinamitarengatik galdetuko dit.

- Egia esango dizut: ez dit batere axola gaur arte non ibili zaren edo zer egin duzun. Zeruetako gure Jaunaren esku utziko ditut kontu horiek. Nik, orain, aurrera begiratu nahi nuke.

Zalantza egin dut, dinamitarena ba ote daki. Gizon honek ez du atzera begiratu nahi.

Harrituko ninduke, jakin eta, hala ere, isilduko balitz. Baina zer dago aurrean?

- Bospasei urteren buruan kalean egon zintezke, gizon hori onik ateratzen bada. Horrek asko aldatzen ditu kontuak.

Arrazoi izango zuen Frantsesak, moldeko le-tren antza dugula esaten zuenean. Aurrean dudan gizaseme honek P itxura du behintzat. T bat ere izan zitekeen, borra edo pikatxoi gupidagabea; baina okerturik du giderra, ezin dit kalterik egin. Jakingo balu s xehe honek zer egin nahi izan dituen, akaso bihurtuko zen T, hartuko ninduen estuago. Bake bila etorri da, ordea.

- Ez naiz gizon gaiztoa, jauna -ahalegindu beharra daukat-. Kubako gerran...

Eskuarekin agindu dit ez jarraitzeko.

- Ezagutzen ditugu nazioari Kuban egin zenizkion faboreak. Baina utzi kontu horiek, arren, ez gaude Kuban.

Aulkia hartu eta aurrean eseri zait, baldar. Estu samarra da nagusiaren atze aldeentzat.

- Gerra hura bukatu zen, Mujika. Ezin dira arazoak labankadaka konpondu. Hau ez da Kubako oihan bat; ez gara abereak.

- Badakit, jauna.

Gorbata egokitu du papo gurian. Nire portarari buruzko puntu batzuk argitu nahi lituzkeela azaldu dit, eta erruki etxeko mojekin hartzen dudan jarrera egokia iruditzen al zaidan galdetu dit. Zer esan ez dakidala utzi nau. Dinamita non gorde genuen galdetuko zidala espero nuen. Ez nuen uste mojen kontuarekin hasiko zitzaidanik.

- Badaki asto artean hazi naizela, jauna, batek ez du egiten...

- Mujika, arren, ez dizut zurikerietan hasteko eskatu. Diziplina eskatu dizut. Diziplina eta obedientzia. Ia lau urtez soldadu ibili zara, alajainkoa. Jakingo duzu zer den diziplina, ezta?

- Ez dut nire jokabidea zuritu nahi, baina esan nahi nion Parisen jaio izan banintz, bestela zatekeela kontua.

Lekutan daude hemen Komunak, konpañõ.

- Ulertzen du, ezta? Esan nahi dut Donostia ez dela Paris.

- Donostia ez da Paris, baina han bezala, hemen ere arauak daude, bete behar diren arauak. Zuk hautsi egin dituzu, Mujika, eta ordaindu egin beharko duzu.

Ordaina luzea eta etsigarria izan litekeela, edo laburra eta arina, esan dit aurrean dudan gijasemeak. «Zerorrek aukeratuko duzu, Mujika», esan du. Eskuak gurutzatu eta aurrera makurtu du gorputz handi hori. Kraskatako txiki bat atera du aulkiak.

- Aukera bat eskaintzen ari natzaizu, ulertzen duzu? Arauak zintzo betetzen badituzu, epaileari zure zigorra leuntzeko eska niezaioke. Bestela... -erdizka isildu du ziega honetan denok daki-guna.

Apropos utzi duen isilunean «Zerorrek aukeratuko duzu, Mujika» entzun dut, garbi asko, nire barruan. Baina arraroena bestea da, jakitea Frantsesak ez gintuela saldu. Abandonatu egin gintuela, baina ez gintuela saldu, eltzagorrak. Zutitu eta nire pentsakizunak urratu ditu nagusiak, aulkiaren txilioarekin.

- Borondate onez ari naizela ikus dezazun -esan dit irten aurretik-, opari txiki bat egingo dizut.

Agindua eman dio ate ertzean guri begira egon den guardiari, gazte luzanga mehar bati. Laster joan da gaztea, eta bakarrik utzi gaitu zie-

gan, ohe moduko honen kontra ni, atearen ertza betez nagusia.

- Aukera zuzena egingo duzula espero dut, Mujika -erabaki du, eta irten egin da, atea erdi zabalik utzita.

Guardiak, itzuli denean, ate zabalduari begira harrapatu nau. Harritu egin da, segur asko, atea zabalik gelditu delako, baina nire ondoraino etorri, eta eskuin eskua luzatu dit, ezkerra borratik askatu gabe. Guardiaren eskuetan nagusiaren oparia ikusi dudanean, negar malkoek egin didate irtetera.

Eskuarekin eusterako ezagutu dut erditik plegatutako kutxatxo.

- Pedro! -esan diot aurrean dudan gazte luzanga meharrari.

Harritu egin da. Ezetz esan dit, ez dela Pedro. Manuel Maria duela izena. Hori entzun diodala uste dut, baina ez nago ziur. Dagoeneko ez daukat burua ziega barruan. Aspaldi jo ez dudan kanta batekin akordatu naiz.

- Zuk badakizu zer den kapitalismoa? -galde-tu diot.

Hohnerraren kutxatxoa hartu, eta begi erreak lehortu ditut mahuka zikinarekin.